

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2014-09-26  
EGUBAKOITZA  
610. ZENBAKIA  
14. URTEA  
DOAKOA  
GOIENA.EUS  
TOKIKOM



ENERO AZKARATE

## "Lurraldeko sektore publikoa eta ehun industrialia indartu behar direla uste dugu"

**Pedro Iturbe** | Gipuzkoako Lurralde Garapenerako zuzendaria | 6



**SANMIGELAK DIRA OÑATIN ETA ARETXABALETAN**  
Jaien gaineko gehigarria barruan



**Koultur ekimena datorren astean abiatuko da, bosgarrenez** | 23



## Urtebeteko 'ugerra' kentzen dabilta, Fagor atzera ere zabaltzeko



Hesia zabaltzen. | UBANE MADERA

Asteon sartu dira langileak Garagartzako makinak puntuan jartzera | 4

## Eneko moduan jaio zen eta 4 urterekin Shaila izatera pasa da

7 urteko ume eskoriatzarrak 3 urterekin aldarrikatu zuen lehenengoz bere benetako izaera. Hasieran, etxean bakarrik; baina familiaren babesari esker, nortasuna aldatu du | 2

**Euskal Kopako lau finalistak Iturripen lehiatuko dira** | 20

**Urrezko Zeledoi izendatuko dute gaur Velez de Mendizabal** | 25



Bergarako Stoltz-Freres Organoaren Lagunen Elkartea, organo aurrean.

## Babesa Bergarako ondare baliotsuenetakoa

Urgentziatzko konponketak behar ditu San Pedroko organoak | 12

MONIKA BELASTEGI

### SINADURAK

Eskaintza | 7  
IÑIGO IÑURRATEGI

Tabernarekin aberastea gatxa | 7  
IBAN ARANTZABAL

Garapeneren izenean | 17  
JON LIZARAZU

Arrizuriaga eta Errege Seminarioa | 32  
AGURNE BARRUSO



MIREN ARREGI | ESKORIATZA

Shaila Ignacio 7 urteko eskoriatzarra da. 3 urte zituenean aldarrikatu zuen lehenengoz bere benetako izatea; orduan hasi zen bere identitate sexuala agertzen. Jaio zenean gizonezkotzat eman zuen medikuak. Medikak eta jendarteak; ohikoa den moduan, genitalek markatutako sexua eman zitzaion. Eneko izan zen Shaila, 4 urte bete zituen arte.

Etxera mugatzen zen hasieran dena. Etxera sartu eta neska izena ipintzen zion bere buruari Enekok. Neska moduan tratatzeko eskatzen zien amari eta anaia zaharrenari eta ahalik eta takoidun zapata eta soineko nabarmenenak ipintzen zituen. Joko bat zela uste izan zuten haren etxean. Lehengusinak imitatu gura zituela: "Beti zegoen lehengusinekin jolasean eta haiek ziren bere erreferente. Haiek imitatu gura zituela pentsatzen nuen nik", dio Montse Ignaciok, Shaila Ignacioren amak. Denbora aurrera zihoan eta haren "jokoa" hori baino gehiago zela ohartu zen ama: "Oso neskatila burugogorra da eta ez luke besterik onartuko". Alabaren sentitzeko moduak errespetatu eta onartu behar zituela jakin zuen Montse Ignaciok urtebeteren buruan: "4 urte eta bi hilabete bete zituenean erabaki nuen aldaketa egitea. Hura tratatzeko modua, harekin aritzekoa, haren-gana femeninoan zuzentzea, janzteko modua aldatzea... Dena horretara egokitzea".

#### Dolua, pasatu beharrekoa

Erabaki zaila hartu behar izan zuen txikiaren amak, baina badauki zuzena izan zela. "Zorionsua da eta hori da inportanteena. Horrenbestez, prozesu honetan guztian pasatu behar izan duguna ahaztu egiten da; gogorrena bera den bezala onartu arteko fasea izaten da", dio Montse Ignaciok eskoriatzarrak.

Egokitze fasea etorri zen gero. Enekorik agur esan eta Shailarekin bizi izaten ikastea. Dolua da adituaren esanetan eta dolua da amaren sentitzeko moduan: "Ume transexualak ditugun guraso guztiok bat egiten dugu horretan. Nire kasuan, mutiko bat izan nuen. Mutiko batekin bizitzen ikasi nuen, horrela tratatzen, eta bat-batean hori dena aldatu behar izan nuen. Umeari berba egiteko modua... Nire pentsatzeko modua ere erabat aldatu da", dio Montse Ignaciok.

Shaila Ignacioren familian ez zuten aurrez transexualitatea gertutik ezagutu: "Telebistan ikusita bai, baina ez nuen horrelako kasurik ezagutzen. Gertatu den guztiak errealitatea ikusteko modua aldatu dit. Nire pentsatzeko modua, dena aldatu da".

#### Erabaki ausarta

Umearekin urtebete etengabeko eztabaidetan aritu ostean pediatriarengana jo zuen Montse Ignaciok; hark bere babes osoa erakutsi zion hasieratik: "Seguru asko, babes bila joan nintzen; izan ere, ordurako hartuta neukan erabakia. Gertatzen dena da norbaitek ondo ari zarela esatea garrantzitsua dela. Pediatrak

# ADINGABEEN TRANSEXUALITATEA, identitate sexuala ez da nagusien kontua bakarrik

Eneko izena ipini zioten jaio zenean Shaila Ignacio eskoriatzarrari; 3 urte zituenean aldarrikatu zuen bere benetako identitatea

esan zidan berak ezingo ninduela bide horretan lagundu, ez zekie-la zer egin, baina bere babes osoa nuela", dio Shaila Ignacioren amak.

Izan ere, umearendako garrantzi handia zeukan kalean sentitzen zuen modu horretan agertzeak. "Bera neska da eta besteek ere hala ikustea gura zuen". Ondo gogoratzen du Montse Ignaciok aldaketaren eguna: "Aurretik ere irteten ginen kalera neskatilen arrokekin, baina gutxi batzuetan. Lehenengo aldiz, bere lehengusinarene soineko batekin aterazten", dio Montse Ignaciok. Egun hartan Eskoriatzan esamesa eta zurrumurrak entzun behar izan zituzten, baina "gutxika jendea ohitzen" joan da. "Egia esan, Shaila ez da inoiz ukatua izan. Ez du diskriminaziorik jasan, baina inpaktua eragin zuen", dio. Eta gaineratu du: "Askok uste zuten, gainera, nire kontua zela. Umearen kapritxoie men egiten niela"

#### Neskatila baten ahalegina

Hasieran, aurkitzen zituen arroparik nabarmenenak eta ikusgarrienak ipintzen zituen Shaila Ignaciok. Apaingarririk bitxienak, soinekorik arrosenak. Jendarteak ohartarazi gura zuen bere benetako izateaz. Ordura arte jendeak ikusi zuen hori benetakoa ez zela

ohartarazi gura zituen guztiak. Izan ere, hark beti jakin izan du zein den bere benetako sexua.

Hiru urteen bueltan agertzen da identitatea eta gehienak orduan ohartzen dira transexualitateaz. Neskak eta mutilak bereizten

dituen elementu biologiko eta kulturalak daudela ohartzen dira umeak. Identitatea eta genitalak bat datozenean ohikoa da prozesua. Bi elementu horiek bat ez datozenean, zaildu egiten da dena.

Prozesu guztia pasatu ondoren transexual helduekin berba egiteko aukera izan du Montse Ignaciok: "Beti galdetzen nien ea noiz jakin zuten transexualak zirela eta erantzuna beti izan da 'betidanik'. Euren haurtzaroz galde-tu izan diedanean, guztiak erantzun didate oso tristea izan dela. Inolaz ere ez nuen gura halakorik nire alabarendako".

#### Etxearen erantzuna

Garrantzitsua neskatoaren zoriontasuna zen eta haren sentipenak errespetatetik etorriko zen hori. Bide horretan, familiaren babes izan du Montse Ignaciok. Izeba eta aitaita-amamen babes eta seme zaharrenarena. "Nire seme zaharrenak ongi zekien zein zen bere arreba. Harendako ere oso arrunta izan da dena".

#### Ikastetxea eredu-garri

Montse Ignaciok harrotasunez berba egiten du bere alabaren ikastetxeaz, eta ez da gutxiagorako; izan ere, gaiaren aurrean erantzun eredu-garria eman du eta ematen dihardu: "Irakasleek

hasieratik erakutsi digute euren babes. Bide honetan gurekin egon dira eta ahal izan duten guztian lagundu digute". Hain zuzen ere, Luis Ezeiza ikastetxeko irakasleak izan ziren zentroko umeen guraso guztiak jakinaren gainean ipini zituztenak. "Informatu eta errespetua eskatu zuten". Gerora, transexualitatearen gaia naturalki tratatua izan da eskolatan ere.

Ez hori bakarrik, haren ikaskide eta lagunek ere naturaltasun osoz hartu dute beti gaia: "Berak oso ondo darama. Zortea du; izan ere, lagun guztiek errespetu handiz tratatzen dute. Ez dakit berak nortasun handia duelako den edo zergatik den, baina beti errespetatu izan dute eta onartu dute den bezala. Oso maitatua eta babestua sentitzen da bera".

#### Sentsibilizazioa, helburu bat

Shaila Ignacioren kasua eredu-garri bada ere, ez da horrela transexualen kasu guztietan, ezta gutxiago ere. Komunikabideetan eta jendartean transexualitatea geroz eta ikusgarriago egitea eta sentsibilizazioa lantzea lehentasunezko zatia du Montse Ignaciok. Duela urtebetetik, gainera, Chrysalis adingabeko transexualen gurasoan elkarteko kide da eskoriatzarra. Zortzi bat familia elkar-tzen dira hileko azken igandeetan. Honela dio Ignaciok elkartean helburuen gainean galdetuta: "Gure lehentasunak sentsibilizazioa eta transexualitatea ikusgarri egitea dira, baina baita jendeak gaia naturaltasun osoz ikusi eta tratatzea lortzea. Zerbait naturala izan dadin lortzea".

#### Kirurgia, etorkizuneko gaia

Umeak 7 urte ditu eta oraindik ez da etxean kirurgiaren edo blokeadore hormonalen gainean berba egin: "Egoerak sortzen doazen heinean joango gara erantzunak topatzen. Oraingoan, ez dugu horretan pentsatzen", dio Ignaciok. Izan ere, badauki etorkizunean halako eta bestelako egoerak sor daitezkeela: "Orain, esaterako, neska-mutiko guztiak aldatzen dira aldagela berean, joaten dira komun beretara... Etorkizunean hor gatazka bat sortzen bada, emango diogu irten-bidea", gehitu du.

#### Burokrazia, aldatuz

Dokumentazioko sexua aldatzeko aldaketa genitala egin behar zen orain dela gutxira arte. Legeak, gutxika, aldatuz doaz eta gaur egun bi urteko tratamendua nahikoa da papereko sexua aldatzeko. Hori bai, 16 urtetik gorakoak izan behar dute. Horregatik, tramite legalen egokitzea ere bada transexualen eta adingabeko transexualen gurasoan aldarrikapena.

#### Ateak irekiz

Bere alabaren sentitzeko modua errespetatu eta hark jendartean agertu gura zuen moduari ateak ireki zizkion Montse Ignaciok duela hiru urte. Umeak sentitzen zuena ez zuen jendarteak ikusten eta hori aldatu beharra zegoen. Hankartean pitilina izan arren, Shaila Ignacio neskatoa baita.

#### ESANAK

"Neska izenez deitzeko eskatzen zigun anaiari eta niri, eta nesken arropak janzten zituen"

"Sekulako babes izan dugu guztian; inguruko erantzuna ededugarria izan da"

MONTSE IGNACIO | AMA



Shaila Ignacio –Shaila Ignacio transexualaren ama–, Miren Navarro sexologoarekin. | MA

MIREN NAVARRO | SEXOLOGOA

## "Batez ere, familiari egoera ulertzeko baliabideak eskaintzea da nire lana"

Eskoriatzarra da Miren Navarro sexologia eta ondo ezagutzen ditu Shaila eta Montse Ignacio ama-alabak. Bide honetan amaren ondoan izan da Navarro, behar zuen horretan laguntzen.

### Ondo ezagutzen dituzu Shaila Ignacio eta haren familia?

Montse nire ahizparen laguna da eta ahizpak ipini ninduen jakinaren gainean. Behin, kalean, nire laguntza eskaini nion, sexologo naizen aldetik gura zuen guztian laguntzeko gertu nengoela.

### Zein motatako laguntza eman daiteke sexologiatik horrelako kasu baten?

Nire lana gertatzen ari dena ulertzen laguntzeko baliabideak eskaintzea da. Zerbaitegatik sufritzen dugunean, askotan zerbaite hori ulertzen ez dugulako da eta informazioa edukitzea garrantzitsua da. Gainera, horrelako kasuetan ondo egiten ari zarela eta animoak ematea ere oso garrantzitsua da.

### Zer-nolako baliabideak?

Egoera bera bizi izan duen mutiko baten esperientzia kontatzen duen ikus-entzunezko bat eskaini nion, identitatearen eta sexuaren gaineko materiala, gizakiaren formazio bio-

logikoaren gainekoak... Azken finean, nire lana hor egotea izan da. Edozein zalantza argitzeko, eta abar.

### Ez bakarrik familiarekin, neskatoren irakasleekin ere lan egin izan duzu.

Nik Sexologia ikasi nuen eskolan ikastaro bat eskaini zuten, *on line* egiteko ikastaro bat. Montseri eta neskatoren irakasleei egin nien proposamena eta egin egin zuten. Horrek ere asko lagundu zien gauzak ulertzeko orduan eta batez ere gaia nola landu jakiteko orduan.

### Izan ere, ez dakigu nola egin aurre horrelako egoera bati.

Ezjakintasunagatik da. Eskolak egin duen lana, baina, eredugarria izan da. Asko inplikatu da, jolasen bidez –eta asko landu dute sexuaren eta identitatearen gaia.

### Umearekin lanik egin duzu?

Sexologiatik ez dugu ikusten umearekin lan egiteko inolako beharrik. Gainera, zenbat eta profesional gehiago egon haren inguruan,

umeari orduan eta arazo gehiago sortzeko arriskua ere badago. Umeak berak, gainera, ez du arazo bat duenik sentitzen. Berak bere identitatea du beste edozein neska-mutikok moduan. Arazoa ez du berak, ingu-



MIREN ARREGI

rukoek baizik, ez baitute ulertzen gertatzen ari dena. Ingurua landu behar da: familia, eskola, kalea...

### Adingabeak zerbaitean bereizten ditu adineko transexualengandik?

Beti egon izan dira adingabeko transexualak, kontua da tapatu egiten zela. Ia ezinezkoa zen duela urte batzuk ume batek transexuala zela esatea. Ume nagusi egin direnean eman dute euren identitatearen berri; baina heldu horiek ume izan dira eta oraingo umeen berdin bizi izan dute. Oraingo umeek bezala desberdintasun handi batekin: ezin zutela publiko egin. Gertatzen dena da pixkanaka gizartea aldatzen doala eta badirela Montse bezalako ama ausart eta eredugarriak, umearen zorientasuna guztiaren gainetik ipintzen dutenak.

# ARRASATEN GANORAZKO BIZIKLETA BIDE SAREA OSATZEN PARTE HARTU NAHI?

EMAN IZENA MUGIKORTASUN MAHAIAN  
agenda21@arrasate-mondragon.net / 943 25 20 09



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN





# Makinak "berotzen" dabilta Fagor puntuan jartzeko

Urrian hasierako produkzioarekin hastea da ugazaba berrien asmoa; Garagartzako (Arrasate) fabrika izango da martxan jarriko duten lehenengoa

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Urtebete luzea askorendako, laburra beste batzuekiko, baina urrian urtebete beteko da inork espero eta ikusi nahi ez zuen irudi hori ikusi zela: Fagor Etxetresnek hesia ixten, porrotak eraginda.

Bada, asteon, kontrako irudia ikusi dugu Garagartzako fabrikari: hesia zabaldu eta urtebetez lan gabe egon diren langile batzuk fabrikara sartzen.

## Produktuorik ez, oraingoz

Mantentze-lanetakoak dira bertaratu direnak, makinaren egoera ikuskatzeko; garbiketa sakona ere egin dute Ausolanekoek, urrian ahalik eta lasterren Fagorren produkzioa berreskuratzeko.

Izan ere, legez oraindik ezin dira produkzioarekin hasi, harik

eta kooperatiba ohiaren aktiboen eskualdaketa egin arte. Fagorrek iturriek Goienari aurreratu-takoaren arabera, datorren astean gauzatuko da hori, eta hortik aurrera, CNAk bidea libre izango du Fagorren produkzioa abiarazteko, Garagartzako Electrodomesticos SL izena erabilita.

Edozelan ere, eta kontuan hartuta urtebetez lantegia itxita eta geldi egon dela, konkurtso administratzaileak baimena eman die Fagor Etxetresnen jabe berriei hasierako lan horiek egiteko, fabrika puntuan jarri eta urrian produzitzen hasteko.

## "Urtebeteko ziurgabetasuna"

Gorka da asteon lanean hasi den langile horietako bat. Edesako langilea zen Fagor itxi arte, Basaurikoa, beraz. Orain, Bizkaitik

Arrasatera etortzea tokatu zaio, baina zailtasunak zailtasun, bera pozik dago berritua lanean hasi delako. Esperantzatsua ere bada, etorkizunari begira: "Proiektu egonkorra eta iraunkorra dela ematen du".

Hala ere, ez du erraz ahaztuiko urte hau: "Ekonomikoki lorpena izango da horren epe motzean halako fabrika bat saltzea lortzea, baina guri dagokigunez, etxean zelan bizi izan dugun... luzea egin zaigu, bai. Ziurgabetasuna, urtebeteko ziurgabetasuna... bai, luzea egin zaigu".

## San Andres auzoan ere bai

Garagartzan ez ezik, Fagor San Andresen ere hainbat bulego martxan dira; horiek uztailearen amaiera-abuztuaren hasieraz geroztik. Pertsonal kontuenak, hornitzaile-

leenak, bezeroenak eta alde zuzenetik landu beharrekoen ardura dutenenak, hain justu.

## Katerako elkarrizketekin

Gauzak horrela, CNA-Catako ugazabek uztailearen amaieran iragarritako epeak betetzen dabilta, aste pare baten aldearekin. Horrek esan gura du, guztia ondo bidean urrian bertan abiaraziko dutela Garagartzako produkzioa, eta haren ostean Eskoriatzako fabrikakoa. Horren adierazle da hemengo fabriketako katean lan egiteko langileak elkarrizketatzen badabilta, Goienak jakin duenez.

## Dibisio guztiak

Fagor Etxetresnen negozioaren dibisio guztiak hartuko ditu CNA Group-en eskaintzak: lerro zurikoak (egosketa, garbiketa, hontzi-garbiketa eta hozkailuak); etxetresna elektriko txikiak eta Konforta (galdarak eta ur-berogailu elektrikoak eta gasezkoak, Bergaran eta Basaurin egiten zirenak).

## Fagor, Edesa, Aspes...

Bestalde, produktuak merkatuzeko orduan Fagor, Edesa, Aspes eta Splendid markak erabiliko ditu CNA Taldeak, bereak dituen Cata, Nodor eta Apelson markekin batera (hortik dator kio, hain justu, CNA izena). Fagor Taldearekin hitzartu du hori talde kataluniarrak, 30 urterako hitzartu ere. Horren truke, gure eskualdean lanpostu kopuru gutxienerako bat mantendu behar du CNA Taldeak derrigorrez urte horietan guztietan, Fagor Taldearekin hitzartutakoaren arabera, "negozio dibisio bakoitzeko 150-250 langile", lerro zurian, etxetresna elektriko txikiak eta Confort lerroan, hain zuzen. Eta gainera, %1-%2ren arteko ordainketa egin behar dio Fagorri royaltiengatik.

## Ordaindu

Bestalde, Fagorren itxierak kalte-tutako Ordaindu elkarteak 400 bat bazkide elkartu dira asteon Arrasateko Amaia antzokian. Plataforma "zorroztu" gura dute, barrura begira "parte-hartzaile-

goa" egin eta kanpora begira "eraginkorragoa" izan dadin. Besteak beste, Iñigo Urkullu lehendakariari bitartekaritza lanak egin ditzan eskatu diote, Mondragon Taldeko arduradunak negoziatzera eser daitezten.

## Iragarritako lanpostuak

### GARAGARTZA

#### COOKING:

257 lanpostu lehen urtean; 265 bigarrean; 270 hirugarrean eta 289 laugarrean.

### GARAGARTZA

#### WASHING

48 lanpostu lehen urtean; 70 bigarrean; 76 hirugarrean eta 84 laugarrean.

### GARAGARTZA

#### DISHWASHING

24 lanpostu lehen urtean; 40 bigarrean; 45 hirugarrean eta 51 laugarrean.

### GARAGARTZA

#### ZERBITZU NAGUSIAK

48 lanpostu lehen urtean; 48 bigarrean; 48 hirugarrean eta 48 laugarrean.

### COOLING

57 lanpostu lehen urtean; 65 bigarrean; 71 hirugarrean eta 78 laugarrean.

### ESKORIATZA

65 lanpostu lehen urtean; 65 bigarrean; 65 hirugarrean eta 65 laugarrean.

### BERGARA

141 lanpostu lehen urtean; 141 bigarrean; 141 hirugarrean eta 141 laugarrean.



Fagor Garagartzako fabrikako hesia zabaltzen, langileei bidea uzteko. | UBANE MADERA

## Osasun etxeetarako hitzorduak Internet bidez ere har daitezke

U.M. | DEBAGOIENA

Lehen mailako osasun etxeetarako hitzorduak Internet bidez ere har daitezkeela gogorarazi gura du Debagoieneko ESik. Badira urte batzuk Osakidetza zerbitzu hori eskaintzen duela, baina ezjakintasunarengatik-edo zerbitzu horrek erabilera txikia duela gogora ekarri dute aukera hori. "Debagoieneko osasun zentro guztietako familia-medikuekiko, erizainendako eta pediatrendako txandak har daitezke", azpimarratu dute.

Hitzordua hartzeko bide hori erabili ahal izateko, Internet duen ordenagailua eta norbere osasun txartela besterik ez da

behar. Hain justu ere, *Osakidetza debagoiena.org* eta *Osakidetza.euskadi.net* webguneetan *Aurretiko zita* atalera jota egin daiteke hori.

## Gripearen kontrako kanpaina

Bestalde, osasun kontuekin jarraituz, urtero sasoi honetan izaten den hitzordua ere gogorarazi dute: gripearen kontrako kanpaina hastear dagoela.

Hain justu, datorren astelehenean, irailaren 29an, hasiko dira txertoak ematen. "Aurreko urteetan bezalaxe, txertaketa 65 urtetik gorako guztientzat izango da, eta baita gaixotasun kronikoren bat duten 65 urtetik

beherakoentzat ere; esaterako, diabetesa, edo bihotzeko, biriketako, giltzurrunetako eta halako gaixotasunen bat dutenentzat", ekarri dute gogora.

## Aukera ugari

Txertoa hartzeko txandak norberaren herriko osasun etxean hartu behar dira.

Eta txertoa bera hartzeko, berriz, hainbat bide izaten dira: osasun etxeetara joanda (alde zuzenetik hitzordua eskatuta); auzoetan ere ematen dute txertoa hartzeko aukera; eta txertoa hartu behar duenaren beharrak agintzen badu, etxera ere joaten dira txertoak jartzera. Azken kasu horretan, "etxean dauden ezinduek euren medikuarekin edo erizainarekin harremanetan jar daitezke txertoa etxean hartzeko".

## Debagoieneko egoera ekonomikoak "badu irtenbidea"

U.M. | DEBAGOIENA

Horixe azpimarratu gura du Debagoieneko Sortuk, gure eskualdeko egoera ekonomikoak baduela irtenbidea.

Hain justu ere, Sortuk "kezka" adierazi du eskualdeko egoera ekonomikoaren gainean. Are gehiago, "haserrea ere adierazi" du "Jaurizaritzaren politika ekonomikoak Debagoieneko eta EAEko krisi egoera sakondu" besterik ez duelako egiten.

Horrekin batera, AHTren lanak kritikatu ditu Sortuk, diruak "xahutzen" dituelako. Eta baita Kutxabanken pribatizazioa ere, "eredu neoliberalaren" adibidetzat jarrita.

## "Herri aberatsa"

Gauzak horrela, ezkerreko alderdiaren ustez, "eredu ekonomikoan aldaketa sakona behar da, horretarako burujabetza politikoa eta ekonomikoa beharrezkoa da (...), baina bitartean, gauza asko egin daitezke Euskal Herria herri oso aberatsa delako". Hala, horrekin lotuta, EH Bilduk 150 neurri proposatu dituela gogora ekartzen du Sortuk, eta batzuk aipatzen ditu: "Azpiegitura handirik ez, zerbitzu publikoak bai; Kutxabank ez pribatizatu; lan baldintza duinak; lana eta aberastasuna banatu; presio fiskala eta tokiko garapena".



Aritz Arrieta | Larrabea lounge Klubeko gerentea

# "Bazkideen %20 debagoiendarrak dira"


Etxetik gertu, inguru paregabean dago Larrabea Lounge Cluba; Albertia mendiak babestuta, besteak beste, gertu-gertuan dauden Urrunagako eta Uribarriko urtegiak ikusten dira bertatik

**L**arrabea klubak eskaintzen duen aisialdia zeinendako modukoa da? Izan ere, askotan, golfa aberatsedo ahaldunei zuzendutako eskaintzen artean kokatzen dugu. Betiko pentsamendua izan da hori, bai, baina gaur egun elitezko kontzeptu hori ez dagokio kirol honi; ez zaigu arraroa iruditzen eskia-tzera joatea, baina, aldiz, golfean jokatzera joatea bai... parekotasun asko dauzka elitismo karakter faltu horretan.

**Klubean bada debagoiendarrak?**  
Bada, esan beharra dago debagoiendar ugari daudela, bazkideen %20 inguru izango dira, eta, gainera, izugarritzko zaletasuna daukate. Horrenbestera inoizko zaletasuna da hori, urtean behin Debagoieneko txapelketa egiten da; 120 bat lagun lehiatzen dira bertan, eta Larrabea egiten den onenetakoa da.

**Zer egin daiteke Larrabea golf klubean?**

Larrabea Lounge Clubean denetarik egin daiteke: golfean jokatu, jakina; baina uda partean, adibidez, igerilekua dago zabalik eta sekulako lekua da egun-pasa etortzeko; jatetxea badago, terraza... beti dago giro bikaina. Guk, gainera, *pack* edo eskaintza berezi bat daukagu, *Clinique* deiturikoa. Horren bitartez, golf eskolak har daitezke, eta gero bazkaldu. Hori ahalbidetzeko, golf irakasleak daude; gure kasuan, gurekin kolaboratzen Ramon Angulok jarduten du. Horretaz gainera, ospakizun bereziak egiteko aukera ere badago, enpresa bazkariak, produktuen aurkezpenak, ezkontzak, familia bazkariak... Adibidez, ildo horretan, aurten Maritxu Kajoi ospatuko dugu. Bazkari berezietarako autobusa ere jartzen dugu.



Aritz Arrieta, Larrabea Lounge Clubeko gerentea, golfean jokatzeko ibilgailuarekin.

**Zuk esan duzunagatik, beraz, hasiberriek edo golfean sekula jokatu ez dutenek ikasi ere ikas dezakete, ala?**  
Bai. Kasu horretan, ikasteko eskola dugu, bertan hainbat irakasle daude, eta, zer esanik ez, edozein momentu da egokia golfean jokatzen hasteko.

**Eta azpiegitura nagusi horien osagarriak ere baditu...**  
Bai; eta niri dagokidanez, batez ere, jatetxeko azpiegitura eta

**"Aurten, Maritxu Kajoi ospatuko dugu"**

jardunaldiak gestionatzen ditut. Golf zelaiko funtzionamenduz arduratzeko, berriz, beste gerentzia bat dago.

**Jatetxean bada eskaintza berezituren bat?**

Bai, gure jatetxeko sukaldean mikologia da berezitasuna. Edozelan ere, horrekin batera plater bereziak ere egiten ditugu. Gure eskualdeari dagokionez, adibidez, arrasatear ugari etortzen da jate-txera eta sukaldaria bera ere arrasatearra da: Floren Jimeno.

**Osterantzean, klubak dituen bestelako azpiegituren artean, deigarria da gazteendako dagoen kluba, eraikin eder eta guzti...**

Kotuan hartu behar da Larrabea golf zelaian hamazortzi

zulo daudela jokatzeko, eta horrek esan nahi du partida bakoitzean lau zepabost ordu behar direla jokatzeko. Hori lasai egin ahal izateko, seme-alabak dituzten jokalarientzako leku egokia dago ume edo gazteak bertan egon daitezen. Edozelan ere, esan beharra dago gazteek zein nagusiek jokatzen dutela.

**Kasu horretan, ze adinetatik aurrera eman daiteke izena klubean?**

**"Edozein etor daiteke, nahiz eta pribatua izan"**



Jangela.



Terraza.



Golf zelaia.

5 urtetik aurrera eman daiteke izena klubean.

**Gainera, Larrabeako bazkideek aukera dute bestelako golf klub batzuetara joateko, ezta?**

Bai. Beste zelai batzuekin akordioak daude bertako bazkideendako merkeago izan daitezen *green fee*-ak, bestela esanda, merkeago jokatu ahal izateko. Eta hori osatzeko, *Bazkari ederra* izeneko eskaintza dago.

**Eta bazkide ez direnak joan daitezke Larrabeara?**

Edozein etor daiteke Larrabeara, nahiz eta pribatua izan. Bertako instalazioak guztiontzat zabalik daude: igerilekua, jate-txea, kafetegia, eta baita golf eskolak ere.



larrabea  
lounge club





Pedro Iturbe | Gipuzkoako Lurralde Garapenerako zuzendaria

# "Gipuzkoako eskualdeetako garapen agentziak estrategikoak dira"

- ▶ Gipuzkoa Sarean bultzatu nahi dute Diputaziotik, "eraikitzen doan zeharkako eredua"
- ▶ "Lurraldeko sektore publikoa eta ehun industrialia indartu behar direla uste dugu"

ENEKO AZKARATE | ANTZUOLA

Urtebete pasa eman du karguan Pedro Iturbe Antzuolako alkate ohiak (EAE-ANV). Izan ere, iazko maiatza ezkerro da Gipuzkoako Diputazioko Lurralde Garapenerako zuzendaria. Gipuzkoa Sarean proiektua bultzatzea da haren lehen egitekoetako bat.

**Gipuzkoa Sarean proiektua aurkeztu eta abian jarri zenuten aurtengo udaberrian. Zein izan da helburua?**

Helburu garbia dauka: lehendik geneukan eredu batetik, Gipuzkoa Aurrerako eredutik, beste eredu baterako, eredu berrirako, jauzia egitea. EAJren ereduaren zen Gipuzkoa Aurrera; goitik beherako eredu. Lau eragile ekonomiko nagusirekin adostutako eredu, proiektu inportanteak abian jartzeko. Gipuzkoa Sarean, berriz, zeharkakoa da. Eragile sozio-ekonomikoen artean landutako eredu. Eraikitzen doan eredu.

**Eskualdeetako garapen agentzien elkarlanean diharduzue?**

Lurraldeko garapen agentziak oso garrantzitsuak dira; estrategikoki indartsuak. Gipuzkoan hamar eskualde garapen agentzia daude eta, une honetan, Buruntzaldean sortze prozesuan daude. 80ko hamarkadan udalek bultzatuta sortzen hasi ziren, eskualdeetako garapen ekonomiko bultzatzeko. Krisi testuinguruan, tresna eraginkorrak. Garapen agentziak, halere, azkenaldian bihurtu dira beste erakunde gora-gokoaren tresna, bideratzaile edo kudeatzaile. Eta hori aldatu nahi dugu. Hausnarketa konpartitzen dugu eta eskualdeko eragile aktibo izan behar duten heinean, uste dugu beste funtzio bat bete behar. Luketeela eskualdean, garapen ekonomiko dinamizatuz, bultzatuz...; eta baita, modu horretan, lurraldearen garapenean lagunduz.

**Proiektu konkretuetarako ze diru poltsa dauka Gipuzkoa Sarean-ek?**

Lehenik eta behin, esan nahi dut gure ustez hau ez dela filosofikoa, gogoetan oinarritutako lan lerroa izanik ere. Azkenean, ondorio praktikoa ditugu egunerokoa: sektore publiko indartsu baten alde gaude, beste batzuek murrizketen alde egiten duten bitartean, Diputaziotik, esaterako, gizarte politika publiko indartsuak abiatu nahi ditugu; baita mugikortasun politika indartsuak ere, eskualdeen eta herrien arteko harreman bideak bultzatuz, esaterako, merkataritza-eta bultzatzeko; edo zerga politika justua-



Lurraldeko garapen agentzien elkarlanean dihardu Pedro Iturbek Diputaziotik. | GOIENA

go eta progresiboak... Lurraldean aberastasuna modu orekatuan bultzatuko duten politikak. Betiere, helburu praktikoen eta zeharkako politika globalak bultzatuz. Baina adibide konkretu bat jartzearren, Gipuzkoa Sarean elkargunetik, lurraldearen egoera sozio-ekonomikoaren gaineko ikerketa eta diagnostiko baten ondoren, bideratuko ditugu sei milioi euro Gipuzkoako ehun industrialia bultzatzeko.

**Zer dio diagnostiko horrek?**

Ehun industrial indartsua daukagu eta erreferentziako enpresa indartsuak ere bai, nazioartean, aurre-aurrean, lehiatzen dabilzanak. Baina, horrekin batera, badaukagu enpresa txiki asko. Izan ere, lurraldeko enpresen %90 inguru txikiak dira eta horiek hainbat gabezia dituzte: teknologiarekin lotutakoak; edo merkatu dibertsifikaturik ez daukatelako; edo ez daukatelako produktu berezirik; edo antolaketa aldetik ere hutsu-

neak dituztelako... Hala, erakundeetatik politika zehatzak bultzatuz gero, gabezia horiek leuntzen lagun daiteke.

**Fagorren kasua da adierazgarria.**

Bai, bai, Fagor Etxetresnak itxi eta haiendako bakarrrik lan egiten zuten inguruko hainbat enpresa txiki itxi behar izan zituzten. Mendekotasun handia zutelako Fagorrekiko enpresa haiek.

**Zertarako sei milioi horiek?**

Epe motz-motzera, premiazkoak diren egitasmoak aurrera eramateko. Diagnostiko horretan, hainbat txoke-plan proposatzen dira. Identifikatzen ditugu bideragarriak izan daitezkeen hainbat enpresa eta txoke planak planteatzen dizkiegu. Horretara bideratuko dugu diru hori. Bestetik, Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera, enpresa txikietan gestio ereduaren inguruko maila estrategikoak-eta barne antolaketa eremuak lantzeko partida ere izango da. Eta eskualdeetako

lanbide heziketa eskolekin batera, enpresen produktibitate gabeziari aurre egiteko lan lerroak sortu ditugu. Enpresa hauen prozesu produktiboa hobetzeko lanketa irauker bat abiaraziko dugu. Merkatu eta produktuen dibertsifikazioa bultzatzeko, elkarlanean dihardugu Diputazioko berrikuntzako alorrekin. Enpresen arteko elkarlana-eta bultzatuz, merkatu berrietarako sarbideak laguntzeko, besteak beste.

**Gipuzkoako enpresen zailtasun eta erronkarik handienak zeintzuk dira?**

Aipatutako hiru nagusiak eta dibertsifikazioa, bai produktuari eta baita merkatuari dagokionez. Enpresaren dimentsioa oztopo izan daiteke, baina irtenbidea ez da enpresa handiak sortzea, txikiak elkarrekin aritzea baizik. Mundura zabaltzeko. Alemania edo Frantzia krisian edo gaixo daudenez, Gipuzkoako enpresek asko sufritzen dute. Horregatik, beste merkatu batzuetara zabal-

tzea komeni da, mundua ez dagoelako krisian.

**Egoera ekonomikoa hobetzeko zantzurik igarri duzue?**

Gure sektore publikoa eta ehun industrialia indartu behar dela uste dugu eta ahalegin horretan dihardugu. Uste dugu finantza-erreminta indartsuak behar ditugula. Zentzu horretan, ikusten ari gara herritarrek sortutako finantza erakunde bat, Kutxa, esku pribatuetan geratzen ari dela. Eta horren aurka gaude. Kutxabanken kasuan, gainerako alderdiak, lurraldearen interesen kontra dabilzala uste dugu.

**Catak Fagor Etxetresnak erosi izana eta erosketa horren baldintzak egokiak ikusten dituzue?**

Inportanteak dira enpleguaren kalitateari eustea, kopurua bermatzea eta enpresaren erabakimena Gipuzkoako lurraldean kokatzea. Ikusi behar dugu ze mailatan betetzen den guztia. Hori esanda, Fagor Etxetresnak berriro martxan jartzea eta jendea lanean hastea da inportantea.

**"Fagor Etxetresnak berriro martxan jartzea da orain inportanteena"**

**"Sei milioi euro bideratuko ditugu ehun industrialia bultzatzeko"**

**"Kutxabanken, Gipuzkoako interesen kontra dabilza"**

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.





## ZABALIK

IÑIGO IÑURRATEGI  
goiena.net/komunitatea/



## Eskaintza

Udazkena etorri jaku eta berriro eguneroko borobiltzarrak bueltaka bueltaka ekin dau. Uztaillan lanok gobernu biharrian mingaina kanpua bukatu eta oin barrixan barri lehengo abixadia hartzeko mingaino zapaldu biharrian. Aurrerabidian kontuak. Ohikua da sasoi honetan ikasturte berriekin batera aldizkari, telebista eta abarretan eskaintzak (faszikuloka) danetarikuak topatzia. Ba neu be eskaintza batekin nator. Komeni edo gustuko badozue hartu, eta bestela segi lasai.

Egitasmo interesante bat martxan jartzeko bazkide bila gabiz eta Ereindajan izeneko kontsumitzaile eta baserriarren elkarte baten parte izateko aukeria eskaintzen dotzuet. Zertarako? Bertako eta sasoiako produktuak eskainiko daben denda baten produktuak eskuratzeko. Ereindajenen helburua dendatik haruntzau doia, nahi dogulako lagundu gure eskualdian ekoizpen eta kontsumo baldintza egokixak emoteko plataforma bat sortzia, bertako produktuen salerosketarako, batzuna lana, bestion osasuna eta danon bizimodua hobetzeko asmuaz.

Nun? Mondragoen egongo da dendioi, lokala ondiokan zehaztu barik daon arren. Noizko? Behin lokala zehaztu eta moldatutakuan aurki zabalduko dogu. Zeinentzako? Denda horretan edonork erosi ahal izango dau, baina Ereindajeneko bazkidiok (gaur egunian bagare 70 bat) prezio merkiauak eukiko dittugu. Bazkidiok, gainera, produktuen inguruko eskaintza berezixak izango dittugu, aurretik eskaerak eitteko aukeria, ikasturak...

Bazkide egittia erreza da: hasierako ekarpena 90 euro da, eta gero urteko kuota 30 euro. Baina dana ez da dirua. Egitasmo sozial eta herrigintzakua danez, elkartian inportantia da lan boluntarixua. Bakoitzaren bihar eta aukeretara egokituko da lan boluntarixua. 30 lagun inguruk dihardu auzolanian dendia zabalteko, arlo diferentetan. Interesa eduki ezker, [ereindajan@bagara.net](mailto:ereindajan@bagara.net) era idatzi edo 943 796848ra diard egin. Animo, elkarrekin gustora jarduteko aukeria daukagu!

## "Ereindajan elkartiaren helburua dendatik haruntzau doia"

## USTEAK USTE

IBAN ARANTZABAL | [iarantzabal@goiena.com](mailto:iarantzabal@goiena.com)

## Tabernarekin aberastea gatxa

Bazen, antza, garai bat taberna zutenak aberasten zirela uste genuena. Erdia ustela gehienetan, zeren familia osoak lana eginda ere nekez egin da dirurik tabernan, ezta normalean gehienok sartzen ditugun orduak adinako bi eginda ere. Norbaitzuk aberastuko zirela? Bejondeiela, baina ez ziren gehienak izan. Gaur ere berdin, edo okerrago. Beste sasoi bat bizi dugu eta bezeroon ohiturak ere aldatzen daude. Tabernariak egokitu beharko dira bezero berriak erakartzeko eta zerbitzua hobetzeko. Eta, hala ere, nekez. Aberastu? Akaso bateron bat, baina astean berrogei ordu lan egin eta etxera doan tabernari asko ezagutzen dituzue? Nik apenas. Errespetua ere zor diegu.

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | [goiena.net/komunitatea/](http://goiena.net/komunitatea/)



## HANDIK ETA HEMENDIK

## Zorionak, Goikobalu-zaleok!

Xabier Zubizarreta  
(Zuztarrak Errotuz)  
Arrasate

Zuztarrak Errotuz taldetik, gutuntxo hau idaztea erabaki dugu, Goikobaluko Erromerixie bukatuaz batera, zapatu ilunkaran bertan.

Askotan, horrelako ospakizunak burutu eta gero, eskerrak ematen zaizkie antolamenduan parte hartu duten guztiei. Guri ere *tentaldi* berbera sortu zitzaigun larunbat ilunkaran, baina buelta pare bat eman eta gero, erabaki dugu eskerrak ez ezik zorionak ere ematea erromerian parte hartu zuten guztiei; antolaketan jardun zutenak nahiz egunean bertan han egon ziren guztiak barne. Batzuk ordu asko, beste batzuk borondate on pila bat, besteak ekarpen txiki bat, ohar bat, animoak, lan isila, dantza, musika, abestien letrak, fotokopiak, taloak, kableak, bozgorailuak, ikurrinak, lanorduak, ura, ardoa,

sagardoa, txalaparta, txistua, panderoa, alboka, dultzainak, ardura, bertsoak, janaria...; Baina denak errepikatuzeko gogo biziz eta honek merezi duela sentituz jaitsi ginen Arrasateko alde zaharrera. Aurtengoa bigarren *edizioa* baino ez da, baina Zuztarrak Errotuz-ekook daukagun sentipena da, bai herriko taldeak zein jendeak nola esku hartu duen ikusita, gero eta lan gutxiago egin beharra dugula erromeria honen antolaketan; berez doa...; beraz, zorionak denoi eta datorren urtekoa prestatzen hasi, jada gutxiago geratzen da-eta! Zuztarrak Errotuz.

## Trikimailuak begi bistan

Gorka Bereziartua  
[argia.com/blogak/boligrafo-gorria/](http://argia.com/blogak/boligrafo-gorria/)

Aurreiritziekin sartu naiz *Magical girl* ikustera, film luze bat lehen aldiz zuzendu duen Carlos Vermut Sail Ofizialean egotea festibal honek nazionalismo zinematografiko

espainiarren egiten dizkion kontzesio horietako bat izango zelakoan.

Baina nahiko gustura ikusten den filma dela esango nuke, gauza batzuk onartzeko prest bazaude.

Javier Reboloren zinemagintza gogora ekartzen du pelikulak. Eta zinema mota horren abiapuntuko kodeak dira trikimailua.

Bestela esateko, egiantzekotasuna bigarren planoan geratzen da hemen, pertsonaiek jarrera absente moduko bat hartzen dute eta dialogoak absurduak dira.

Geroz eta gehiago korapilatzen diren hiru istorio uztartuz osatutako filmak badu bigarren irakurketa ere, Espainiako Estatuak bizi duen egiturazko krisiari egindako kritikak begi-bistakoak baitira. Filmaren hasierako jolasak (xantxia-istorio ezinezko bat) irauten duen bitartean ondo funtzionatzen du.

Bukaera aldera ordea, José Sacristanen pertsonaia bihurtzen da protagonista eta, *deus ex machina* bat egiten du.

Errazkeria handiegia nire gusturako.

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena-abizenak, herria eta telefonoa. Gutuna helarazteko: Otilora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | [gutunak@goiena.com](mailto:gutunak@goiena.com) | Faxa: 943 25 05 00

goiena  
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
Otilora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagire

Zuzendaria Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate

Erredaktore burua Urbane Madera

Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo

Argazkilaria Imanol Soriano

Publizitatea Mireia Larrañaga,

Amara Mundiñano, Ziortza Martin,

Imanol Elortza

Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.

Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500

Otilora Lizentziaduna 31

132 posta-kutxa

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

[berriak@goiena.com](mailto:berriak@goiena.com)

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500

Otilora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

[publi@goiena.com](mailto:publi@goiena.com)

HARPIDETZA

Arrasate 20500

Otilora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

[harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com)

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 20.100 ale

Difusioa: 19.951 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala




Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza  
diruz lagundutako  
aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





UDAKO ARGAZKIEN X. GOIENA LEHIAKETA

# Aukeratu zure argazki gustukoena!

Irabazi otarre eder bat munduko hainbat kafe motarekin Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

Eman botoa: [blogak.goiena.eus/argazkiak](http://blogak.goiena.eus/argazkiak) irailaren 25etik urriaren 1era

Jarraitu gaitzazu:  udakoargazkiak  udakoargazkiak

ANTOLATZAILEA:

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTAILEAK:

**kb**  
photoestudio  
www.kbphotoestudio.com

ARRASATE BIDAIAK

**GURE AMETSA**  
JATETXEA

Arrasateko hipermerkatua  
**EROSKI**  
zurekin  
**karibu**  
munduko zapoak  
karibumundukosapoeak.com



# HERRIAK

## Xehetasun guztiak prest, Maritxu Kajoi egunerako

- ▶ SUDC elkarteko ordezkariak omenduko dituzte gaurko Nobenaixuan
- ▶ Komisiñuak dei egin du dotore-dotore eta eskapularioa jantzita irteteko

M.T. | ARRASATE

SUDC taldeko kideak inbutua buru gainean dutela ibiliko dira gaur, Maritxu Kajoiako astebe- te baino geratzen ez den honetan. Izan ere, gaur ospatuko dute Nobenaixua Maritxupear, 18:30etik aurrera, eta aurten SUDC elkarteko ordezkariak izango dira omenduak. Inbutu preziatua jasoko dute, herrian egin izan duten eta egiten duten "lan guztiagatik". Nola ez, ardorik eta gaztarik ez da falta izango.

Komisiñoko kideek, gainera, urtero legez eskapularioa zintzilik eta dotore-dotore irteteko dei egin diete arrasatearrei zein kanpotik datozen guztiei. Horretarako, eskapularioak dagoeneko jarri dituzte salgai hainbat tabernatan, eta egunean bertan ere salduko dituzte. Goizean, kaleetan zehar ibiliko dira zintzilarioak saltzen eta arratsaldean, Arbolapetan, parrokiaren ondoan eta Monte tabernatik gertu jarriko dituzte salmenta-guneak.

Era berean, Komisiñokoek gogoratu dute Maritxuk "asko" eskertzen dituela kuadrillek eskaintzen dituzten lore sortak. Horrez gain, egunean bertan ateratako argazkiak jaso nahi dituztela azaldu dute ([maritxuzaliak@gmail.com](mailto:maritxuzaliak@gmail.com) helbidean). Bildutakoen artean, bertako produktuen saski bat zozkatuko dute.

### Elkartzeko aitzakia bikaina

Kuadrilla askorentzat, aspaldi ikusi gabeko lagunekin elkartzeko hitzordua izan ohi da Maritxu



Ima Ruiz, Kapikua dendako soineko eta osagarri artean. | MAIALEN TORRES

### Goienaren 'photocall'-a, foko eta guzti

Urteko egubakoitzik dotoreenean, Herriko Plazan *photocall*-a jarriko du Goienak, agertokiaren ondoan. Horrela, gerturatzeko direnek alfonbra gorriaren gainean eta fokupean egunaren oroigarri eder bat egin ahal izango dute.

*Photocall*-a eguerdian eta arratsaldean zehar egongo da martxan, 12:30etik 14:00etara eta 17:30etik, 19:30era. Argazkilariak ateratako argazki guztiak [Goiena.eus](http://Goiena.eus) atarian egongo dira ikusgai, eta Whatsapp bidez 688 69 00 17 telefonoan jasotakoak ere bertan izango dira.

ç

Kajoi, betiere mahaiaren bueltan. Sara Merenderue jatetxeok, esaterako, bi menu berezi eskainiko dituzte aurten, 27 eta 35 eurokoak. Horrez gain, autobus zerbitzua ere jarriko dute, 14:30ean eta 22:00etan.

Garaian, berriz, inauguratu berri dute jatetxea, eta hasi baino ez dira egin, baina 32 euroren truke menu berezia prestatu dute haiek ere.

Kuadrilla askok urte batetik besterako erreserbak egin ohi dituzte, baina oraindik halakorik egin ez dutenek ere badute mahaia-

### Aurtengo bertsoa

*Gasteiz, Iruñea zein Edinburgok  
Madril edo Bartzelonak  
kontestu berak zeinen desberdin  
jartzen gaituen pertsonak  
bere etxean, bere barruan  
dauzka arazo sakonak  
pertsona bati galdetzeari  
uko egiten dionak.*

*Hainbat lekutan ez baitute nahi  
aldatzen den kontesturik  
ta herritarrek etxean-presos  
sasian ta bakarturik  
guk aldaketa bilatzen dugu  
hortzak gogor estuturik  
berriro ere gerta ez dadin  
horrelako istripurik!*

ren bueltan batzeko aukera. Izan ere, bi jatetxeek ateak zabalik dituzte erreserbetarako.

### Dotore jantzita

Gorbatak, alkandorak, soinekoak eta takioiak hartuko dituzte askok, ohiko bakero eta kamiseten ordez. Izan ere, urriko lehen ostiralean dotore jantzea ia derrigorrezko bihurtu da arrasatear gazte eta helduentzat.

Aurtengo joerei dagokienez, "soineko motz, estu eta beltzak" aipatu ditu Kapikua dendako Ima Ruizek neskontzat, eta mutilen kasuan ez du aldaketarik aurreikusit. Izan ere, Ruizek uste duenez, "mutilek aurreko urteetako trajeak erabiltzeko joera dute, erosotasunagatik eta arrazoi ekonomikoengatik". Neskengan ere nagusituz doan joera da, Ruizen esanetan: "Jendeak, orokorrean, gero eta gutxiago erosten du komertzio txikietan, kate handien kompetentzia dela eta".

Horregatik, Kapikuan jantzi eskusiboen aldeko apustua egiten dute. Ruizek azaldu duenez, prezio onean dituzte soinekoak, eta "Maritxutan jantzeko bezain dotoreak" diren arren, "egunero-kotasunean erabiltzeko" ere balio dute askok.



**larrabea**  
lounge club

Landako errepidea z/g  
01170 Legutio (Araba)

## MARITXU KAJOI AFARIA

Iberikoak

•  
Onddo eta iberiko krocketak

•  
Langostinoak armagnacekin

### Aukeratzeko:

Itsas zapoa plantxan  
hornigaiarekin

•  
Pirinioetako entrekota  
patatekin

30€



**ARRASATETIK  
AUTOBUSA DOAN!**

21:30ean  
Arrasate - Larrabea - Arrasate

**Informazioa eta erreserbak**

945 46 58 22  
telefono zenbakian  
(Larrabea golf kluba)

Postrea, kafea, kriantza ardoa, Verdejo zuria eta cava

**Ostean, musika eta dantza**





Joxe Etxeberria eta Nerea Laspiur, Kulturateko erakusketan. | M.T.

## Bizikleta-bide sarea osatzeko alternatibak ikusgai Kulturaten

Etxaluze-Musakola bizikletaz egiteko bidea herritarrekin elkarlanean diseinatuko du Udalak

MAIALEN TORRES | ARRASATE

Astelehenean hasi eta zapatuta arte *Etxaluze-Musakola bizikletaz egiteko alternatibak* erakusketa zabalik da Kulturaten. Izan ere, Udalak "guztion artean diseinatutako bide sarea" osatu nahi du, eta, horretarako, herritarren iritzia jasotzeko lanean hasi dira dagoeneko. Arrasatearren esanak kontuan hartuz, bizikleta-bidearen kokapena eta diseinua erabakiko dituzte, besteak beste.

Interesa dutenek astean zehar 17:30etik 20:00etara eta zapatuan 10:00etatik 13:00etara izango dute Kulturateko klaustroa gerturatzeko aukera. Gainera, tarte horietan udal teknikari bat izango da bertan, zalantzak argitzeko.

Etxaluze eta Musakola lotuko dituen bideak bi kilometrotik gorako luzera izango du,

eta tarte bakoitzari dagozkion alternatiben balorazioa ere aurkezten da erakusketan, puntuazio bidez. Horrela, nota jarri diote, besteak beste, zirkulazioan zein oinezkoengan izango duen eraginari.

### Tarte bakoitzak bere izaera

Bizikleta-bidea hamazazpi tartetan banatu dute, bakoitzaren ezaugarrien arabera ibilbide diseinua finkatzeko, eta hiru formatu aurkeztu dituzte. Horretarako nahikoa leku den kasuetan, espaloitik doan bizikleta-pista izango da aukeretakoa bat. Bestela, bizikletek errepidetik joan beharko dute, kasu batzuetan banandutako eta babestutako bideetan, eta beste batzuetan, errepidean bertan margotutako bide partekatuetan.

Hiru aukera horiek, ordea, diseinuaren oinarria baino ez dira izango, eta moldaketak egin beharko zaizkie; besteak beste, zabalerari dagozkionak.

### Erabakia elkarlanean

Hirigintza zinegotzi Joxe Etxeberria azaldu duenez, bizikleta bidea "praktiko eta erabilgarri" egiteko asmoz, diseinua eta trazatua herritarrekin elkarlanean erabakiko dute.

Horretarako, mahai bat osatuko dute herriko hainbat eragilarekin, eta bertan ahotsa izango dute, besteak beste, eskolek eta zikloturista elkarteak. Dena den, mahaia norbanakoei ere irekita egongo da, eta, horrenbestez, interesa duen edonork parte hartu ahal izango du proiektuan.

## Hiru auzo-konpost gune berri jarri dituzte martxan

110 familia berri kudeatuko dituzte euren hondakin organikoak, sistema berri batekin

M.T. | ARRASATE

Musakolako, Monterongo eta Gorostizako auzotarrek konpost-guneak izango dituzte aurrerantzean. Horrela, 110 familia berri gehitzen zaizkie duela urtebetetik beste auzo-konpost guneetan parte hartzen zutenei eta auto-konposta egiten dutenei. Guztira, 570 etxe dira euren hondakin organikoak gestionatzen dituztenak.

Konpost-gune berriak, gainera, konpostagailu txikiz osatu ordez, etxola itxurako edukiontzietan kokatu dituzte. Hain zuzen, sistema berriaren bidez, espazio txikiagoa behar da eraikuntzarako eta merkeagoa ere bada.

Erabilerari dagokionez, Ingurumen zinegotzi Josu Pereda azpimarratu du arrakastaren gakoa "aireztatze egokia" dela,

barne tenperaturak eta konpostatze prozesuak behar bezala funtziona dezaten. Herritarrek ikasia dute hori dagoeneko, konposta egiteko ikastaroetan aritu baitira. Hala ere, sistema berriarekin aireztatze lanak konplexuagoak izango direnez, Udaleko behargin batek betekiko du astean behin lan hori.

### Emaltza onak

Udalan oso pozik daude orain arte jasotako emaitzekin, auzo guztietan A kalitateko konposta lortu baitute. Hala ere, ez dute ekimena gehiago zabaltzeko asmorik, Pereda azaldu duenez. Izan ere, konpost-guneak etxeetatik gertu egon behar du, baina ez gertuegi, eta, Udalaren arabera, eraikitze balaintzak betetzen dituen gune gehiago ez dago herrian.



Josu Pereda, Monterongo auzo-konpost gunea aurkezten. | M.T.

### Bedoña auzoa gertutik ezagutzeko aukera izango da domekan

Loramendi Elkarrekin antolatuta, Bedoña auzoa ezagutzeko bi orduko ibilbidea egingo dute domekan. 09:00etan abiatuko dira elkartetik bertatik, eta adin guztietara egokitutako txangoan, Andra Mari Zuriaren ermita ikusteko eta Malbe artzainaren istorioak entzuteko aukera izango da.

### Kaskonategiko autobus geralekua handitu egingo dute

Ibilbide luzeko autobusetzat Kaskonategiko geralekua handitzeko asmoa du Udalak. Hiru enpresak aurkeztu dituzte aurrekontuak eta dagoeneko itxi dute kontratua, 9.700 euro ingurukoa. Birplanteatze-akta sinatzea falta da, eta orduetik aurrera bi hilabeteko epean bukatuko dituzte lanak.

GARAIA  
JATETXEA

**BERRIZ ZABALIK!**

**MARITXUTAKO MENUA**

- Iberikoak
- Kroketa
- Rabak
- Entsalada epela ganboiekin eta frutekin
- Legatza barazkitxoekin
- Entrekota piperrekin eta patatekin
- Kafea eta postrea
- Ura, urteko ardoa eta sagardoa

32 €

Erreserbak irailaren 29ra arte. **943 05 36 74**

Eguneko menua 10 € • Menu berezia 20 €  
Pintxoak, ogitartekoak... • Aparkaleku pribatua

**Asteleheneretik ostiralera**  
08:30-17:00

Sukaldea zabalik eten barik.  
**Zapatuetan eta domeketan**  
Taldeentzat zabalitzen dugu, enkarguz.

Garaia Berrikuntza Gunea  
Golru kalea 1 • ARRASATE  
943 05 36 74  
reservas@restaurantegarala.com

BIODANTZA

astea IRAILA 15-29

626 66 12 92

ELKARTASUN GUNEAK IREKIZ

KLASE IREKIAK ETA DOAN

**ARRASATE**

- Asteazkena, 17. Arrasate Yoga Elkarte. 19:30-21:30.
- Osteguna, 25. La Merced ikastetxea. 18:30-20:30. (Euskaraz)
- Astelehena, 29. La Merced ikastetxea. 19:30-21:30.

**ELORRIO**

- Ostirala, 19. Txintxirri ikastola. 18:00-20:00.

**BERGARA**

- Astelehena, 22. Mariaren Lagundia ikastetxea. 18:30-20:30.





Igor Isasi, Mojatetik entrenamendu baten. | ISEI BARBERO

Igor Isasi | Arrasate Rugby Taldeko entrenatzailea

## "Ligan egondako aldaketak direla-eta, goian egoteko taldea daukagula uste dut"

Arrasateko taldea Euskal Ligako B multzoan lehiatuko da, beste hamaika talderen kontra

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Arrasate Rugby Taldeko seniorek bihar hasiko dute liga txapelketa Getxon (16:00). Federazioak egindako aldaketak direla-eta, denboraldi-aurre motza egin dute, baina gertu daude denboraldia hasteko.

**Liga hasiera Getxon. Zer asmoekin zoazte hara?**

Aurreko aste bukaeran Elorrioren kontra egindako jokoa egiteko asmoekin, eta punturen bat lortzeko gogoz ere bai. Errugbian partiduak galdu arren, bonusak lor daitezke, eta hori izango da denboraldirako gure erronka: etxetik kanpo bonusak lortu eta etxean, berriz, partiduak irabazi.

**Erronka horiek betetzen badituzue, sailkapenaren goiko lekuetan egongo zarete.**

Hori da helburu nagusia. Aurten Euskal Ligan bi multzo egongo dira. Iaz lortutako emaitzengatik A multzoan egotea zegokigun, baina guk erabaki dugu B multzoan jokatzera. Gure antzeko helburuak dituzten taldeen kontra lehiatuko gara. Multzo honetan, errugbiak disfrutatuko eta asko ikasiko dugu.

Aldez aurretik, goiko lekuetan egoteko hautagaiak izango gara. Gero, baina, emaitzek jarriko gaituzte merezi dugun lekuan.

**Denboraldi-aurrea espero baino laburragoa izan da.**

Azken urteetan urri erdialdean hasi izan dugu denboraldia, eta irailean hasita denbora izan dugu liga prestatzeko. Aurten, baina, txapelketek lehenago hasi behar zutela esan zuen Federazioak eta denboraldi-aurrea hiru astekoa izan da, baina prest gaude hasteko.

**Aldaketa asko daude taldean?**

23 jokalaridun taldean, eta, tartean, aurpegi berriak ditugu. Talde orekatua da eta gogoz hasiko dugu denboraldia.

**Helburuak betetzeko, lesiorik ez egotea eta entrenamendu saio onak egitea ezinbestekoa dela uste duzu?**

Bai, zalantza barik. Lesioak nahi barik etortzen dira, eta espero dugu inork minik ez hartzea. Entrenamenduak ere beharrezkoak dira. Aste bukaerako partiduak ondo antolatuz lan-saio onak egin behar dira, eta, hori lortzeko, jokalarien konpromisioa ezinbestekoa da.

### "Jokalarien konpromisioa ezinbestekoa da helburuak lortzeko"

## Bullet Proof Lovers donostiar boskotea gaztetxean

Kontzertua bihar zapatua, egubakoitza, izango da, 22:00etan, eta sarrerak leihatilan, bost eurotan

M.B. | ARRASATE

Bullet Proof Lovers donostiarrek kontzertua egingo dute bihar, zapatua, Arrasateko gaztetxean, 22:00etan. Sarrerak bost eurotan salduko dituzte leihatilan.

**Abeslari amerikarra**

Bullet Proof Lovers taldeak bira txiki bat egiten dihardu irail bukaeran, eta geldialdia egingo du Arrasateko gaztetxean.

Donostiako taldea berria da, baina esperientzia handiko musikariek osatzen dute: Kurt Baker (Kurt Baked Band, Leftovers),

Juan Irazu (Discipulos de Dionisos), Luis Costa (Txorlitohead), Joseba Arza (Brigada Criminal, Señor No) eta Gonzalo Ibañez (Nuevo Catecismo Catolico, La Perrera) dira kideak.

Abeslaria Kurt Baker amerikarra da, power-pop alorrean zeresana eman duena, eta harekin batera emaitza rockero irekia lantzen dute: Europako punk-rocketik, amerikarretik, power-popetik eta rock klasikotik edaten dutela esan daiteke. Hain zuzen ere, laster kaleratuko dute lehenengo lana.

## Buzkantzak, jolasak eta rock kontzertua Garagartza auzoan

San Migel jaiak ospatuko dituzte Garagartza auzoan gaurtik astelehenera arte. Askotariko ekintzak egingo dituzte. Gaur, Screammers & Sinners eta The Potes taldeen kontzertua izango da nagusi (22:30). Zapatuan, meza (12:00), umeendako jolasak (11:30), Gorritiren erakustaldia (17:30) eta Gaur Bai taldearen erromeria (19:30) egongo dira. Domekan, futbol partiduak (10:00), meza (11:00), Txikitxu taldearen emanaldia (12:30) eta auzoko bazkaria (14:30). Astelehenean, San Migel egunez, eta jaiak bukatzeko, meza egingo dute, 19:00etan, eta ostean luntxa auzotar guztiendako.

## Loli Diaz Mellado

Kolore dendaren ugazaba

## "Ile-apaindegiko produktu espezializatuak ditut, bezero mota guztiendako aproposak"

Bururako apaingarriak eta ilea txukun eta osasuntsu izateko produktuak eskaintzen ditu Iturriotz kalean zabaldu duten Kolore dendak. Aholkulari edo laguntza zerbitzua ere bai.

**X**anpuak, tindagaiak, ile-moldatzaileak, makillajea... oparoa da Kolore dendak duen produktu aniztasuna, Loli Diaz Mellado ugazabak nabarmendu duen moduan.

**Aukera zabala duzu...**

Bai, bezero mota guztiendako produktuak ditut: ohikoak eta ingurumena zaintzen dutenak. Modu horretan, jendeak aukeratu egin dezake zer duen nahiago: ile-apaindegiko produktuak, kosmetika naturala, ile zuria berehala tapatzen duen errimel moduko bat, makillaje ohikoa zein ingurumena zaintzen dutenak, etxe guztietako xanpuak; ile



Loli Diaz Mellado saltokian.

“Beti gustatu izan zaizkit edertasun kontuak eta jakintza partekatzea, eta horixe da bezeroekin egiten dudana, ezer erosi aurretik ondoen zer geratzen zaion ikus dezan”

naturala, ile-luzatzeak, kopeta-ileak, gomak...

**Maritxutarako apaingarriak ekarri dituzula ikusten dut.**

Bai, eta egiten dudana lehenengo gauza da bezeroa aholkatu eta harekin zuzenean probak egin, ezer

erosi aurretik ondoen zer geratzen zaion edo zer behar duen ikus dezan. Gauza bera egiten dut, adibidez, jaunartzeetan, ezkontzetan... Eta ez dute zertan ezer erosi. Etor daitenezela lasai denda ditugun askotariko produktuak ezagutzera.

**Erabateko zerbitzu pertsonalizatua...**

Hala dela uste dut. Beti gustatu izan zaizkit edertasun kontuak eta jakintza partekatzea; hori egiten dut. Bestalde, nahiko nuke nabarmendu umeendako lekua ere badagoela, bezeroa lasaiago ibil dadin.

# KOLORE

Ile-apaindegiko produktuak

Kosmetika naturala

Ilerako gomak, diademak, ile-luzatzeak...

Ospakizun berezietarako artikuluak ditugu (Maritxu Kajoi, ezkontzak, jaunartzeak...).

Eta gainera, bezeroak denda dauden bitartean umeek jolastokia izango dute!

Iturriotz 21 • Arrasate • Tel.: 943 04 03 09

**NAFARROAKO PIPERRAK**  
Arrasaten egosita

Eroski hipermerkatuaren parkingean gaude

609 21 00 62

MERENDERUE



**MARITXUTARAKO MENU BEREZIAK**

27 € eta 35 €  
AUTOBUSA BARNE

Lekua hartu  
irailaren 28a baino lehen

943 77 15 86



# San Pedroko Stoltz-Freres organoa babesteko elkarteak sortu dute

## Urgentziatzko konponketak behar ditu, eta dirua batzen hasi dira


MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Bergarako Stoltz-Freres Organoaren Lagunen Elkarteak sortu berri da. Aurretik zenbait hilabetez lanean ibili eta gero, uztailean eratu zen ofizialki eta eguazten iluntzean egin zuten lehen ageraldi publikoa.

Irabazi asmorik gabeko elkarteak da eta musika eta herriko ondarea maite duten esparru askotako zenbait herritarrek osatzen dute. Dena den, talde irekia da eta ateak zabalik dituzte parte hartu nahi duten guztiendako.

San Pedro parrokiako organoaren egoera kezkarriak eraginda sortu da elkarteak. "Denbora tarte motzean ez badira neurriak hartzen eta konponketak egiten, ez du atzera bueltarik izango eta herriak duen ondare artistiko berezi eta baliotsuenetako bat betiko galduko da", esan zuen aurkezpenean Aitor Olea organo-jotzaileak.

Egoera hori izanda, helburu garbia du elkarteak: San Pedroko Stoltz-Freres organoa maila guztietan babestea, sustatzea eta zabaltzea. Eta helburuok betetzeko, beharrezko diren jarduerak eramango dituzte aurrera, hala nola konponketarako behar diren laguntzak eskuratzea eta bideratzea; ezagutzera emateko beharrezko diren ekitaldiak antolatzea; arte eta musika aldetik ondare denez, daukan balioa aitortzeko eta ezagutarazteko



Musika eta herriko ondareak babestu nahi duten zenbait herritarrek abiatu dute elkarteak. | MONIKA BELASTEGI

ekitaldiak antolatzea; eta, oro har, organo horren sustapenerako eta bultzadarako beharrezkoak diren ekitaldi eta jarduerak aurrera eramatea.

### Urgentziatzko konponketa

Organoaren egoera benetan da delikatuak, eta eraberritzeko aurrekontua oso handia: 450.000 euro, hain zuzen ere. Horregatik, urgen-

tziatzko konponketetatik abiatu du elkarteak konponketa-prozesua: "Michel Jurin zaharberritzaileak egindako proiektuaren arabera, lehenengo egin beharrekoa honako hau da: organoaren desmuntatze osoa, elementu guztien garbiketa, konponketa mekanikoak, haize zirkuituaren ihesen zigilatzea eta berriz muntatzea. Eta horren aurrekontua 105.697 euro da", azaldu zuen Oleak.

Hala, kopuru hori lortzeko buru-belarri ari da lanean organoaren aldeko elkarteak. Lan handia dute aurretik, baina dagoeneko zenbait kontzertu antolatu dituzte, herriko musika taldeen laguntzarekin.

Abenduan hasi eta datorren urteko urria bitartean kontzertuak eskainiko dituzte herriko hainbat musika taldek eta bakarlarik organoaren alde. 5 euro kobratuko dira kontzertuok eta batutako organoa konpontzera bideratuko da.

Hauek dira organoaren alde emandakia egingo dutenak: Aitor Olea (abendua); Bergarako Orfeoia (martxoa); Bergarako Koru parrokiak (martxoa); Marije Ugalde (apirila); Alai Taldea (apirila); Aritzeta Abesbatza (maiatza); Bergarako Orkestra Sinfonikoa (ekaina); eta Bergarako Udal Banda (urria).

Elkarteak berak antolatuko eta bultzatuko dituen ekimen eta ekitaldiez gain, kontu korrontea –beheko taulan– ere ireki dute eta diru ekarpen guztiak ongi-otzari izango direla adierazi zuten elkartetik.

### "Ondare aparta"

Balio handiko organoa da San Pedroko Stoltz-Freres organoa, instrumentu aparta eta ondare baliotsua. Aurten 125 urte bete dira inauguratu zutela. 1889. urteko martxoaren 18an inauguratu zuten, eta ordutik gaurdaino dotoreziaz bete du bere eginkizuna.

Berezitasun ugari ditu. Gaur egun, mundu osoan jatorrizko egoeratik gertuen dagoen Stoltz-Freres etxeko organorik handiena da. Eta etxe bereko beste organo batzuk ez bezala, jatorrizko baldintzetatik gertuen mantentzen denez gero, Stoltz-Freres etxearen lekuko paregabea da. Aipatzekoa da, era berean, instrumentu mota hori ohikoa baino tonu erdi baxuago afinatuta dagoela. Eskuzko hiru teklatu ditu, 56 notakoak, eta 30 notako hankazko beste teklatu bat; guztira, 36 erregistro ditu, eta 2.242 hodi.

### KONTAKTUA

Elkarteak kontu korrontea ireki du Kutxabanken. Organoaren aldeko ekarpena egin nahi dutenek behean dute zenbakia.

**Kutxabank: ES43 2095 5070 7014 1424 1483**

Elkarteak erabat zabalik ditu ateak kide berriak hartzeko. Interesatuenek behean dagoen helbidera bidal dezakete mezua.

**bergaraorganoa@gmail.com**

## Danborradarekin hasiko dira jaiak gaur Angiozarren

Astehenera arte ekintza asko egongo dira; orduan zeruratuko dute San Migel, ohi bezala

M.B. | BERGARA

Gaurtik astehenera arte San Migel jaiak ospatuko dituzte Angiozarren. 19:00etan abiatuko dira gaur jaiak, danborradarekin, eta 19:30ean, patata-tortilla lehiaketa egongo da. 21:00etan banatuko dituzte sariak eta 22:00etan herriko gazteen arteko pilota partiduak jokatu dira. 23:00etan, berriz, kontzertua egongo da, Kriminal Remake eta Obstruccion Nasal taldeekin.

### Zapatuan kantu bazkaria

Zapatuan 12:30ean hasiko dira ekintzak, haurren jolasekin. 13:00etan triki-potea eta buruhandak egongo dira Miren Errasti eta Aitziber Otegi trikitilariekin, eta 14:30eko kantu bazkaria ere haiek alaituko dute. Patatak errioxar erara eta saiheskia egongo

dira bazkaltzeko –nagusiek 15 euro eta 12 urtera artekoek 5 euro–. 18:00etan mus txapelketa egongo da; 20:00etan ogitartekoak emango dituzte Pagomendin; 21:30etik aurrera dantzaldia egongo da DJ Jabi Soundekin eta 22:30ean argi festa egongo da.

Domekan, berriz, Arbiaska aretoaren inaugurazio ekitaldia egingo dute 12:30ean, eta 13:30ean haur jaioberriei ongiotzoria egingo diete. 17:00etan umeendako herri kirolak egongo dira eta 18:30ean, zezentxoak.

Astehenera, San Migel eguna, ekitaldi gehiago egongo dira: 11:00etan meza egongo da Bergarako erretiratuen koruarekin, 16:00etan umeendako puzgarriak izango dira eta 19:00etan, txokolate-jana. Jaiak amaitzeko, San Migel zeruratuko dute 20:00etan.

### Ikasturteko lehen batzarra egingo dute gaur gaztetxeko kideek

Kartzela zaharrea izango da, 19:00etan, eta interesa duten guztiendako zabalik dituzte ateak. Ikasturteko mapa gaurko batzarrean egituratuko bada ere, dagoeneko badira aurrera daitezkeen proiektuak: Koplabarik bertso eskola, Dynamo zinekluba eta ume eta gurasoen batzarra, esate baterako.

### Odol ateratzea egingo dute hilaren 30ean Agorrosinen

Bergarako Odol Emaleen Elkarteak ezohiko odol ateratzea egingo du hilaren 30ean Agorrosinen. Bergaran 800 odol emale badaude ere, "gutxi dira, eta, gainera, batez besteko adina 50 urte da", diote. Hala, kirolariak batzen diren gunera joko dute, "odola ematera anima daitezzen". 18:00etatik 20:30era egingo dituzte ateratzeak.



JARDUN

## Nerea Alzelairena postala onena

Nerea Alzelaik Lizarratik bidalitako postalak jaso du Jardun elkarteak hirugarrenez antolatutako udako postal lehiaketako saria. Elkarteak kideen esanetan, postal "originala" da Alzelairena, "hitz gutxitan asko esaten duena". Lehiaketa horrekin "ondo idatzitako idazkera informala" bultzatu nahi du elkarteak, eta, aurtengo irabazleak berean asmatu duenez, bederatziz hazbeteko tableta eroan du etxera.





Topaketan parte hartu zutenen talde argazkia | MIZPIRUALDE

## Nagusilaneke topaketa egin du Mizpirualde egoitzan

Bergarako eta Antzuolako boluntarioek omenaldia jaso dute egiten duten lana eskertzeko

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Topaketa egin dute Nagusilanekeko boluntario eta koordinatzaileek Mizpirualde egoitzan. Eta Bergarako eta Antzuolako boluntarioei omenaldi txiki bat egin diete, eginiko lanaren esker onez.

Joan den zapatuan, irailak 20, egin zuten Nagusilanekeko boluntarioen topaketa Mizpirualde zaharren egoitzan. Egoiliar, lan-

gile eta senideez gain, Bergarako, Antzuolako eta Elgetako herritarrak ere gonbidatu zituzten.

Festa giroan egin zuten zapatuko topaketa eta ez ziren falta izan trikiti doinuak eta dantza. Bergarako eta Antzuolako alka-teak ere izan ziren ekitaldian eta oroigarri-plakak banatu zizkieten bi herrietako boluntarioen koordinatzaileei.

## Goitik behera garbituko dute herria, bi astez, astelehenetik aurrera

TXOMIN MADINA | BERGARA

Astelehenetik aurrera, eta bi astez, Bergara goitik behera garbituko dute Udal Brigadako langileek. Herria garbi mantentzearen inguruan herritarren artean egiten dabilzan *Garbiena, zikintzen ez duena* leloa duen kontzientziazio kanpainaren barruan kokatzen da ekimen hori. Bestelako ekintzak ere egingo dituzte kanpaina horren barruan.

Besteak beste, albatariekin, ikastetxeekin, tabernariekin eta gozoki-dendetakoekin bilerak egin ostean, hainbat ekintza planteatu dituzte datozen asteotarako.

Hala, irailaren 29tik aurrera, herriaren garbiketa sakona egingo dute. Udal Brigadako langile guztiek, 40-50 lagunek, egingo dituzte garbiketa lanak, eta derri-gorrezko beste lanez gain, horixe izango da euren lehentasuna.

Globo batzuk aterako dituzte, eta tabernen kanpoaldean edukiontziak jarriko dituzte hondakinak botatzeko. Ikastetxe bakoitzak erabakiko du nola egin herria garbi mantentzearen inguruko lanaketa, eta errolatuta dauden txakur jabeek eskutitz bana bidaliko die Udalak. Hamasei panel ere jarriko dituzte.

## Agorrosingo ikastaroetan plaza libreak daude

*Kirola kalera* sustapen astearen ostean, aste honetan hasi dira Agorrosingo ikasturteko jarduerak. 1.079 herritar, hamabost jarduera eta 64 ikastaro-ordu da aurtengo eskaintza eta oraindik 150 plaza daude libre. Ekintza jendetsuenak igeriketa eskola eta areto bizi-kleta izan dira aurtengo ere. Ikastaro berrietan ere eman du izena jendeak; *crossfil* eta *hipo-pilathes* eskaintzek arrakasta izan dute. Ikastaroak aste honetan hasi dira, baina oraindik aukera dago izena eman eta plaza libreak bete eta osatzeko dauden taldeetan tokia hartzeko. Helduen igeriketan, adibidez, plaza dezente daude hartzeko. Aldagelen antolaketa proposamena ere egin zaie erabiltzaileei.

## OHARRAK

### 1957KOEN KINTADA

Aurtengo 57 urte egingo dituztenek ospakizuna egingo dute azaroaren 9an. Joan gura duenak urriaren 10a aurretik 70 euro sartu behar ditu Laboral Kutxan.

### ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

San Martin Agirre ikastetxean eskolaz kanpoko ekintzak dituzte: antzerkia (ingeleseraz), arte hezkuntza (alemanez), pintura, psikomotrizitatea eta euskal dantzak.

# Elorregi eta Osintxu arteko ibai zatia garbitzeko dei egin dute

Urriaren 18an izango da, eta urriaren 6ra arte dago zabalik izen-ematea; 500 lagun batu nahi dituzte

LARRAITZ ZEBERIO | BERGARA

Urriaren 18rako, zapatua, Deba ibaiaren ubidea Bergarako udalerrian garbitzeko auzolana antolatu dute aurtengo ere. Iaz sortu zen Erreka Garbitzen Batzordeak antolatu du aurtengo ere. Horretarako, iaz bezala, "herritarron parte hartzea garrantzitsua" dela adierazi dute.

Bostehun lagun behar dituzte. Hala, herritarrak animatu dituzte garbiketaren parte hartzera. Urriaren 18an, goizez, egingo da garbiketa, herriko hainbat gunetan. 08:30ean elkartuko dira herriko hiru leku hauetan: Labegarrietako kiroldegian, San Martin plazan eta Osintxun. Argazkia aterako dute lehenbizi, eta handik ibairantz egingo dute, lanera.

### Patineteak, gurpilak...

Elorregi eta Osintxu arteko ibai tarteak garbituko dute, eta ekimena zabalik dago ume, heldu zein edadetuendako. Iaz 350 lagunek hartu zuten parte ekimenean, eta helburua kopuru hori gaituztea da. "Iaz zabor-pilota atera genuen, eta, ikusten baduzu, pixka bat gehiago zaintzen duzu", adierazi du Erreka



Ibai bazterrean egin zuten garbiketarako deialdia, martitzenean. | J.D.

Garbitzen Batzordeko Uxue Zabaletak. "Karroak, patineteak, erruberak, ziburuak... Denetik atera genuen, eta konturatzen zara zer dagoen errekan. Gauza piloa dago eta ez da ikusten", jarraitu du Zabaletak. Batutako zaborra San Martin plazan pilatuko dute talde guztiek, herritarren bistara gera dadin. Eta, hantxe bertan, 13:30ean, "zer jan eta edan" egongo dela adierazi dute antolatzaileek.

Kontzientziazio lanari ere garrantzi handia ematen diote antolatzaileek: "Uste dut zehar-

ka kontzientziatu egiten zarela, eta umeak —eta ume ez direnak— konturatzen dira zer dagoen eta zer egin behar dugun hori ez gertatzeko. Zer edo zer bota behar baduzu errekarara, bi bider pentsatzen duzu", dio.

### Izena eman daiteke

Aseguru kontuak direla eta, ezinbestekoa da izena ematea. Horretarako, hainbat bide zehaztu dituzte; adibidez, Udaltzaingoan, kultura etxean eta Agorrosin kirolgunean daude inprimakiak izena emateko.

UDAZKENEKO ESKAINTZA BEREZIAK

5.000 eta 9.500 euro arteko DESKONTUAK!

Etorri Ford Mugarrira!

ORAIN, BERGARAN ERE BAGAUDE

MUGARRI AUTOAK

Amillaga 5, Bergara  
Araba etorbidea z/g, Arrasate





# Gaur hasita, jaiz betetako bi asteburu luze dituzte oñatiarrek

Domekan jaitsiko da Txantxikua parrokiatik txosnetara, 20:00etan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Udako oporren ostean hasten da herriko jaien atzera kontaketa. Ez da batere lan zaila izaten, iraila ekitaldiz betetako hilabetea izaten da-eta. Aurten ere halaxe izan da. San Migel bezperaren data, baina, herritarren buruan egoten da hilaren hasieratik, orduan hasten direlako jaiak bete-betean. Eta domekan da irailaren 28a. Txantxikua jaitsiko da 20:00etan, eta horrelaxe hasiko dira aurten ere San Migel eta Errosoaio jaiak.

Aurretik, baina, egongo da zer egin, ikusi eta entzun herrian. Domekan bertan, esaterako, gaztetxoei zuzendutako jolasak, bazkaria, *flashmob*-a eta musika emanaldia izango dira Errementari plazan.

## Amparo Sanchez gaur

Domekara arte itxaron barik, gaur ere, egubakoitza, badago musika entzuteko aukera. Hain zuzen ere, Amparanoia taldeko Amparo Sanchezek abestuko du, zuzenean, Foruen plazan. Orain dela bi urte kaleratu zuen *Alma de cantora* lanarekin etorriko da. Haren aurretik, baina, Euskal Herriko eta Kubako musikariak osatutako La Jodedera taldeak joko du. Emanaldia 22:00etan hasiko da.

Bestalde, txosnak ere gaur zabalduko dituzte eta txosna batzordea osatzen duten hamai-ka eragileek jaietako egun guztietarako ekintzak jasotzen dituen egitaraua prestatu dute aurtengo jaietarako. Hainbat berrikuntza izango dituen egitaraua. Hala, Egun Morea datz aldatu, eta zapatu honetan bertan egingo dute. Aurten, lehen aldiz, gainera, Aniztasun Kulturalaren Eguna ospatuko dute.

Egunero egingo dituzten ekitaldiekin batera, txosna batzordekoek jakinarazi dute jaietan egon daitezkeen eraso matxisten aurrean erantzuteko protokoloa egongo dela aurten, eta kanpotik



Domekan jaitsiko den Txantxikua. | IRATI GOITIA

## Edukiontzi gehiago hondakinendako

Herriko ostalari eta gastronomia elkarteek jaietan normalean baino hondakin behiago pilatuko dituztela kontuan izanda, hondakinak jasotzeko edukiontzi bereziak jarriko dituzte jaiak irauten duten bitartean. Hala, jaietako bi asteburuetan, 1.000 litroko edukiontziak erabili ahal izango dituzte erdiguneko taberna, jatetxe eta txosnetako langileek eta elkarte gastronomikoetako erabiltzaileek. Frakzio bakoitzeko lau edukiontzi jarriko dituzte gune hauetan: Aita Madina kalean, institutuaren ondoan; Iturritxo inguruan eta azoka plaza ondoko biribilgunean. Giltzadun edukiontziak izango dira eta horiek erabiltzeko giltzak inguruko zerbitzuetan banatuko dituzte eta edozein ordutan erabili ahal izango dituzte.

Mila litroko edukiontzi berezi horiek, baina, ohiko zerbitzuaren osagarri izango dira, jaietan ostalaritzako lokaletan eta elkarteetan sortzen diren hondakinak urtean zehar gainerako egunetan bezala jasoko baitira, ordutegi eta toki berdinetan. Edukiontzi berezi horiek, beraz, ohikoaren gaineko hondakin kopurua batzeko izango dira.

Merkatari, ostalari eta elkarteek eskaintzen zaien goizeko zerbitzua, baina, aldatu egingo da Herri Egunean eta Errosoaio Bixamona egunean. Egun horietan, Kale Zaharrea, Kale Barria, Atzeko kalean eta Foruen plazan dauden lokalek eurekin batera adostu diren inguruko beste puntu batzuetara atera beharko dituzte hondakinak, 09:00ak aurretik. Arrazoa da bi egun horietan jende asko ibiltzen dela kalean goizetik eta kamioia ezingo dela pasatu herriko erdiguneko kaleetatik.

Bestalde, etxeetako hondakinen bilketan ez da aldaketarik egongo jaietan eta egutegia eta ordutegia ohikoa izango da. Enpresetako bilketan ere ez da aldaketarik egongo.

Oñatira datorren jendearentzat gaztetxean lotarako lekua egongo dela. Sukaldearekin ateratako dirua, berriz, *Berria*-rendako izango da eta bazkarietarako txartelak Boga, Arrano eta Ona tabernetan egongo dira salgai. Herri Eguneko Antixeneko bazkaria joateko izena Ona tabernan edo gaztetxean bertan eman behar dela jakinarazi dute txosna batzordeko kideek.

## 'Iparragirre Oñatin'

Bestalde, bihar, zapatua, antzertuko dute *Iparragirre Oñatin* antzezlan Santa Anan. Bi emanaldi egingo dituzte, eta bietarako sarrerak aspaldi agortu ziren. Beraz, jaietako ekitaldi arrakastatsuenetako bat izateko bidean da herri antzerki hori. Olaiturri Kultura Elkarteak prestatu du, herriko hainbat eragilerekin batera. 27 herritar igoko dira oholta gainera.

Bestalde, jaiak direla eta, astelehenean eta martitzenean itxita egongo dira udal zerbitzuak.

## Unibertsitate etorbidea, itxita

Herriko jai nagusiek eragina izango dute herri barruko zirkulazioan, kale batzuk itxi egingo dituzte-eta motordun ibilgailuendako.

Hala, Unibertsitate etorbidea, Aker taberna paretik postetxera bitartean, itxita egongo da egun hauetan: irailaren 28an, domeka, Txantxikuaren jaitsiera hasi aurretik (20:00etan jaitsiko da), danborrada amaitu arte; astelehenean eta martitzenean, berriz, tarteka itxiko dute.

## Batzokiko pintadak salatu ditu EAJ alderdiak

O.E. | OÑATI

Eguazten goizean batzokian agertutako pintadak gaitzetsi ditu Oñatiko EAJk, eta uste du "ezker abertzalearen tolerantzia gabeziaren beste adibide bat" direla. Era berean, San Migel jaien bezperan horrelako manifestazioak egin izana deitoratu du, eta adierazi ezker abertzalea "ezer gutxi" egiten ari dela normalizazio politikoaren eta elkarbizitzaren alde. Pintaden egi-leei aurpegia emateko eta gauez pintadak ez egiteko ere eskatu die EAJk bidalitako prentsa oharrean. Udalari eskatu dio ekintzak kondentatzeko eta fatxada garbitzeko.

Halaber, EAJk adierazi du elkarbizitzaren aldeko apustua egiten jarraituko duela eta San Migel festak bakean iragotzea espero duela.

## Oñati eta Arrasate arteko bidegorria itxita dago 18:00ak arte

Arrasate eta Oñati arteko bidegorrian sastrakak kendu eta garbiketa lanak egin behar direnez, galtzadak itxi egingo dituzte, Gipuzkoako Diputazioetik adituz eman dutenez. Lanak egiten ari diren bitartean harriak eta bestelako objektuak erortzeko arriskua dagoenez, bidegorria erabat itxita egongo da gaur, egubakoitza, 18:00ak arte.

## Arropen azoka Santa Marina plazan egingo da bihar

Barrakak etorri dira herrira eta ohiko lekuan hartu dute tokia, Foruen plaza ondoko aparkaleku zaharrea. Horren ondorioz, arropen azoka Santa Marina azokan egingo dute bihar, zapatua. Baserritarren eta jakien azokan, ordea, ez da aldaketarik izango. Datorren zapatuan, baina, ez da azokarik egongo, ez bata ez bestea, Herri Eguna da-eta.

## Elkarlana Elkar Hezin

Ikas Komunitateak proiektuaren jarraipena ari dira egiten Elkar Hezin. HHko eta LHko irakasleek Europako Batasunak finantzaturako ikerketetan oinarriturik ondorioztatu diren ikaskuntza-jardueri buruzko eskolak jaso dituzte. Bitartean, guraso, batxilergoko ikasle eta ikasle ohiak izan dira umeen irakasleak. Eskerrik asko guztioi!



ISMAEL ZUBIA - ELKAR HEZI

## Eskola kirolean izena emateko azken eguna da gaur, egubakoitza

Gaur, irailak 26, bukatzen da ikasturte honetako eskola kirolean izena emateko epea. Eskaintza zabala da eta 5 eta 16 urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduta dago. Izen-emate orriak ikastetxeetan banatu zaizkie umei, eta, hain zuzen ere, horiek entregatzeko azken eguna gaur da, egubakoitza.



# Ludoketako jarduna ezagutzeko ate irekiak

Ludotekan eta Herriko Plazan egingo dituzte jolasak

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Ludotekako atek parez pare zabalduko dituzte datorren astean herriko neska-mutiko guztiendako, 17:30etik 19:00etara. Helburua da Gernika plazan dagoen ludoteka ezagutzera ematea, baita bertan egiten diren jolasak eta ekintzak ere.

## Jolasak ludotekan eta plazan

Astelehenean eta martitzenean Haur Hezkuntzako lehenengo mailakoendako zabalduko dituzte atek. Horiek heldu batek lagun eginda egon beharko dute ludotekan. Eguaztenean, urriaren lehen, oster, plazara joango dira neska-mutikoak eta begiraleak jolasean jarduteko. Eta eguen eta egubakoitzean berriro Algara ludoteka izango dute jolasleku.



Neska-mutikoak ludotekan jolasean. | M.A.

"Euskarazko zerbitzu ludiko batetik abiatuta haurren esku-bideei eta beharrei erantzuneko dien aisialdi egitasmoa gauzatzea da helburu nagusia", diote ludo-

tekako arduradunek. Eta helburu horiek "jolasa baliabide nagusitzat" hartuta landuko dituzte 3 eta 12 urte arteko herriko neska-mutikoekin.

# Piratak ere badatoz San Migel jaiak ospatzera

Txosna jarriko dute udaletxe zaharrean eta taberna, tonbola eta ezustekoak izango dira

M.A. | ARETXABALETAKO

Sanmigeletarako gertu daude aretxabaletarrak. Udaleko Kultura Saileko egitarauarekin batera, Gazte Ekimenak antolatuta-

ko ekitaldiak izango dira protagonista datozen egunotan.

Txosna jarriko du udaletxe zaharrean Gazte Ekimenak, azken urteotan legez. Aurten, baina,

piratak izango dira txosna horretako protagonista: "Irabazten dugun diru guztia Donostiako Piratendako izango da, Aste Nagusian izandako galerei aurre egiteko", azaldu dute. Gainera, jakinarazi dute Donostiatik etorritako hainbat gazte izango dituztela lagun.

Era berean, Gazte Ekimeneko kideek iragarri dute taberna, tonbola, musika dotorea eta ezustekoak izango direla udaletxe zaharreko txosnan.

# Ziburuko ikastolarendako da Arizmendiren sanmigeletako dirua

EDURNE BALTZATEGI | KOMUNITATEA

Sukaldari eta dendari lanetan ibiliko dira Almeneko ikasleak astean. Sanmigeletako azokan ikasleek eurek ekoiztutako produktuak salduko dituzte: lehen ziklokoek hostorezko laztoxoak; bigarren ziklokoek, krispetak; eta hirugarren ziklokoek, oparitako babarrunak. Azken horiek, gainera, arratsaldean Herriko Plazan Beinke-Loramendi dantza egingo dute.

Aurten salmentatik ateratako dirua Ziburuko ikastolarentzat izango da. Eta Basabeazpiko gunekoek ere postu bat jarriko dute ekimenean laguntzeko.

## Tolosako babarrunak

Salmentari dagokionez, aurten berritasun bat dago; izan ere, Tolosako babarrunak ere salduko dituzte bihar. Ikastolako ikasle ohi batzuen gurasoek Tolosako babarrun beltza erein ohi dute eta 30 edo 40 kilo ikastolari eman dizkiote azokarako.

Bestalde, DBHko ikasleek ere hartuko dute parte azokan. Alde batetik, 2. eta 3. mailakoek, jaia girotze aldera, tailerak antolatuko dituzte, hala nola aurpegi margotzea, jolasak... Eta 4. mailakoek tartak salduko dituzte ikas bidaiarako dirua ateratzeko.



Arizmendiko ikasleak sanmigeletako azokan. | ARIZMENDI IKASTOLA

# Aste bukaeran hasiko dute emakumezkoek futbol denboraldia

Erregionaleko taldeak etxean jokatuko du linteraren aurka eta kadeteak Hernanira doaz

M.A. | ARETXABALETAKO

Aste bukaeran hasiko dute denboraldia futboleko jokatzen duten emakumezkoen gorengo taldeek. Hala, Arizmendiko bi taldek dute partidua: erregionaleko taldeak etxean, Ibarra futbol zelaietan, domekan (15:30); eta ohorezko kadeteak Hernanin, domekan (11:00).

## Hiru talde norgehiagokan

Arizmendi kirol elkarteak emakumezkoen hiru talde ditu aurten, baita futbol eskola ere. Taldeak dira: lehenengo mailako infantilak, Igor Eskibel eta Juan Ramon Zubizarreta entrenatzaileekin; ohorezko kadeteak, Ikerne Urtzelaireren aginduetara; eta lehenengo mailako erregionala, Ariz Elortzak zuzenduta.

Futbol eskolako jokalarien ardurak, oster, Igor Jauregik du.

## Irabaztea baino gehiago

Erregionaleko jokalariek ondo ezagutzen dute maila, eta ia oso denboraldi polita egin zuten. Ohorezko kadeteak, oster, maila estreinatuko dute, eta partidua zailak dituzte aurrez aurre.

Kirol elkartearen koordinatzaile Urtzi Amianoren esanetan, helburua da kategoria guztietan "ahalik eta gusturen" egotea jokalaria, eta entrenamenduak eta partiduen egoera "ahalik eta duinenetan" jokatzea. Beste helburu bat ere gaineratu du: "Partidua guztiak ahalik eta gehien lehiatzea, irabaztea helburu bakarra izan gabe, baina duen garrantzia emanda".



Kadeteak ia partidua bat jokatzen. | M.A.

# Etxeko istripuen lehen sorospen ikastaroa egingo dute urriaren 2an hasita

M.A. | ARETXABALETAKO

Etxean umeekin gertatzen diren istripuen aurrean zelan jokatu eta zaurien kasuan zelan artatu jakiteko ikastaroa antolatu dute elkarlanean Pausokako eta Arizmendiko guraso elkarteek, Kurtebarriko Gurabari eta Batera elkarteek, Kuku Miku elkarteak, Udalak eta osasun etxeak. 12 urte

arteko seme-alabak dituzten gurasoendako da saioa.

Urriaren 2an, eguena, euskaraz izango da saio hori eta 9an, gazteleraz. Arkupe kultura etxean da, 18:00etatik 20:00etara. Izena aurrez eman beharra dago Arkupeko harreraren; azken eguna urriaren 1a da. 25 lagunendako lekua dago ikastaroan.

## Maskulinitatea

Bestalde, maskulinitate ikastaroa ere egingo dute urriaren 25ean hasita, hain zuzen ere. Gizonendako da ikastaro hori, eta, guztira, bost saio izango dira. Zapatu goizetan elkartuko dira, bi hilabete behin, eta maiatzaren 30ean bukatu.

Izena emateko epea urriaren 6an zabalduko dute, eta 22ra bitartean dago aukera. Arkupeko harrerara jo behar da horretarako.

# Hitzaldiak eta jai giroa Kultura Astean

Basotxoko erretiratuak Kultura Astean murgilduta ibili dira. Hitzaldiak izan dituzte; herentzien gainekoak, esaterako, jende asko elkartu zuen. Eta ospakizunak ere bai: atzo txokolata eta dantzaldia. Bihar bukatuko dute, Kantuz kalean ekimenearekin.







Bidegorrian dauden hainbat farola. | MIRARI ALTUBE

## Argiztapena hobetu eta herriko hainbat farola aldatuko dituzte

Hainbat inbertsio egitea onartu du udalbatzak martitzenean egindako ohiko osoko bilkuran

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Eskoriatzako udalbatzak hainbat kreditu aldaketa onartu zituen martitzenean egindako ohiko osoko bilkuran. Irailarekin batera diru aurreikuspenak zelan dauden aztertu du, eta, soberakina dagoela jakinik, hainbat inbertsio egingo ditu datozen hilabeteotan.

Inbertsio horietako bat izango da energia-eraginkortasuna hobetzeko; 36.000 euro pasatxo. Horrekin egingo dituzte: bidegorriko argiztapena aldatu; liburutegitik San Pedro auzoraino doazen farolak berri eta ledak jarri; baita plaza inguruko argiak aldatu ere. Horretarako, gainera, diru laguntza jaso dute Aldunditik.

"Horrez gain, beste ekimen batzuk ere jarri gura ditugu abian; euskara arloan, kirolean, turismoan...", argitu zuen Beñat Herce alkateak. Manuel Muñoz kiroldegiko obretan lan gehigarriak egin behar izan dira, eta 42.500 euro bideratu dituzte horretara. Guztira, 130.300 euro inguruko inbertsioak onartu zituzten.

Bestetik, gaztelekuaren arduratza Txatxilipurdiri eman zioten. Lehiaketara aurkeztutako enpresa bakarra izan zen eta orain arte ere hark kudeatu du.

### Zinegotzi falta

Elizateetako zinegotzi izan den Iñaki Madinabeitiaren ordezkoa izendatzeko oraindik ez dagoela hautagairik jakinarazi zuten. Kargua utzi zuen hark eta zerrendako hurrengo hautagaiak bete behar du haren lekua. Zerrendako bostek, baina, uko egin diote, eta orain, hurrengo erabakia- ren zain dago udal idazkaria.

### Bi mozio onartuta

Mozio bi ere onartu zituzten. Bata Ezker Anitzak aurkeztu zuen, alkateak demokratikoki aukeratzearren gainekoa. Alkateak eta zinegotziak aukeratzeko prozesuan PPK egin gura dituen erreformen guztiz aurka azaldu zen, eta udalbatzako gainerako kideek babestu egin zuten.

Bigarren mozia, Kutzaren gainekoa, Bilduk aurkeztu zuen. "Oso larria da Kutzabanekin gertatzen dabilena. Gipuzkoako Aldundiak proposamena egin du Kutzaren akzioak Gipuzkoako administrazioetan gera daitezen, udaletan edo Aldundiarengan, esaterako, eta horrela kontrol soziala eta publikoa mantendu", azaldu zuen alkateak. Elizateetako zinegotziak eta Ezker Anitzakoak babesa eman zioten eta EAJkoa aurka azaldu zen.

## Jolasez beteko dira kaleak gaur 'Plazara, jolastera!' ekimenarekin

M.A. | ESKORIATZA

**Plazara, jolastera! Kalea gure jolasleku** leloarekin neska-mutikoen jolasgune bihurtuko dira plaza eta inguruko kaleak gaur. Jolas mordoa egiteko aukera izango dute umeek eta gazte- txoek, 17:30ean hasi eta 19:30era bitartean.

### Bukatzeko txokolatea

"Berriro ere plaza eta inguruak jolasleku gisa berreskuratzeko aukera dugu eta hori sustatze aldera umeendako jolasak antolatu ditugu Udalak, guraso elkarteak eta Txirikila aisialdi taldeak elkarlanean", jakinarazi du Maider Etxanizek, Gazte- ria teknikariak.

Fernando Eskoriatza plazan hainbat jolas egingo dituzte: hula-hoopa; diaboloa; eskuzko jolasak; egurrezko dorrea eta paraxuta (parakaidasa). Kontzejupean pilota txapelketak izango dira; eta Gernika plazan, twisterra eta *slack line* (soka gaineko oreka jolasa).

Arana kalean sokasaltoan jardungo dute; eta Santa Marinaran, pote-poteka. Santa Marinek aldapan, ostera, egurrezko eskiekin ibiliko dira eta errepelean, lokotx jolasean.

Bukatzeko, jolasetan jardundako neska-mutiko guztiei txokolatea banatuko diete, 19:00etan. Edalontzia norberak eroatea gomendatu dute.

## Udako argazkiak bozka daitezke Ibarraundin, astelehenean hasita

M.A. | ESKORIATZA

Bukatu da Udalak deitutako udako argazkien lehiaketara aurkezteko epea. 23 argazki jaso dituzte, eta horiek guztiak ikusgai jarriko dituzte. Ikusi bakarririk ez, gustukoenei botoa emateko aukera ere badute herri- tarrek. Astelehenean zabalduko dute erakusketa Ibarraundi museon, eta egubakoitza arte egongo da (urriak 3); hona ordu- tegia: 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

### Sari banaketa urriaren 8an

Hiru kategoriatan banatu dituzte argazkiak, adinaren arabera

-15 urtera artekoenak; 16 eta 49 urte artekoenak; eta 50 urte- tik gorako enak-, eta kategoria bakoitzak sari bat izango du. Hala, hiru boto emango dituzte herriarrek. Museora joaterik ez dutenek Udalaren atarian (*Eskoriatza.net*) ere botoa deza- kete, baita Facebook bidez ere. Eta Garapen batzordeko kideek ere bozkatuko dute.

Bada, boto horiek guztiak zenbatu ostean hautatuko dituzte irabazleak, eta sariak urriaren 8an, eguaztena, bana- tu. Kategoria bakoitzeko irabaz- leak 50 axtrokiko bonua jasoko du.

### ESKORIATZAN

## LURSAILA EROSIKO NUKE

(NAHIAGO HERRITIK GERTU)

618 76 34 40

### Txotxongilo tailerra egingo du bihar Larrantz Iparragirrek

Txotxongilo antzerki tailerra egingo du bihar Iparragirre eskoriatzarrak -hasiera mai- lakoa-, La Charada Teatro taldeko kideak. Hain zuzen, animazio teknikak eta mugimenduaren gaineko sekretuak irakatsiko dizkie elkartutakoei kultura etxean, 09:00etatik 14:00etara bitartean.

### Euskaraz berba egiterakoan eroso sentitzeko tailerra

TELP edo euskaraz berba egiterakoan eroso sentitzeko tailerra egingo dute urrian, 11n eta 18an (09:00-14:00). EMUNek gidatuko du eta guztira hamar ordu izango dira; prezioa, hamar euro (ikasle eta langa- beek, debalde). Izena emateko kultura etxera jo behar da; azken eguna urriaren 7a da.

### Oraindik zabalik dago Tximeleten Museora joateko izen-ematea

Hondarribira eta Irunera anto- latu du irteera Amuskak urria- ren 11rako; Tximeleten Museo- ra, besteak beste. Izena ema- teko azken eguna urriaren 1a da, eta dirua sartu behar da Laboral Kutxako kontu hone- tan: 3035 0044 85 1441021091. Prezioa: bazkideek, 12 euro; eta gainerakoek, 15 euro.

### Euskalkiaren gaineko ikastaroan izena emateko epea zabalik

Urriaren 10ean hasi eta aben- duaren 12ra bitartean euskal- kiaren gaineko ikastaroa egingo dute, egubakoitzetan (18:30-20:30), Leintz udal eus- kaltegian. Izena emateko epea zabalik dago urriaren 3a bitar- tean. Hona bideak: *euskara@ eskoriatza.net* edo 943 71 46 88. Prezioa, 5 euro.

**LENIZ**  
ESKORIATZA



### KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika



# SANMIGELAK 2014

OÑATI  
JAIETAN!

- ▶ 400 lagunetik gora danborradan
- ▶ Oñatiko lau konpositoreren piezak
- ▶ Egun Morea, parekidetasunarengatik
- ▶ Herri Eguna... berritasunekin
- ▶ Musika eskaintza bazter guztietan
- ▶ 'Zuk ekarri, zuk jan', familiendako
- ▶ 'Flashmob'-a
- + JAIETAKO EGITARAU OSOA



Bi neskatila, baserritar jantzita, taloak egiten ikasten.

GOIENA



BAINUGELAK  
ETA MANPARAK

## ONDO PASAU SANMIGELAK!



**gelatru** s.l.

Zubillaga auzoa 1 - OÑATI

Tel.: 943 71 63 22 - Faxa: 943 78 15 51



SANMIGELAK 2014 | OÑATI



*Oñatiko Udalak  
jai zoriontsuak  
opa dizkizue*





## AGURRA

MIKEL BIAIN  
Oñatiko alkatea

Gora San Migel eta Errosarixoak!

Oñatiarrok, aillegau dira berriro be San Migel eta Errosarixoko Jaixak egitarau paregabe batekin! Urtian zihar danok, bakoitza bere motxillan, pillaaketan fan garien kezka, neke eta tristurak badakoi bere pisua, eta zer aitzakixa hobarik herriko jaixak baiño motxilla hori hustu edo arinketako behintzat. Eguneroko bizitzak, eta bizi garien gizartiak jarten doskun muga estu danen gaiñetik, jaixak dibertsiorako ez eze, gune paregabia dira dantzaz, kolorez, eta irribarrez, bakoitzak bere eskaeria egiñaz, gizarte justuago bat zelakua izan leikien bistaraketako be.

Eskerrik beruenak gure herriko jaixen antolakuntzan lanian gogor jardun zarain danori. Bejondaizuela!

Lerro honein bittartez gaiñera, arrazoi ezberdiñak tarteko, herriko jaixak gure artian pasaitterik izango eztaueiñak be gogora ekarri gura nittuke, besarkada bero bana bialdu eta egun berezi honeittan gure goguan izango dirala adierazi.

# JAIETAKO EGITARAUA

## EGUBAKOITZA

26

**17:00** Oñatiko PILOTA TXAPELKETA (finalerdiak). Frontoi zaharrean.

**19:00** TXOSNEN irekiera.

**20:00** ELKARRETARATZEA plazan, "Euskal preso politiko eta iheslarien eskubideen alde".

**22:00** AMPARO SANCHEZ eta LA JOEDERA taldeen kontzertua, plazan.

## ZAPATUA

27

## EGUN MOREA

**12:00** MURALA pintatzea.

**12:00** Bazkal aurreko TXIKITEOA, Txosnaguneak antolatuta.

**14:30** BAZKARIA, Txosnagunean.

**17:00** OLINPIADA MOREAK, Txosnagunean.

**19:00** POTEOA, batukadak lagunduta.

**19:30** 'IPARRAGIRRE OÑATIN' ikuskizuna, Olaiturri kultur taldeak antzertua, Santa Anan.

**22:00** EUSKABARET taldearen kontzertua, Txosnagunean.

**Ondoren** ERASO SEXISTEN AURKAKO KAZEROLADA, Txosnagunetik abiatuta.

**Jarraian** HAN eta FURIA taldeen kontzertua, Txosnagunean.

**22:30** 'IPARRAGIRRE OÑATIN' ikuskizuna, Olaiturri Kultur taldeak antzertua, Santa Anan.

## DOMEKA

28

## SAN MIGEL AOZARAZA EGUNA

**09:30** 'OÑATI BEGI BISTAN' ARGAZKI ERAKUSKETA, plazako arkupeetan urriaren 6ra arte. Jaien amaieran lan guztiak zozketatuko dira.

**11:00** 12 urtetik gorakoendako JOLASAK (tirolina, ohe elastikoak...), Errementari plazan.

**14:30** 12 urtetik gorako GAZTETXOENDAKO BAZKARIA, Errementari plazan. Ez da alcoholdun edaririk banatuko. >



Amparo Sanchez eta La Jodedera taldeen kontzertua izango da, gaur, barikua, plazan. | GOIENA

Ondo pasatu San Migel jaiak!



Zure bataio, jaunartze edota ezkontza ospakizunendako aproposa

leku eta egun ahaztezinak



Etxe  
Aundi

Jatetxea-Hotela\*\*

Torre Auzo 9. OÑATI (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 19 56

www.etxeaundi.com



**15:30** ARGAZKIAK atera (photocall-a), Errementari plazan.

**16:00** FLASHMOBa Errementari plazan, gaztetxoek prestatutako abestiarekin. Haiek egindako koreografia dantzatu eta grabatuko dute.

**17:00** GAZTE MUSIKA emanaldia, Errementari plazan.

**17:00** ARKU TIROKETA erakustaldia, San Martinen.

**18:00** Erraldoi eta buruhandien KONPARTSAK kaleetan.

**19:00** TRIKITXARANGA kaleetan, txosnaguneak antolatuta.

**20:00** TXANTXIKUREN JAITSIERA, jaietxerak emateko.

**20:05** PINTXO-JATEA, txosnagunean.

**20:15** DISKO FESTA, plazan.

**23:00** DANBORRADA NAGUSIA herriko kaleetan zehar. Amaiera plazan izango da.

**00:00** MANIFESTAZIOA plazatik abiatuta, *Euskal preso politiko eta iheslarien eskubideak errespetatu* lelopean.

**Ondoren** DISKO FESTA, plazan.

**01:00** TESTINGa txosnagunean, Ailaket elkartearekin.

**02:00** KARAOKEA, txosnagunean.

## ASTELEHENA

# 29

### SAN MIGEL EGUNA ETA TXOSNAGUNEAN ANIZTASUN KULTURALAREN EGUNA

**08:00** ARGAZKI ERRALDOIA gaupasero eta mendizaleekin, txosnagunean.

**08:05** TXOKOLATE-JANA, txosnagunean.

**09:00** Txistulari bandaren GOIZ-ERESIA.

**11:00** Herri mailako PLATER TIROKETA, Txopekua tiro-zelaietan (armak edukitzeko baimena eta Federazioaren lizentzia eskatuko da).

**12:00** MEZA NAGUSIA San Migel parrokian, koruak abestuta.

**12:00** Oñatiko MUSIKA BANDAREN KALEJIRA.

**12:00** HAUR PARKEA, Etxaluzen. Eguraldi txarra egingo balu, Zubikoa kiroldegian.

**13:00** Oñatiko Udal Musika BANDAREN KONTZERTUA, Lazarraga jauregiko lorategian. Eguraldi txarra eginez gero, udaletxeko arkupeetan. Iñaxio Ibarondo. Egitaraua:

▶ *A San Miguel*. Martxa. Recife (Arreglo Antonino Ibarondo)

▶ *Oñati*. Oñatiko herriari eskainitako Zortzikoa. Antonino Ibarondo Oleaga.

▶ *Paso a paso*. Martxa. Antonino Ibarondo Oleaga.

▶ *Arantza artean*. Obertura. Antonino Ibarondo Oleaga.

▶ *Euskeria*. Euskal rapsodia. Mariano San Miguel Urcelay.

**Ondoren** PIEZA LABURRAK gogoratzeko:

▶ *Ume haundia*. Arin-arina.

▶ *Nik ez dakit*. Arin-arina.

▶ *Bere aldian*. Fandangoa.

▶ *Aloña Mendi*. Himnoa. Antonino Ibarondo Oleaga.



Danborrada nagusia domekan, 23:00etan. | IMANOL SORIANO

**17:00** Karibeko EDARIEN DASTAKETA, txosnagunean.

**17:00** HAURRENDAKO JOLASAK, txosnagunean.

**17:00** HAUR PARKEA, Etxaluzen. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian.

**18:00** GURE MUSIKARI HANDIAK: OREKA TX taldearen ikuskizun ibiltaria.

**18:30** KARIBEKO FOLKLOREA, txosnagunean.

**19:00** ORLIS PINEDA Y SU GRUPO CAYAMBA taldea, txosnagunean.

**Ondoren** AFARI MERIENDA karibetarra, txosnagunean.

**19:30** LA PULGA taldearen kontzertua, Atzeko kalean.

**22:30** MIKEL URDANGARINen kontzertua, plazan.



Mikel Urdangarin plazan izango da astelehenean, 23:00etan. | IMANOL SORIANO

## MARTITZENA

# 30

### TXANTXIKI EGUNA

**11:00** Haur, gaztetxo eta gurasoentzat EKITALDI BEREZIAK (ludoteka, tailerrak, lehiaketak...) plazan.

**12:00** ATSOLOERRA: urtean zehar jaiotako HAURREI ONGIETORRIA, udaletxeko batzar areto nagusian.

**13:00** JOTAK, ACORDES NAVARROS taldearekin, Lazarraga jauregiko lorategian.

**14:00** ZUK EKARRI, ZUK JAN! FAMILIEN BAZKARIA. Eguraldi txarra egiten badu, gaztelekuan. Udalak sagardo-kupela ipiniko du.

**14:00** ELKARTASUN BAZKARIA txosnagunean. Euskal preso politiko eta iheslariei elkartasuna adierazteko.

**17:00** KIDAM MAGOA. haurren ikuskizuna, Errementari plazan. Eguraldi txarra egiten badu, gaztelekuan.

### ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:

#### BALORAZIO PACKA:

Autoaren lehen hiru urteetan, berriaren % 100eko balioa mantenduko da lapurreta, kalte eta sute kasuetan, baita laugarren urtetik aurrera baloraziorako portzentaje bereziak ere

#### BABES PACKA:

Gidabaimena galduz gero, derrigorrezko ikastaroaren diru-itzulketak 500 euro izango da, gehienez.

#### ASISTENTZIA PACKA

Istripua edo lapurreta izanez gero, ordezkotako autoa 14 egunean erabiliko da, gehienez ere.

#### FLEXIFRANKIZIA

Sistema berri horrekin, frankizia urtean %10 murriztuko da automatikoki, ezbeharrak izaten ez bada.

#### GAINERA...

Zure seguruarekin familia osoarendako zerbitzu ugari izango dituzu.



# ZURICH

M<sup>a</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Motxon kalea 5 behea  
20560 OÑATI  
Tel.: 943 78 30 09  
Faxa: 943 78 31 36  
Polts.: 620 77 66 20



**17:00** KIDAM MAGOA. Haurrendako ikuskizuna, Errementari plazan. Eguraldi txarra egiten badu, gaztelekuan.

**17:00** Oñatiko PILOTA TXAPELKETAKO finala. Frontoi zaharrean.

**19:00** SOKAMUTURRA. Plazan, Kale Barrian eta Atzeko kalean. ARNO ganadutegiko zezenak.

**00:00** FLOR DE MEXICO mariatxiekien kontzertua, plazan.

## EGUENA

## 02

**19:00** *Como hacer un programa de televisión sobre ciencia y no saltar por la ventana el primer día* HITZALDIA, kultura etxeko zinema aretoan. Jose A. Perezen eskutik, Ilatargi taldeak antolatuta.

## EGUBAKOITZA

## 03

**20:00** *Euskal preso politiko eta iheslarien eskubideen alde*, elkarretaratzea plazan.

**21:00** KARRIKALDIXA txosnagunean: Banda Municipalari Tributua, Kalamidaz, Barniz Por La Nariz, Basorantz.

**22:30** BERTSO JAIALDIA Zubikoa kiroldegian. Bertsolariak: Amets Arzallus, Unai Agirre, Maider Arregi, Unai Iturriaga, Urko Egaña eta Alaia Martin. Gai-jartzailea: Oñatiko Bertso Eskola.

## ZAPATUA

## 04

## HERRI EGUNA

**09:00** Txistulari bandaren GOIZ-ERESIA.

**10:30** Unibertsitate inguruan: herri mailako behi erakusketa; herri mailako ardi, ahari eta bildots lehiaketa; asto erakusketa; behor eta zaldi erakusketa; euskal txerri eta oilo erakusketa; gazta lehiaketa; herri mailako fruitu eta barazki lehiaketa; lore eta landare erakusketa; artisau erakusketa.

**11:00** KALEJIRA, Oñatiko Jose de Azpiazu musika eskolako trikiti-pandero eta soinu-joleen taldea, txistulariak eta Tolosako gaitariak ibiliko dira herriko kaleetan.

**12:00** SAGARDO-DASTAKETA, plazan. Sagardotegi hauekin:

► Abaltzisketa: Zalbide.

► Aduna: Aburuza eta Zabala.

► Asteasu: Sarasola.

► Astigarraga: Astarbe, Bereziartua, Etxeberria, Larrarte, Lizeaga eta Petrategi.

► Ataun: Urbitarte.

► Azpeitia: Añota.

► Donostia: Barkaiztegi.

► Hernani: Otsua-Enea, Altzueta, Akarregi, Larre-Gain eta Itxas buru.

► Ikaztegieta: Begiristain.

► Legorreta: Aulia.

► Tolosa: Isastegi.

► Urnieta: Elutxeta.

► Usurbil: Saizar.

► Zerain: Oiarde.

**13:15** Lehiaketetako SARI-BANAKETA.

**14:00** Antixeneko gaztetxean BAZKARIA, txosnaguneak antolatuta.

**14:30** HERRI BAZKARIA, Zubikoa kiroldegian.

**17:00** Herriko GAZTETXOEN HERRI KIROLAK, plazan.

**18:00** TXINPARTA TALDEAREKIN ERROMERIA, Atzeko kalean.

**18:00** Profesionalen HERRI KIROLAK JAIALDIA, plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian.

**Ondoren** ERDIZKA LAURETAN euskal dantza-saioa, plazan.

**19:00** Ekitaldia: *Euskal preso politiko eta iheslarien eskubideen alde*.

**19:30** Parrokian F. ESNALEN SALBEA, parrokiako koruak eta Oñati abesbatzak abestuta.

**22:00** GOZATEGI eta EZTEN GIRO taldeen kontzertua, txosnagunean.

## DOMEKA

## 05

## ERROSAIXO EGUNA

**09:00** Txistularien GOIZ-ERESIA.

**12:00** Parrokian MEZA NAGUSIA, parrokiako koruak abestuta.

**12:00** Oñatiko MUSIKA BANDAREN KALEJIRA.

**12:00** HAUR PARKEA, Etxaluzen. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian.

**13:00** Oñatiko Musika BANDAREN KONTZERTUA, plazan. Zuzendaria: Iñaxio Ibarondo. Egitaraua:

► *Horizontes de Gloria*. Martxa. Antonino Ibarondo Oleaga.

► *Ibar Aldian*. Obertura. Antonino Ibarondo Oleaga

► *Sonrisas y lágrimas*. Filmaren soinu-banda. R.C. Rodgers

► *A la Real Sociedad de San Sebastián*. Martxa. Antonino Ibarondo Oleaga

► *Atzeko kale*. Euskal martxa. Antonino Ibarondo Oleaga

**14:30** IBILGAILU KLASIKOEN KARABANA, herriko kaleetan.

**14:00** IBILGAILU KLASIKOEN ERAKUSKETA, txosnagunean.

**17:00** HAUR PARKEA, Etxaluzen. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian.

**18:00** PATATA TORTILLA TXAPELKETA, txosnagunean.

**18:00** TXAPA TAILERRA, txosnagunean.

**18:00** Txosna batzordeko eragileen AZOKA.

**19:00** THE SURFIN BURRITOS taldearen KONTZERTUA, Atzeko kalean.

**20:00** DANTZALDIA plazan, LA TARANTELLA ORKESTRAREKIN.

**20:30** BALKOITIK BALKOIRAKO bertso-saioa JEXUX MARI IRAZU eta IKER ZUBELDIA bertsolariekin, Kale Zaharrean.

**22:00** BIDEO EMANALDIA txosnagunean: *Festa dezagun gaurdanik geroa*.

**22:45** Musika, PIROTEKNIA eta argi-ikuskizuna, plazan.

**Ondoren** DANTZALDIA plazan, LA TARANTELLA ORKESTRAREKIN.

## ASTELEHENA

## 06

## ERROSAIXO BIXAMONA

**09:30** SOKAMUTURRA plazan. ARNO ganadutegiko zezenak.

**12:00** Oñatiko Musika Bandaren KALEJIRA.

**14:30** PAELLA-JATEA txosnagunean.

**17:30** SOKAMUTURRA. Plazan, Kale Barrian eta Atzeko kalean. ARNO ganadutegiko zezenak.

**18:00** PSYCHO-CLOWN bertso-taldearen KALEJIRA IBILTARIA.


**18:00** DI-BERTSIOAK txosnagunean, herriko musikarien eskutik.

**20:00** DANTZALDIA plazan, LISKER taldearekin.

**20:00** DANTZALDIA plazan, wLISKER taldearekin.



Jaiet amaiera emateko, Errosaixo Bixamon egunean, Oñati mozarroz beteko da. | GOIENA



# MEKALKI

S. Coop.

## MEKANIZATUETARAKO ZERBITZU OSOA

*Ondo ibili  
San Migeletan !!*

Zubillaga industrialdea 13  
Tel.: 943 78 19 11  
Faxa: 943 78 29 90  
e.maila: [mekalki@mekalki.es](mailto:mekalki@mekalki.es)  
<http://www.mekalki.es>  
OÑATI





Antonino Ibarondo.



Iñaxio Ibarondo.



Felix Kortabarria.



Mariano San Migel.



Herritar asko joan ziren joan den urteko San Migel

# Oñatiko lau konpositoreren piezak, bandaren eskutik

Ibarondo aita-emeen, Kortabarriaren eta San Migelen lanak jaietan

**OIHANA ELORTZA / IRATI GOITIA | OÑATI**  
Aurtengo San Migel eta Errosai-xo jaietako musika eskaintzan daude, noski, Oñatiko Udal Musika Bandaren kontzertuak ere. Hiru prestatu dituzte. Kontzertuez gain, baina, ekitaldi baten baino gehiagotan parte hartuko du, esaterako, nagusien danborradan, haurren egin zuen moduan.

Kontzertuetarako egitarau bereziak prestatu ditu. Oñatiko musika konpositoreen lanak eskainiko dituzte. Antonino Ibarondoren, Iñaxio Ibarondoren, Felix Kortabarriaren eta Mariano San Migelen obrak, hain zuzen ere.

Egungo Udal Musika Bandaren zuzendari Iñaxio Ibarondok prestatu ditu egitarauak. "Laurak gara oñatiarrak, eta jaietan egingo ditugun kontzertu guztietan entzungo dira gutariko baten edo gehiagoren piezak", adierazi du Ibarondok.

## Lehenengo dantzaldiak

Hala, kontzertuetan denetarikoz piezak entzungo direla aurreratu du Ibarondok. "Adibidez, gure aita zenak, Antonino Ibarondok, pieza asko egin zituen. Horietako batzuk gogorak dira, serioak, eta beste batzuk, aldiz, alaiagoak.

Lehen, domeka iluntzero jotzen zuen bandak. Jendeak dantza egiteko moduko piezak jotzen zituen, alaiak. Horietako asko gure aitak konposatutakoak ziren eta horietatik berreskuratuko ditugu jaietako kontzertuetan ere. Gura dut herritarrei orduko garaiak akordaraziko dizkieten pieza batzuk jotzea", dio Iñaxio Ibarondok.

Iñaxio Ibarondok berak egingandako *Bakarmin* pieza ere sartu dute egitarauan; joan den domekako kontzertuan jo zuten. "Lan hori berezia da. Palacin familiar eskaintakoa da. 1958. urtean

euren etxean egon nintzen, Extremadurako Moraleja herrian, eta pieza honekin eman gura diet eskerrak egonaldi harengatik. Gogoan dut zezenak ikusten egon ginela, eta hori ere jaso gura izan dut lan horretan", azaldu du Udal Musika Bandako zuzendariak.

## Zeledon

Ibarondo aita-emeen obrez gain, Felix Kortabarriarenak eta Mariano San Migelenak ere joko ditu bandak. "Gure aitaren ikasle kutuna izan zen Felix. Banketxe-zuzendaria izan zen Durangon eta Azpeitian, adibidez. Baina

musika oso gustukoa zuen. Haren lanen artean *Artzaintza aukeratu dut*", azaldu du Ibarondok.

Mariano San Miguel Mendiko kalean jaio zen, 1879. urtean, eta 60 urte inguru zituela hil zen. Gasteizen dago lurperatuta. Musi-

## Pieza serioak eta alaiak joko ditu Oñatiko Udal Musika Bandak

# LIZARRALDE

## KIROLAK

**ARRASATE**  
Foruen Enparantza • San Andres auzoa  
Tel.: 943 79 91 47

**OÑATI**  
Olakua 16  
Tel.: 943 78 29 86

**LEGAZPI**  
Patrizio Etxebarria 2  
Tel.: 943 08 28 46

# egalarur

Bidebarrieta 17 behea  
Tel.: 943 78 07 15 • Faxa 943 78 08 62  
20560 OÑATI  
[www.egalarur.net](http://www.egalarur.net)

## Ondo pasa jaixak!

- > Eraikuntza lanak
- > Industrinabeen eraikuntza
- > Obra Zibila - Urbanizazioak
- > Industriegune eta etxebizitzaren promozioa
- > Etxebizitzaren eraikuntza





egunean bandak Lazarragan eman zuen kontzertua entzutera. | GOIENA

kari profesionala izan zen hura. "Maila handiko musikaria", Ibarrendoren esanetan. "Klarinete jotzailea zen San Miguel eta Alabarderos bandako kide izan zen, erregearen bandan jotzen zuen taktiko bat, alegia. Onenak bakarrik

sartzen ziren banda hartan, eta horietako bat oñatiarra zen", azaldu du Ibarrendok.

Musika konpositorea eta beste batzuen piezen konpontzailea ere bazen. "Hark egindako piezen artean ezagunena, agian, Gasteiz-

ko jaietako ereserkia da, *Zeledon* kantua, alegia. Musika hori harena da", dio Ibarrendok.

San Migel (Lazarraga parkean) eta Errosaixo egunetan (Foruen plazan) joko du Udal Musika Bandak. 13:00etan dira biak.

IÑAXIO IBARRONDO | BANDAKO ZUZENDARIA

## "Entzule propioak ditu Oñatiko Udal Bandak"

Umetatik izan du lotura musikarekin Iñaxio Ibarrendok. 6 urte zituela hasi zen musika ikasten, eta horretan jarraitzen du. 72 urte ditu egun. Oñatiko Musika Bandako zuzendari da 1979a ezker. **Sakrifizio handia da bandako kide izatea?**

Bai. Eta kide izatea gura duten guztiei esaten diet horixe. Hasieratik, gainera. Ordu asko eskatzen ditu. Abuztuan izan ezik, gainerako hilabete guztietan astean bi egunez egiten ditugu entseguak. Jaiak, Gabonak edo data bereziak heltzen direnean, berriz, astean hiruzpalau aldiz. Hilean behin, gutxienez, dugu kontzertua Oñatin, eta domeka goiz horietan ere entseatzen dugu. Gainera, kontzertuak eman ez ezik, bestelako ekitaldi askotan ere parte hartzen du bandak.

**Esfortzu hori eskertzen dute oñatiarrek?**

Egia da beste herri batzuetan sustraituago dagoela bandarekiko zaletasuna, baina Santa Anan egiten ditugun kontzertuetan, esaterako, entzule



GOIENA

propioak izaten ditugu. Foruen plazan jotzen dugunean, aldiz, aldatu egiten da entzuleria, kalean gora eta behera dabilzanak ere hurbiltzen dira-eta.

**San Migel egunean Lazarraga parkean joko duzue aurten ere.**

Bai. Toki polita da jotzeko eta jendea joaten da entzutera, nahiz eta soinua beti den hobea toki itxi batean.

**Osasuntsu dago**

**banda?**

Gazteak badatoz, bai, baina bestelako eskaintza asko dituzte egun, eta zaila da.

**"Esfortzu handia eskatzen du bandako kide izateak"**



ilusiorako hamaika arrazoi



# Orain arteko eredu jarraituko du nagusien danborradak

400 lagunetik gora irtengo dira etzi nagusien danborradan

MIREN ARREGI | OÑATI

Beti bezala, gaueko hamaiketan irtengo da Bidaurretatik, etzi, San Migel bezperan, nagusien danborrada; zaldunak, gastadoreak, danbor jotzaileak, barrileroak, sukaldariak, dantzariak, banderadunak, Musika Banda... Azken bi urteotako eredu jarraituz zeharkatuko ditu danborradak herriko kaleak: "Aurtengoa ere danborrada zabal, koloretsu eta anitza izango da", dio Iñaki Igartua antolatzaileak.

Betiko konpainiei -danborra jotzen ez duten sukaldariak ez dira irtengo- beste bat batuko zaie aurtengoa: Acesma elkartekoa. Hain justu ere, konpainia hori da aurtengo beritasuna: "Deialdia egin dugu Oñatin bizi diren etorkinen artean eta 30 bat lagun animatu dira", dio Ibis Rodriguezek, Acesma elkartearen kidea. Hiru taldean banatuko dira: lehenengo taldean irtengo dira hamar bat neska-mutiko baserritar jantziarekin eta euren gurasoek lagunduta. Beste hamar laguneko talde bat irtengo da, nor bere jatorrizko herrialdeko jantzi eta banderekin, eta beste horrenbeste irtengo dira txosna batzordeko konpainian.

## 400dik gora danborradan

400 lagunetik gora irtengo dira aurtengo danborradan, zaldun, gastadore, barrilero, danbor



Danborra jotzen, pilotalekuan egin diren entseguetako baten. | MIREN ARREGI

jotzaile, sukaldari, dantzari, banderadun, bandako kide eta danborrada koordinatzeko arduraz izango dutenen artean.

## Betiko ibilbidea

Bidaurretan hasiko dira danborrak astintzen gaueko hamaiketan eta Euskadi etorbidean barrena Kale Zaharrera iritsiko dira; Aita Madinatik plaza egingo dute eta handik Atzeko kalean gora Kale Goieneraino. Kale Barrian behera sartuko da danborrada plazan gauerdia aldera.

## Musikaren ardura, bi talderena

Musika Bandak eta Trikitixaranga izango dute musikaren ardura eta elkarrekin Oñatiko danborradan dagoeneko ezagunak diren Antonino Ibarrondoren hainbat abesti joko dituzte: *De Udana a Zubillaga*, *Despierta juventud*, *Mirentxu*, *San Miguel*... Horiez gain, Inaxio Ibarrondoren *Larraingain* eta Sarriegiren *Diana* eta *Retreta*.


Gainera, txosnagunetik pasatzerakoan, txosna batzordeko konpainiak *Kalera kalera* abestia joko du; ez han bakarrik, plazan ere joko baitute hori.

Modu horretan emango zaie hasiera, beste behin, Oñatiko San Migel eta Errosaixo jaiei.

## ESANAK

"Aurtengoa ere danborrada zabal, koloretsu eta anitza izango da"

IÑAKI IGARTUA | ANTOLATZAILEA



**LIZKER**

Tel.: 943 71 80 52

AHOLKULARIAK

Aholkularitza fiskala

• Lan aholkularitza

• Kontabilitatea

• Zerga aitorpena

*Ondo pasatu sanmigeletan!*

Errementari plaza 2-3 behea  
OÑATI



RPS:174/13

▲ M<sup>a</sup> Angeles Mendizabal  
● AHO SENDAGILEA  
H Ondo pasa jaixak!

- Implantologia konbentzionala
- Gidatutako implantologia (punturik gabe)
- Odontologia estetikoa
- Periododontzia
- Eskanerra

Arantzazuko Ama 2C-behea

20560 Oñati

Tel.: 943 71 60 71

mendikorta@outlook.com





Iazko Egun Morearen barruan egindako batukadaren une bat. | JON LOPEZ

## Tabernetan eta txosnagunean, protokoloak

Eraso matxistak identifikatu eta horiekin zer egin azaltzeko protokolo bat eta pegatinak banatu zituen iaz Udalak herriko tabernetan, eta aurten ere banatuko ditu, hala eskatzen dutenen artean.

Txosnagunean, txosna batzordeko eragileek protokolo bat landu zuten iaz, eta aurten ere erabiliko dute. "Protokoloa tresna bat da", diote egileek, "eraso sexistei buruz hausnartu eta identifikatzen ikasteko, erasook ikusarazteko eta txosnagunean gerta daitezkeen erasoak saihestu eta erantzuteko".

# Parekidetasunari, bai; eraso matxistei, ez

Udalak 'Ezetz da ezetz' kanpaina jarri du martxan; bihar, askotariko ekintzekin bosgarren Egun Morea egingo dute

TXOMIN MADINA | OÑATI

"Herritarrei baliabideak eman gura dizkiegu, horrelako egoerak identifikatu, izan beharreko jarreal landu eta gure burua babes-teko gomendioak emanez", dio Maialen Urtzelaik, Berdintasun

zinegotziak, aurten Udaletik martxan jarri duten *Ezetz da ezetz* kanpaina dela-eta. DBHko eta Batxilergoko ikasleei bideratutako kanpainaren barruan, hainbat ekintza egingo dituzte. Hala, nesken artean *kit* bat banatuko dute,

arazorik izanez gero erabiltzeko den txilibitu batekin eta hainbat gomendiorekin. Era berean, arazo horren aurrean jarrera aktiboa bultzatzeko eta eurengandik zer espero den azaltzeko, mutilei ere gidatxo bat banatu zaie. Ikaste-

txeetan banatu ostean, gaztelekuan, Denok Baten Bidebarrietako lokaletan eta txosnagunean ere egongo dira eskuragarri.

Horrez gainera, eta kanpaina beraren harira, udaletxean tira apaingarri batzuk jarriko dituzte, baita hainbat kartel ere, herrian zehar. *Neri ez egin txistu, ni enauk txakurra, Nere gorputzak etxok hire iritzirik bihar eta Etxuat gura pioporik, errespetua gura xuat* diote kartelok; bada, Berdintasun zinegotziaren esanetan, askotan normaltzat jotzen diren jarrera matxisten inguruan ohartarazteko.

### Bihar, Egun Morea

Oñatiko Gazte Feministen Asanbladak eta herriko hainbat emakumek, bestalde, Egun Morea antolatu dute biharko. Egun bere-

zi hori antolatzen duten bosgarren urtea da, eta antolakuntzatik argi azaltzen dute haren helburua: "Jaietan eduki feministendako espazio bat sortzea da asmoa; jolastuz, kantuan eginez eta ondo pasatuz kontzientzia feminista zabaltzea".

Horretarako, egun osoko egitaraua prestatu dute biharko: murala egitea eta herriko leku baten jartzea; bazkalurreko poteoa eta bazkaria bera; Olinpiada Moreak; herriko batukada taldearekin egingo duten *Pototeoa*; eta gauean kontzertuak Euskabaret, Han eta Furia taldeekin. Lehengo taldearen kontzertuaren ostean, gainera, txosnagunetik abiatuta, eraso matxisten kontrako lapiko-jotzea egingo dute. [Egun Morearen ekintzetako ordutegia, 3. orrian]

# MIZKE

Ondo ibili  
jaixetan!!!



Kale Zaharra 3. Oñati. Tel.: 943 78 28 14.  
mizke@euskalnet.net www.mizke.com



Ondo pasa jaixak!



itziar optika

Kale barria 32 • Tel./Faxa: 943 71 82 88 • itziaroptika@wanadoo.es

RPS 276/13





laz, gazte eta nerabeak gaztelekuan elkartu ziren afaltzeko. Aurten, bazkaria egingo dute Errementari plazan. | ARGAZKILARIAXXX

# 'Flasmob'-a gazte eta nerabeendako

Hilaren 28an grabatuko dute bideoa ETS taldearen 'Zure munduan' kantuarekin Errementari plazan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Hilaren 28a gorriz markatuta dute herriko gazteek eta nerabeek. Oñatiko gazte talde batek, kale hezitzaileek eta gaztelekuak eskutik egin dute lan, eta askotariko ekintzak egingo dituzte Errementari plazan. Eta horien

arte, berrikuntzak ere badaude: *flashmob*-a (16:00) eta *photocall*-a (15:30). Lehenengoan, ETS taldearen *Zure munduan* kantua koreografia egin eta grabatuko dute; eta bigarrean, argazkiak egiteko aukera izango dute parte-hartzaileek.

**Tirolina, rokodromoa...**

Goizetik askotariko jokoak egingo dituzte (11:00-14:00): batzuk gazteek antolatutakoak eta beste batzuk gaztelekuko arduradunen eskutik. Besteak beste, tirolina eta rokodromoa ipiniko dituzte Errementari plazan.

Jokoen ostean, eta *flashmob*-aren eta *photocall*-aren aurretik, bazkaria egingo dute Errementari bertan. Iaz afaria egin zuten gaztelekuan, baina aurten bazkaltzeko elkartuko dira. Janari zerbitzua egongo da eta interesatuek alde aurretik erosi behar dituzte txartelak gaztelekuan, hiru eurotan.

**Alkoholik ez**

Antolatzaileek garbi utzi gura dute hilaren 28ko ekitaldietan ez dutela alkoholdun edaririk banatuko gazteen eta nerabeen artean. Era berean, adierazi gura dute *flashmob*-ean eta *photocall*-ean hartzen diren irudi eta argazkiak ez dituztela sare sozialen bidez partekatuko.

Gaineratu dute eguraldi txarra eginez gero Errementari plazako arkupeetan egingo dituztela ekintza guztiak.

## 'Zuk ekarri, zuk jan' kalera aterako dute

Bigarrenez, hilaren 30ean, San Migel Bixamon egunean egingo dute *Zuk ekarri, zuk jan* familiendako bazkaria. Berrikuntza izango da bazkaria kalera aterako dutela: Errementari plazan egingo dute.

Eta han elkartuko dira herriko familiak, haur, gazte eta heldu, elkarrekin bazkaltzeko (14:00). Bazkaria etxetik eraman behar dute, eta ez da alde aurretik izenik eman behar. Familien bazkariak izango duen beste berrikuntza sagardo kupela izango da: Udalak ipiniko du kupela helduendako.

Bazkaldu ondorengo girotzeko, txikiendako magia saioa egingo du Kidam magoak.

Eguraldi txarra egiten badu, ekitaldi guztiak kiroldegian egingo dituzte.

**Haur parkea**

Aurten hutsik egingo ez duena haurrendako jolasparkea izango da. Etxaluz parkean askotariko puzgarriak ipiniko dituzte. Adinaren arabera banatuko dituzte gazteluak eta jokoak. Gainera, trena ere egongo da txikiendako. Irailaren 29an (San Migel eguna) eta urriaren 5ean (Erro-saio domeka) ipiniko dute haurrendako parkea, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Eguraldi txarra egiten badu, puzgarriak kiroldegiko kantuan ipiniko dituzte.

Ondo pasa jaixetan!



Kale barria 20 • Errekalde 8  
OÑATI  
Tel.: 943 78 01 54

Jai dotoreak izan!

ileak

marikarmen ile apaindegia

san lorentzo 9 a - behea

tel.: 943 71 60 46

OÑATI



# Herri Egunaren antolaketa, Nekazarien Elkarteko lana

Urtero antzerakoa izan arren, aurten badira aldaketatxoak: ardiarena erakusketa izango da lehiaketa barik, eta ahuntzak ere izango dira

JULEN IRIONDO | OÑATI

Nekazarien Elkartekoek hartu dute, aurten ere, Herri Egunean antolaketaren ardura; bai, behintzat, egun hori berezi egiten duten osagaietan nagusietakoak diren baserriko produktu eta abereen erakusketa eta lehiaketen antolaketarena.

"Zuzendaritzakoak ibiltzen gara -hamaika lagun-, eta egunean bertan laguntzen digute elkarteko gazteek -dozena erdia-, behiak kamioitik jaisten eta igotzen; aurreko zuzendaritzakoak ere ibiltzen dira, eta Olabarrietako elkartetik beste bi lagun etortzen dira", dio Jabier Markuleta, Nekazarien Elkarteko presidentek.

Hilabetez lan handia eskatzen omen du antolaketa: "Jendea lasai ibiltzen da. Paperak eta datak jartzen ditugu izena emateko, baina ondorean ibili behar izaten dugu". Eta egunean bertan ere nahiko lan izaten ei da.

## Nobedadeak

Ahuntzak izango dira aurten nobedadeetako bat, eta besterik ere bada: "Lehen ardi muturbeltzak bakarrik izaten ziren, baina orain muturgorriek ere badute aukera. Bestalde, lehen 50 arditik gora eduki behar ziren aurkeztu ahal izateko, baina kendu egin dugu

gutxieneko kopuru hori; azkenik, lehiaketa beharrean, erakusketa izango da aurten ardiarena. Aldaketok dira gehiagok izan dezaten ganadua erakusteko aukera, eta dirua ere gehiagoren artean banatzeko", dio Markuleta.

## Herri bazkaria

Herri bazkarian, bestalde, bertako produktuekin egindako menua izango da, beste behin: pasta entsalada, okela gisatua eta gazta. Kultura etxean, udal etxean eta Turismo Bulegoan

egongo dira txartelak, 19 eurotan. Segurtasun baldintzak zorrotz dituztela-eta, 650 lagunentzako lekua egongo da. Bazkaltzeko beste aukera bat izango da, berriz, gaztetxean, txosna batzordearen eskutik.



Jendea ganaduari begira, Herri Egunean. | GOIENA

## ESANAK

"Paperak eta datak jartzen ditugu izena emateko, baina ondorean ibili behar izaten dugu, hala ere"

JABIER MARKULETA  
NEKAZARIEN ELKARTEA

## KONTUAN HARTZEKO

**06:00**

HASIERA ORDUA

Goiz ekiten diote lanari, dena prestatzeko. Batzuk azokan geratu eta beste batzuk elkartera joaten dira gero, salda banatzera.



- Gasak
- Berogailuak
- Pellet eta egurrezko estufak
- Eguzki plakak
- Energia berritzaileak
- Sukaldeak
- Bainurako behar duzuen guztia

Ondo pasa jaixak!

Kale Zaharra 17  
Tel.: 943 71 82 49 • Mugikorra: 635 74 62 26  
e-posta: e.inurritegi@gmail.com



**MAPFRE**

Urte askotan  
oñatiarren zerbitzura!



Ondo  
pasa  
jaixak!

Portu kalea 5 • 20560 Oñati  
Tel.: 943 78 12 65 • Faxe: 943 78 07 85



# Musika baino gehiago San Migel jaietan

Musikari erraldoiak, kabaret ikuskizuna, flamenko dantzaria eta kubatar doinuak, besteak beste

## EGUBAKOITZA

# 26

### Amparo Sanchez eta La Jodedera

Foruen plaza | 22:00etan

Amparanoia taldeko Amparo Sanchez izango da San Migel jaiei hasiera emateko arduraduna. Duela bi urte kaleratu zuen *Alma de cantaora* lanarekin etorriko da Oñatira. Formatu akustikoan ekoiztutako diskoa; artistaren arabera, disko umila, naturala eta beharrezkoa.

Eskoriatzako Errekan Gora jaialdian ikusle guztiak dantzan jarri zituela ikusita, Oñatin ere Foruen plaza dantzan eta kantuan jarriko du Amparanoioako liderrak.

Euskal Herriko eta Kubako musikariek sortutako taldea da La Jodedera. Laukotearen etxeko

berezitasuna erritmo karibetarrak dira. Txorromorro eta Bap!-eko Kasares eta Jomes musikari ohiek Mandi Cienfuegos eta Oscar kubatarrekin *Karibe kanturi kantari* diskoa kaleratu zuten joan den urtean Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin. Kontzertu ezberdin eta dibertigarria izango da.



Amparo Sanchez. | IMANOL SORIANO



Gure musikari handiak ikuskizuna. | OREKA TX

## ZAPATUA

# 27

### Euskabaret

Txosnagunea | 22:00etan

Lotsa alde batera utzi eta ondo pasatzeko aukera paregabea eskainiko dute Euskabaret taldeko kideek. Antzerkia eta musika bateratuz kabaretaren mundua ibarrera ekarriko dute nafarrek.

### Han eta Furia

Txosnagunea | 23:30ean

Elorriko Han taldea igoko da taulara gaua berotzeko asmoz. Laukoteak urtebete inguru daran arren, eskarmentu handiko musikariek sortutako proiektua da Nere Lersundi abeslariak gidatzen duena.

Horren ostean, Furia rap-kantariaren txanda helduko da. Rap feminista bezala deskribatu dute Furia Soprano donostiarraren musika; hitz zuzenak mezu feministarekin. Nazioarteko hainbat artistarekin kolaboratu duen artista da *No hay clemencia* eta *Welcome al circo* kantuen egilea.

## ASTELEHENA

# 29

### 'Gure musikari handiak', OREKA TX

Ikuskizun ibiltaria | 18:00etan

Oreka TX musika taldeak Lekeitioko Kale Antzerki Nazioarteko Jaialdiarekin eta Kukubiltxoren laguntzarekin sortutako ekimena da *Gure musikari handiak*. Kale ikuskizunak musika eta antzerkia batzen ditu eta helburua Euskal Herriko musikari handi eta ahaztua gogora ekartzea da.

Maurizia pandero jotzaile zeberioarra, Leon alboka jotzaile arratiarra, *Fasio* trikitilari iurretarra eta Pello Zuaznabar eta Ramon Goikoetxea txalaparta-joleak erraldoi bihurtu dituzte Frantziako Grandes Personnes tailerraren laguntzarekin. Bada, erraldoi horiek, musikariek lagunduta, kalejira egingo dute txalapartaren, panderoaren, albokaren eta trikitiaren doinuak Oñatiko kaleetan zehar gure herriko musikari ahaztuak gogora ekarri eta oñatiarrak entretenitzeko asmoz.

### Orlis Pineda Y Su Grupo Cayamba

Txosnagunea | 19:00etan

Orlis Pineda kubatarra izango da aurtengo sorpresetako bat. Madrilen bizi den musikaria musika kubatarra, reggaea, rapa, pop-rocka, sanba eta flamenkoa bateratzearen da ezaguna eta zuzenekoetan eskarmentu handiko artista dela erakutsi du behin eta berriz.

*Reiniciando* lana aurkeztera etorriko da Pineda txosnagunera, hamahiru kantu propioz osaturiko diskoa.

### La Pulga

Atzeko Kale | 19:30ean

Flamenko musikaren ordezkarria izango da *La Pulga* dantzari gasteiztarra. Askoa Etxebarrieta *La Pulga*-k txalapartaren doinua flamenkoarekin nahasten du kolorez jositako ikuskizunean.

### Mikel Urdangarin

Foruen plaza | 22:30ean

*Azula* diskoa joan den urtean kaleratu ostean, Foruen plazara etorriko da Mikel Urdangarin.

Ondo pasa jaixak!!

**BIDEBARRI**  
Enplegu Zentrua

Bidebarrieta • OÑATI • Tel.: 943 78 34 44

## PERTSONA NAGUSIEN ZAINTZARAKO ZERBITZUA

**BIDEBARRI**  
Enplegu Zentrua

Tel.: 943 71 64 79 • bidebarri@terra.com  
iurrutia.bidebarri@gmail.com

### ZAINZAILA ETA FAMILIEN ARTEKO BITARTEKARITZA LANAK

**ADMINISTRAZIO LANAK**

- Kontratu egitea.
- Gizarte Segurantzaren alta ematea.
- Nominak egitea.

**HAUTAGAIEN AZTERKETA**

- Enpresako konfiantzazko langileak.
- Esperientziadunak.



1997an kaleratu zuen estreinako lana zornotzarrak eta orduetik hona euskal bakarlariekin artean erreferente bihurtzea lortu du. Hamabi disko argitaratu ditu ibilbidean zehar, eta Oñatira *Azula* laneko kantuekin eta bere erreperatorioko klasikoekin etorriko da.

## MARTITZENA

30

## Flor De Mexico

Foruen plaza | 19:00etan

Mexikotik zuzenean etorriko da aurten Flor de Mexico mariatxi taldea. Foruen plaza mexikar folklorez eta alaitasunez beteko dute Garibaldi plazatik etorritako mariatxiak; besteak beste, *Allá en el rancho grande* eta *Gualajara* kantu klasikoekin.

## EGUBAKOITZA

3

## Banda Munizipalari tributua, Kalamidaz, Basorantz eta Barniz Por La Nariz

Txosnagunea | 21:00etan

Karrikaldixa jaialdiak eramango du punk musika Oñatiko txosnetara; 80ko hamarkadako hotsak izango dituen punk azkar eta zikinena, hain zuzen.

Bertan, Barniz Por La Nariz baztandarrak izango dira gazteenak. Goierriatik, oster, Kalamidaz taldea etorriko da, eta gaueko izarrak Banda Munizipalari tributua egingo dioten musikari oñatiarrak izango dira. Esan bezala, punk musikariaren jarraitzaileentzako kontzertu aproposa.



The Surfin' Burritos. | SURFIN BURRITOS

## ZAPATUA

4

## Gozategi eta Ezten Giro

Txosnagunea | 22:00etan

Asier Gozategik eta Ainhoa Gozategik sorturiko taldeak 90eko hamarkadan izan zuen momentu gorena; hala ere, oraindik ere, duela hamarkada bat egindako kantuek badute lehengo magia. Gaur egun Asier izan arren Gozategi bakarra, trikitiaren hotsa eta kantu alaiak herriz herri eramaten jarraitzen du, ondarea bizirik mantentzen.

Oñatira taldearen klasiko guztiak etorriko dira, All Star 2014 Tour izendaturiko biran barrena, *Madrilgo postalak* eta *Bi herri* eskaintzera.

Erromerien zapatu gauari hasiera emateko ardura, oster, Ezten Giro taldeak izango du. Hain zuzen ere, Alaitz Eskudero, Maitane Unanuek eta Mirari Alkortak sorturiko taldea herririk herri jaiak giroten ibili da aurtengo udan, eta, hortaz, Oñatin onena emateko prest izango dira.

## DOMEKA

5

## The Surfin' Burritos

Atzeko kalea | 19:00etan

Bartzelonako laukoteak 50eko eta 60ko hamarkadetakoa musika du arma nagusi. Rock-and-rolla oinarri hartuz, surf, garage eta beat musika irabiagailuan sartu eta oholtza gainean orduko klasikoak berriro interpretatzen dituzte. Tartean, Supremes tal-



Psycho Clown. | ZO-ZONGO

dearen *Be my baby*, The Kinks ingelesaren *Till the end of the day*, Ramonesek ezagun egindako *California Sun* eta Eddie Cochranen zein Elvisen kantuak.

## La Tarantella orkestra

Foruen plazan | 20:00etan

Duela 29 urte Corellan sortu zen La Tarantella orkestra eta Espainia mailan zaharretakoa da. Ikusle guztiarentzako piezak eskainiko dituzte, metalezko instrumentuekin pieza klasikoagoak eta garaikideak nahasten.

## ASTELEHENA

6

## Psycho-Clown

Kalejira ibiltaria | 18:00etan

Antzerkiaren eta perkusioaren alde ilun eta beldurgarria ekarriko du Psycho-clown ikuskizunak. Kalerik kale, pailazo hiltzailez mozturiko musikariak kaosa eta zarata eta, ahal den heinean, beldurra hedatuko dute.

## Di-bertsioak

Txosnagunean | 18:00etan

Urtero legez, musikari oñatiarrek talde ezagunen bertsioak egingo dituzte txosnagunean.

Aurten, Down, Panterako Phil Anselmoren taldearen bertsioak eta Hamlet madrildarren kantuak berriro interpretatuko dituzte herriko musikariak.

## Lisker

Foruen plaza | 20:00etan

Jaiei amaiera emateko, Eibartik Lisker erromeria taldea igoko da oholtzara.

## Udal Bandak hiru kontzertu egingo ditu

Udal Bandak, urtero bezala, rol garrantzitsua izango du San Migel jaietan. Hiru kontzertu eskainiko dituzte, hirurak ere erreperitorio ezberdinarekin osaturikoak. Lehenengoa irailaren 21ean izan zen, 13:00etan, Foruen plazan. Bertan, besteak beste, Inaxio Ibarrendoren *Bakarmin* pasodoblea eta Felix Kortabarriaren *Artzaintza* piezak interpretatu zituzten.

Bigarrena eta bereziena Lazarraga jauregiko lorategian egingo dute hilaren 29an, astelehenean. Antonino Ibarrendoren obrak izango dira protagonista; tartean, *Aloña Mendi*, *Oñati* eta *Arantza artean*. Jaietako azken kontzertua, oster, urriaren 5ean izango da, domeka, Foruen plazan. Kontzertu guztiak Iñaxio Ibarrendok zuzenduko ditu.



Oñatiko Udal Banda. | GOIENA



Ondo pasa jaixak!



OÑATI GARAJEA

Zure zerbitzura

Goribar auzoa 9 • 20560 • OÑATI  
Tel.: 943 78 13 50  
garageonati@euskalnet.net



PODOLOGIA ETA ORTOPEDIA  
ZERBITZUAK


RPS: 309/13

Ondo pasa  
sanmigelak!

Arantzazuko Ama 19 A • Oñati  
Tel.: 943 53 36 37



# SALTO ETA DANTZA TXANTXIKUEN ANTZA



Izarraitz • Urtiagain • Boga • Ongi etorri  
Zurrust • Soraluze • Living Caffé Txurruka • Olakua  
Garoa • Aldapa • Bikoitz • Aker • Zotz



# SANMIGELAK 2014

ARETXABAETA  
JAIETAN!



- ▶ Azoka oparoa
  - ▶ Herri bazkaria, 'Libre'
  - ▶ Kantu afari arrakastatsua
  - ▶ 'Katiuska', abesbatzarekin
- + JAIETAKO EGITARAU OSOA**

Herritarrak  
larrain-dantza  
egiten Durana  
kalean.

GOIENA



EZKONTZA ERREPORTAJEAK  
ESTUDIOKO ARGAZKIAK

**Begira**  
argazkilaritza



[www.fotobegira.com](http://www.fotobegira.com)

Ilargi plaza 1, Aretxabaleta  
tel.: 943 53 49 45 637 26 26 86



# Gemes

Irudi aholkulariak

Ilargi plaza 2  
Tel.: 943 79 99 18  
ARETXABALETA

- Aurpegiko tratamendu bereziak
- Aurpegirako eta gorputzerako produktuak
- Gorputzerako spa tratamenduak
- Laser-diodo depilazioa
- Makillajeon espezialistak



Orain, ile apaindegiko zerbitzuak ere bai



*Ondo ibili sanmigeletan!*



# ARETXA AUTOAK

*1982. urtetik Atxabaltarron artean. Eskerrik asko, guztioi!*



350 m<sup>2</sup> - Elektrizitatea eta mekanika - Txapa eta pintura - SEAT, Volkswagen eta Audi autoetan espezialistak



*Ondo pasau Jaixetan!*

Basabe poligonoa A-2-4 - ARETXABALETA - Tel.: 943 71 00 68 - Ordutegia: 09:00 - 13:00 / 15:00 - 19:00  
E-posta.: [taller@autosaretxa.com](mailto:taller@autosaretxa.com) - [www.autosaretxa.com](http://www.autosaretxa.com)



# JAIETAKO EGITARAUUA

## EGUBAKOITZA

## 26

**19:00** Arrasateko **ERRALDOI** ETA **KILIKIEN** konpartsa ertaina eta txikia, eta Aretxabaletako erraldoiak eta buruhandiak, Arrasateko eta Arrasateko eta Aretxabaletako gaiteroekin batera.

**21:00** **KANTU AFARIA** Durana kalean.

## ZAPATUA

## 27

(Antolatzaileek herritarrak animatu gura dituzte ikurrina balkoietan edo leihoetan jartzera eta kalera baseritar jantzita irtetera).

**10:00** Artisautzaren eta Nekazaritza Ekologikoaren **20. FERIA**, Durana kalean.

**10:00** **DIANA** Aretxabaletako txistulariekin.

**10:00** Tril emakume taldeak (Loramendi) antolatuta, **TALO TXOSNA**, goizean zehar, Pagaldai tabernan.

**11:30** Leizarra Musika Eskolako **TRIKITILARIAK**. Kaleetan zehar.

**11:30** **KANTUZ KALEAN**. Basotxo elkarteko abesbatza kantuan ibiliko da herriko kaleetan zehar, Arrasateko eta Eibarko erretiratuen elkarteetako abesbatzekin batera.

**12:45** **TXALAPARTA** Durana kalean.

**13:00** Simon Otxandategi taldearen **JOALDUNAK**, Durana kalean.

**14:30** **HERRI BAZKARIA**. Iturrigorri frontoian.

**19:00** Beinke-Loramendi dantza emanaldia, Herriko Plazan. Ondoren, larrin-dantza.

**20:00** **ALAIKI** taldea. Herriko Plazan.

**00:00** Borondatezko alkohol proba. Mitarte kalean.

## DOMEKA

## 28

**11:00** **DIANA**, Aretxabaletako gaiteroekin.

**13:00** **HERRI KIROLAK**, Herriko Plazan. Mainer Osak aurkeztuta.

**LEHEN ATALA**. ERAKUSTALDIA:



Zapatuko azoka, San Migeletako ekitaldi esanguratsuenetakoa. | GOIENA

► Aizkolariak (Ernesto Ezpeleta *Bihurri*, Jose Mari Olasagasti, Donato Larretxea eta Alex Txikon): Abiadura proba, zutika, esku bakarrarekin, kolpeka.

► Iparraldeko jokoak (Oskar Basatxu eta Laura Basatxu, aita-alaben arteko norgehiagoka): lasto-jasotzea, ingude-jasotzea, lasto jaurtiketa, gurdi-jokoa.

► Harri-jasotzaileak (Joseba Ostolaza eta Udane Ostolaza): Askotariko harriekin aita-alaben arteko erronda, esku batekin zein birekin.

**BIGARREN ATALA NORGEHIAGOKA:**

► Euskal pentlotoia bi laukoteran

artean: aizkoran, harri-jasotzen, trontzan, txinga eramaten, korrika.

**HIRUGARREN ATALA:**

► Motozerra proba:

**LAUGARREN ATALA.**

► Ikusleentzako ekintzak: trontza, txingak...

**16:00** **22. SAN MIGEL MUS TXAPELKETA**. Herriko Plazan. Garaikurra, txapela eta dirua emango zaie lehenengo sailkatuei. Izen-ematea: 15:15etik 15:45era, 20 euro.

**19:00** **KONTZERTUA** Aretxabaleta Abesbatzaren eskutik. Herriko Plazan. Aurten, Katuska zartzuela kantatuko dute, eta dantzariak ere izango dira lagun.

## Aupa, sanmigelak!

**Kilima**  
umeentzako arropak

Ilargi plaza 6 Aretxabaleta  
Tel.: 943 53 34 96

paloma

Billieblush

SILVIAN HEACH  
kids

absorba

name it.

TIFFOSI KIDS

CARBONE  
jeans

Artesanía  
Granlei

TNY  
By Tinny Shoes, Spain

LC  
KR

CHIPIE  
KIDS

Levi's  
KIDSWEAR

babyface





Herritarrek kantuan iazko afarian, atzean musikariak daudela. | IMANOL SORIANO

# Herritarrek ere egin gura dute kantuan

Sei Pistols Eta Trabuko Bat taldearen doinuek girotuko dute, beste behin, Durana kaleko afaria

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Zeinek esan du gero eta gutxiago kantatzen dela? Herritarrek kantuan egin gura dutela erakutsi dute aurreko urteotan San Migel jaietan egindako kantu afariek. Orain dela bi urte bete egin zen Durana kalea, eta iaz, mahai nahikoa ez zegoen kantuan egin gura zuten guztiendako. Aurten, 600 lagunendako lekua egongo da. "Oso harrera beroa eduki du ekimenak bi urteotan. Iaz esango nuke sanmigeletako ekintza parte-hartzaileena eta arrakastatsuenetakoa izen zela", dio Aitor Ziardegik, afaria girotuko duen taldeko musikariak. Kantu liburuak erosi egin beharko dira aurten, euro baten truke, Arkupe (22:00ak arte izango dituzte).

**Kantu herrikoiak eta modernoak**

Sei Pistols Eta Trabuko Bat taldeak girotuko du aurten ere kantu afaria; Aretxabaleako, Arrasateko eta Aramaioko eskarmen-tu handiko musikariak osatutako talde dotoreak, hain zuzen ere. Hona kideak: Iñaki Barrena (txistua); Urki Larrea (txistua); Igor Herrarte (biola); Oier Sarasua (gitarra); Kepa Urteaga (trikitia); Mikel Albistur (perkusioa); eta Aitor Ziardegi (pianoa).

"Bertso eskolakoei aurten ere gonbita egin diegu gura badute oholtzara igo eta elkarrekin jarduteko", jakinarazi du Ziardegik. Kanta herrikoiak izango dira nagusi, betiko kanta horiek, baina poliki-poliki modernotxoago batzuk ere sartuaz goaz", gaine-

ratu du. Hala, Anje Duhalde, Zea Mays eta Sorotan Bele taldeen abestiak ere entzungo dira, besteak beste.

**Afaria, norberak**

Kantuak jarriko ditu Sei Pistols Eta Trabuko bat taldeak, baina afaria herritarrek. Udalak mahaia eta aulkiak eroango ditu Duranara eta jatekoa norberak jiratu beharko du. Alde batetik bestera beteko dute mahaiek kalea, eta erdi-erdian izango dira musikariak, bazter guztietatik entzuteko ondo.

## 'Kantuz kalean' Basotxokoekin

Basotxo erretiratuen elkarteko abestaldeak ere ekitaldia egingo du San Migel jaien barruan: *Kantuz kalean* ekitaldia. Bihar goizean izango da.

Eibartik eta Arrasatek etorritako erretiratuen taldeekin bat egingo dute 11:00etan Basotxon mokadutxo jateko. Eta ondoren kantuan jardungo dute elkarrekin, Aretxabaleako kale bazterrak girotzeko. Eta lanean gogor jardun ondoren, Basabe jatetxera joko dute guztiak bazkaltzera.



# GUUREA



Gora, sanmigelak!

# TABERNA

Durana 32 ARETXABALETA Tel.: 943 79 20 64



# Izango da zer ikusi ganadu barik ere

Artisautza eta Nekazaritza Ekologikoaren 20. feriak artisauz eta ekoizleaz beteko du bihar, Durana kalea

IMANOL BELOKI | ARETXABALETAKO

Ohiturari eutsiz, urtero bezala, San Migel azoka izango da Aretxabaletako jaietan. Aurten 20. azoka ospatuko da, eta, urtero bezala, kanpoko zein bertako nekazari eta artisauen produktuak izango dira salgai. Irailaren 27an izango da, 10:00etatik 14:00etara bitartean, eta Durana kalean hainbat produktu ikusi, probatu eta erosteko aukera izango da.

## Artisau-produktuak

Inma Miguel Aretxabaletako Kultura teknikariaren esanetan, "50 postu inguru jarriko dituzte aurreneko artisauak eta hainbat produktu mota jarriko dituzte salgai. Aldabarrak, ezta, egurrez tailatutako pieza, harriaren landutako produktuak, zapatak, bitxiak, lore lehorrak, belar usaintsuak, landarezko produktuak, haziak, artilea, kutxak, zilarrezko produktuak, zeramika artistikoa, zaku organikoak, buztinez egini-



San Migel jaietako iazko barazki ekologikoen postua. | IMANOL SORIANO

**Iaz bezala, 22 postu ekologiko inguru izango dira aurten ere azokan**

**Artisauz josita egongo da azoka: aurten 50 postu inguru izango dira**

ko produktuak, larrugintza, kakorratza (gantxilloa), material birziklatuak, oihalak...". Hala, produktuak nola egiten dituzten ikusi ahal izango da.

## Produktu ekologikoak

Egongo da zer ikusi Duranan, produktu ekologikoz betetako hogeitau postu inguru izango dira eta, iaz bezala. Barazkiak, frutak... denak kalitate bikainekoak eta osasungarriak. Batzuk kanpoko produktuak izango dira, beste batzuk bertakoak, horien artean daude Mendibitzu baserriko okela; eta Maria Jesus Revueltaren eta Kurtzebarri eskolako barazkiak eta frutak.

## Postu bitxiak

Bestalde, beti egoten dira jendearen arreta pizten duten postuak, Kultura teknikari Inma Miguelen arabera: "Hainbat produktu ezberdin egongo dira; edozelan ere, ikusi ditudanetatik, kakorratzez egindako lanak dira bitxiak. Uste dut jendearen gustukoak izango direla horiek".

## Gaztetxoak ere saltzen

Arizmendiko eta Kurtzebarriko ikasleek ere hartuko dute parte azokan. Kurtzebarri eskolako Lehen Hezkuntzako hirugarren mailakoek baratze ekologikoko produktuak salduko dituzte. Arizmendiko Lehen Hezkuntzakoek, aldiz, hostopilezko lazotxoak, krispetak eta Tolosako babarrun beltzak; horiek jasotako dirua Ziburuko ikastolarendako izango da.

## San Migel azoka, labur

### HOGEI POSTU EKOLOGIKO INGURU

Urteroko produktu izarrak ardi gazta eta okela ekologikoa izango dira, besteak beste. Ortuoko produktu naturalak, kalitatezkoak eta osasungarriak.

### 50 ARTISAU POSTU INGURU

Larrugintza, egurren tailatutako, material birziklatuz eta organikoak eskuz egindako produktuak... izango dira, besteak beste. Gainera, horiek nola egiten dituzten ikusteko aukera izango dute bertatik pasatzen direnek.

### BERTAKO EKOIZLEAK

Produktu eta ekoizle gehienak bertakoak izanda, presentzia handiena Debagoieneko nekazariak hartuko dute Durana kaleko San Migel azokan.

### GAZTEAK POSTUETAN

Kurtzebarriko ikasleek produktu ekologikoko salduko dituzte. Arizmendikoek Almenen ekoiztutakoak, krispetak eta lazotxoak, besteak beste.

# GARAJE NORTE

## Opel MOKKA berria



**15.000 €-tik hasita**

baldintzak kontsultatu

**AUTO MARKA GUZTIAK KONPONTZEN DITUGU.**



## GARAJE NORTEEn (OPEL zerbitzu ofiziala)

ZURE FIDELTASUNAK SARIA DAUKA MIOPEL.ES WEBGUNEAN

"SIEMPRE OPEL"ek zure fideltasuna saritzen du 4 urte baino gehiagoko autoentzako deskontu garrantzitsuekin \* . [www.miOpel.es](http://www.miOpel.es) webgunean izena eman eta Opel zerbitzuaren kalitateaz gozatu.

BASABE POL. A 1-3. pab. • 20550 ARETXABALETAKO  
Tel.: 943 71 20 03



Wir leben Autos.

[www.miOpel.es](http://www.miOpel.es)

*Cuidamos lo que fabricamos* | Posventa | Opel

\* Deskontuak [www.miOpel.es](http://www.miOpel.es) webgunean izena emanda dauden Opel autoentzako aplikagarriak. \*\* Autoaren adina lehenengo matriculazioaren datan oinarritua. Deskontu baliagarriak 4 urtetik aurrerako Opel autoentzako bakarrik. \*\*\* Deskontua Tailer Mekanikoak egindako lan guztietan aplikagarria. Osagarriak eta pneumatikoak ez daude barne. Eskaintza hau ez da beste promozio batzuekin bateragarria. 2014ko abenduaren 31ra arte baliagarria. General Motors España SLUK programa hau alda/ken dezake.

ZURE AUTOAREN ADINA **	DESKONTUAK PIEZETAN TAILER MEKANIKOAN EGINDAKO LANETAN ***	DESKONTUA ESKULANEAN
+	4 URTE	% 10
+	8 URTE	% 15
+	10 URTE	% 25



# Herri bazkariko aldarrikapena: 'Libre'

Pilotalekuan egingo dute irailaren 27an euskal preso eta iheslarien alde urtero egiten duten herri bazkaria

IRATI GOITIA | ARETXABALETAN

Euskal preso eta iheslarien aldeko bazkaria egingo dute aurten ere San Migel jaietan. Irailaren 27an, zapatua, izango da, hain zuzen ere, Iturrigorri pilotalekuan. Aretxabaletar askoren bilgune izaten da. Izan ere, goiza azokan pasa ostean, indarrak hartzeko aukera ona izaten da.

'Libre'

Aurreko urtean bezalaxe, aurten ere *Libre* da bazkarirako auke-

ratu duten leloa, Madrilén hasi berri diren epaiketak direla eta. "Auzipetuei babesa adierazteko modua izango da, eta baita salaketa egiteko bidea ere", adierazi du Jone Ojea antolatzaileetako batek. Kolore laranjako 200 zapi ateratu dituzte leloarekin eta egunean zehar salduko dituztela zehaztu du Ojeak. "Aurreko urtean zapiak etxean dutenak jantz dezatela eta ateratu dezatela kalean aldarrikapena", gaineratu du aretxabaletarrak.

Bazkaria 14:30ean izango da, pilotalekuan. Menua urterokoa izango da, Auzolagunetik eskatua: patatak txorizoarekin, oilaskoa eta pastela. Ojeak jendea animatu nahi izan du bazkarian parte hartzera, ez omen delako giro onik faltako -txartelak martitzenera arte izan zituzten salgai, 17 eurotan-. Ojeak gaineratu du boluntario batzuk ibiliko direla bazkaria zerbitzatzen.

**Manifestazioa**

Aurreko egunean, hilak 26, egubakoitza, manifestazioa egingo dute *Euskal presoak Euskal Herri* lelopean. "Azken ostirala izanik, eta hurrengo egunean San Migel eguna eta Gudari Eguna izanik, ohiko elkarretaratzea egin beharrean, manifestazioa egitea erabaki dugu", zehaztu du Ojeak. 19:00etan hasiko da mobilizazioa, plazan, eta herriko kaleetan barrena egingo dute aldarrikapena.



lazko herri bazkaria. | GOIENA

KEPA URRA | EUSKAL PRESO OHIA

## "Elkartasuna adierazteko modua da"

Apirilean gelditu zen libre Kepa Urria preso aretxabaletarra.

**Aurten bazkarian izango zara...**

Aspaldi da ez naizela izan, eta gogotsu naiz ze giro izaten den ikusteko. Beste batzuk oraindik barruan daude, gainera, eta lanean jarraitu behar da eta jendea parte hartzera animatu. Elkartasuna adierazteko modua da, hein batean.



MIRARI ALTUBE

**Preso zeundenean jasotzen zenuen bazkariaren berri edo herritarren berotasuna?**

Bai, familiaren bitartez edo postalen bidez izaten genuen ekimenen berri. Egia

esan, oso gustura jasotzen da herriko berri.

**Aurtengo leloa: Libre...**

Bai, beharrezkoa da normalizazioa eskatzea. Zapia badut dagoeneko.

"Auzipetuei babesa adierazteko modua izango da bazkaria"

"Laranja koloreko 200 zapi aterako ditugu 'Libre' leloarekin"

San Migeletan danok, ni, hi, ha, alkarrekin dantzari eta kantuen, etorkizunari begira, itxaropenez, pakia lortu guran gurien.

**Gora San Migelak!**  
**Gora Aretxabaleta!**  
**Gora Euskal Herria!**

aretxabaletako  
**aralar**



# Abesbatzak 'Katiuska' zarzuela taularatuko du

"Melodiak asko gustatuko zaizkio jendeari"

"Erraza da jaietan jendeak parte hartzea"

Domekan egingo dute emanaldia, herriko plazan, arratsaldeko zazpietan

MAIALEN TORRES | ARETXABALETA

Zarzuela doinuak izango dira dagoeneko tradizio bihurtu den sanmigeletako abesbatzaren kontzertuan. Izan ere, Aretxabaleta Abesbatzak Pablo Sorozabalen *Katiuska* zarzuelaren zati musikatua eskainiko du domekan, 19:00etan. Obrak printzesa errusiar baten, printze baten eta langile baten arteko maitasun tirabirak kontatzen ditu, XX. mende hasieran girotuta.

Dena den, Aretxabaletako abesbatzakoak ez dira bakarrik izango, kolaboratzaile asko izango baitituzte. Hain zuzen, koruko 38 kideez gain, lau bakarleri, hiru musikari, 30 dantzari eta abesbatzaren zuzendari Anjel Barandiaran izango dira oholtzan.

Guztien artean emango diote bizia istorioari, eta, esaterako, dantza taldekoek fox-trot eta bals eritmoak dituzten musika piezak dantzatuko dituzte, Nuria Fernandez de Arroiabe koreografoaren gidaritzapean.




Aretxabaleta abesbatzako kideak, entsegu lokalean. | ARETXABALETA ABESBATZA

Barandiaran urtero izan da zuzendari kontzertua egiten hasi zenetik, eta uste du *Katiuska*-ren melodiak jendeari "asko" gustatuko zaizkiola. "Sanmigeletan, gainera, erraza izaten da herri-

tarren parte hartzea lortzea", Barandiaranen ikuspegitik; eta, hain zuzen, hori lortu gura dute kontzertuarekin: "Hark guri bezala, guk ere herriari zerbait eman nahi diogulako egiten dugu lan".

**Urrian, kontzertuz kontzertu** Domekako kontzerturako buru-belarri lanean badabiltza ere, Aretxabaletako abesbatzakoek ez dute aukerarik galdu beste proiektu batzuk abiatzeko. San-

ta Teresa Jesusenaren V. mendeurrenako ospakizunen baitan, bi kontzertu egingo dituzte: bata, urriaren 12an, Donostian; eta bestea, Gasteizen, hilaren 14an. 19an, berriz, Loiolan izango dira.



Mobiliario  
ARENAZA altzariak

Bizkaia kalea 1 ARETXABATETA  
Tel.:/Faxa: 943 79 08 07  
mobiliarioarenaza@hotmail.com

■ Altzariak  
■ Diseinua  
■ Apainketa

ondo ibili  
jaixetan!





1960ko ezkontza: gonbidatuak kalean. | ARETXABALETAKO UDAL ARGAZKI ARTXIBOA



1990eko ezkontza: abadea eta ezkontideak. | ARETXABALETAKO UDAL ARGAZKI ARTXIBOA

# Ezkontza gertatzen hasteko ordua

1960an antzeztutako ezkontza oinarri hartuta 1990ean bigarrena egin zuten sanmigelak indartzeko

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Iraileko azken aste bukaeran datoz Aretxabaletako San Migel jaiak. Izena bai, baina inor ez da akordatu egunotan santuarekin. Zapatu goizeko azokaren bueltan antolatutako jaiak dira,

euskal giroko jaiak berreskuratu guran sortutakoak.

## 1960ko ezkontzan oinarria

Sanmigelak indartzeko asmoarekin euskal ezkontza antzeztu zuten herritarrek 1990ean –aurre-

ko urtean bataioa–. Udalak bultzatu zuen eta herritarrak lane-rako gertu izan ziren.

Ezkontza hori antolatzeko burutazioa ez zen ezerezetik sortu; 1960ko ekainaren 19an antzeztutako ezkontzan izan zuen oina-

ria. Herriko gazte eta heldu kuadrilla bat elkartu zen jai antolatzeko orduan eta ezkontza dotorea egin zuten. Egun hartarako eskatu egin zituzten arropa gehienak, baita errentan hartu ere. Txistularien doinuek lagunduta kalejiran joan ziren futbol zelairaino, eta, hain zuzen, bertan ospatu zuten ezkontza. Ezkontideak izan ziren Jabier Iturbe eta Milagros Urreta.

Ezkondu ostean, arrea hartuta kalejiran joan ziren guztiak, ezkontideak aurretik eta gainerrako senideak eta lagunak atzetik.

## 30 urtean behin ezkontza

1990ean egindako ezkontza haren ostean etorri zen azoka. Eta erabaki zuten euskal giroko azoka hura berreskuratzea baserritarren produktuak eta artisauen lanak

eroanda. Kultura teknikari Inma Miguelen esanetan, orduan erabaki zen 30 urtetan azoka egitea, eta ondoren berriro ezkontza. Eta urteak aurrera doaz.



Ezkontideak. | UDAL ARGAZKI ARTXIBOA

ondo pasa  
San Migeletan!!

120 urte  
bihotzean

Alderdi Eguna 2014  
IRAILAREN 28a Igandea.  
FORONDAN. 12:00etan.







zenbaki 

aholkulariak-abokatuak

**Zure enpresa elkarrekin eramango dugu aurrera**

**LAN ZERBITZUAK  
ZERBITZU FISKALAK  
KONTABILITATE ZERBITZUAK  
ABOKATUAK**



Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa • 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 21 12

[www.zenbaki.es](http://www.zenbaki.es)



zenbaki 

aholkulariak-abokatuak

**Zure enpresa elkarrekin eramango dugu aurrera**

**LAN ZERBITZUAK  
ZERBITZU FISKALAK  
KONTABILITATE ZERBITZUAK  
ABOKATUAK**



*Ondo  
pasa  
jaixak!*

Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa • 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 21 12

[www.zenbaki.es](http://www.zenbaki.es)



San Migel  
**jaiak**  
2014

ARETXABALETA  
IRAILAK 26/27/28



Aretxabaletako  
Udala  
KULTURA SAILA



# Gaubeila, Aihertarren festa kutuna, Antzuolan ospatuko da azaroan

Domekan, Zugarramurdi eta Sara artean batuko dira bi herrietakoak

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Martitzen eguerdian Baionan aurkeztu zituzten Antzuola-Aiherra senidetzearen 30. urteurreneko ospakizunak. Irailean, urrian eta azaroan egingo dira ekitaldiak eta herritarrei parte hartzeko dei egin die Udalak. "Lehenengo ekitaldia domekan egingo dugu. Mendi irteera izango da, senidetzea mendian hasi zen-eta. Elkarrekin egun polita pasatzea da asmoa", dio Ima Beristain alkateak.

Urrian, antzuolarrak Aiherrara joango dira. "Antzuolako zuhaitz bat landatuko dugu. Egun-pasa polita izango da eta ospakizunak izango dira. Gazteek aukera izango dute zapatuan joanda domekara arte bertan geratzeko, Hazparden jaialdi berezia egingo da-eta egun horretan".

## Gaubeila Antzuolan

Aihertarren festa kuttuna aurten Antzuolan egingo da. "Aihertarren euren festa tradizionala eta hunkigarria 23 urtean egin dute. Gaubeila irailaren 10ean ospatzen dute beti, hutsik egin gabe. 2004an bakarrik egin zuten kale, Korrikako kilometroa Antzuolan ospatu zelako. Baina aurten, eskaera egin dugu eta aihertarrek onartu egin dute euren jai berezia Antzuolan egitea. Guretzako ohera da", dio Beristainek.

Gaubeilak hainbat ekitaldi jasotzen ditu. Hala, Kike Amonarrizek eta Pantxo Hirigarrik

parte hartuko dute. Bi herrien arteko parodia umoretsua egingo dute. "Herri bakoitzeko bi bertsolari ere ariko dira. Nahiz eta zalantzan izan, Niko Etxart musikaria espero da gaubeilan".

## Beltzuntzeri herriko bandera

Senidetzearen bultzatzaile garrantzitsua da Beltzuntze elkarteak. Azaroko ospakizunen baitan, herriko bandera emango diote. "Lan handia egin du Antzuolako herriaren izena zabaltzen eta hobetzen; herriko bandera emango diogu egindako lana errekoizteko eta eskertzeko".

## Hitzarmen berriak

"Senidetzea bizirik mantentzen da harremanak pertsonalak direlako eta ez instituzionalak", dio Beristainek. Horregatik, hitzarmenaren atal berriak herritarrek ditu ardatz. "Herritarrengandik abiatutako inizatiba dela baloratzen da bertan; baita denok euskal herritarrek garelako", azaldu du Antzuolako udalburua.

Udalbiltzak ere bat egin du, ofizialtasuna emanda senidetzeari. Erakundeak interesa erakutsi du eta indarra eman nahi dio. "Udalbiltzarekin adostu dugu horrelako harremanak beste herri batzuetara ere zabal daitezela. Ez dugu nahi bi herritarren soilik mugatzea. Ofizialtasun honek harreman hau indartuko duela uste dugu", gaineratu du.



Martitzen eguerdian Baionan egin zuten aurkezpeneko unea. | JONE LARRAÑAGA



**LEHENENGO URRATSAK** Argazkian, orain dela 30 urte senidetzearen hazia erein zuten antzuolarrak eta aihertarrak: Julian Iparragirre, Jenofa Garai, Alfred Oienart, Ana Marie eta Andre Martinon, Gerbasio Legorburu, Juan Antonio Iturbe, Jon Oienart, Mixel Lekuona Makerako apaiza eta Juli Igartzta.

## NIRE USTEZ

JON LIZARAZU



## Garapenaren izenean!

Gure inguruetan ibilaldi bat eman nuen, eta aurrean banu bezala dakusat irudia. Penaz eta harriduraz ikusi ere, parez pare izan eta ia ezagutu ez dudako leku ezagun batean egonik. Antzuolan, futbol zelai inguruan. Garai bateko merenderotik, Lekuberritik, gertu, edo hobeto esanda, bertan. Larre berde eta zuhaitz ederrez osaturiko paisaia, jostailuzkoa bailitzan zuritu dute. Kolorez gorritu. Bertoko ekosistemaren etorkizuna belztu. Belardietatik errekarara bide eginda, panorama ez da hobea. Irain aldean aspaldion ibili ez denarentzat, errekarari bidea aldatu diote,

beste leku batzuetan kendutako lurra bertan pilatzeko. Ondorioz, inguruko hainbat iturri, lehor. 1941etik emankor zen iturria antzu, ur emari bat gutxiago.

Antzuolako inguru guztira begiratua bota eta berde ikusten zen hura, zubi eta tunelez josi digute. Garapenaren izenean egiten ditugun sarrasketako bat bilakatu, eta badirudi ondorioek ez digutela batere axola.

Harra sagarrean edota pipia egurrean lez, gainazalak bete eta barrenak jan. Bitartean gu, begira. Gezurra, begiratu ere ez diogu egiten, errudun ez sentitzeko edo. Oraingo zultzeak baino zentzu handiagoz ikusten dut: Antzuolatik Oñatira zuzenean tunela egin ezke-ro, egubakoitzetan poteatzera juteko moduan izengo giñuztan!

**"Ekosistemaren etorkizuna belztu dute"**



**Bizikletaz nahiz oinez, Finalista Eguna borobila**

Giro ezin hobean ospatu zuten joan den domekan Finalista Eguna Arrola Mendi Taldeko kideek. Izan ere, bizikletaz nahiz oinez, eta eguraldi ederra lagun, mendi irteera egitera animatu ziren antzuolarrak. Trekutzera hamabitakoa egitera, ordea, jende askoz gehiago joan zen: autoa hartuta eta umeen kotxetxoekin, bizikletan edota bestelako ibilbideak egin ostean. 35-40 lagun inguru batu zen Finalista Egunari bukaera borobila emateko asmoz.

## EGITARAUA

### IRAILAK 28

**Irteera:** 09:00etan gaztetxe paretik irtengo da autobusa. Zugarramurdi eta Sara artean elkartuko dira bi herrietakoak.

### URRIAK 15

**Hitzaldia:** Eneko Bidegainek *Euskal Herria eta lehen mundu gerra* hitzaldia egingo du Olaranen, 18:30ean.

### URRIAK 25

**Irteera** Aiherrara joango dira antzuolarrak. Hitzarmen berria sinatuko dute. Bazkaria, musika, kantu saioa, eta abar.

### AZAROAK 5

**Hitzaldia:** Xebax Christy *Euskoa* hitzaldia egingo du Olaranen, 18:30ean.

### AZAROAK 22

**Gaubeila** Antzuolan aihertarren gaubeila festa kuttuna egingo da. Kike Amonarrizek eta Pantxo Hirigarrik hartuko dute parte, besteak beste. Bertsolariak ere izango dira: Ramuntxo Christy (aihetarra) eta Aitzol Iturbe (antzuolarra). Gaztaina-erre dastaketa egingo da ondoren. Aurretik, baina, hitzarmen berria sinatuko dute eta gaztainondoa landatuko dute aihertarrek Antzuolan.





Lehen bileraren ostean talde argazkia atera zuten erretiratuen elkartearen atarian. | EDURNE URIBARREN-ITURRIETA

# Indarkeria sexista artilez borrokatzera

Emakume talde batek azaroaren 25erako herriko hiru zuhaitz forratuko ditu

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO  
Urrun dago azaroaren 25a, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna. Azken urteetan puntu morea banatu izan du Udalak eta egun berean egiten den elkarretaraztean jende askotxo elkartu izan da. Hala ere, aurtun sentsibilizazio kanpaina bat abiatu dute Udalak, Itur-Zuri Emakumeen Kultur Elkarteak eta Alaiak erretiratu elkarteak, indarkeria sexista gizartetik ezabatzeko asmoz.

Kultura etxearen aurrealdeko parkean hiru zuhaitz forratuko dituzte, artilez. Gurutze-puntua edo kakorratza erabilia egingo dute, eta, kolore moreaz gain, beste kolore batzuk ere erabiliko dituzte. Atzo iluntzean egin zuten bigarren bilera eta taldetan banatu ziren; orain, lantalde bakoitzak erabakiko du nola forratuko duen bere zuhaitza. Astero elkartuko dira erretiratuen egoitzan, eta materiala Udalak jarriko du.

**Jende asko, eta askotarikoa**  
Udaleko Berdintasun zinegotzi Edurne Uribarren-Iturrieta pozik

agertu zen lehen bileraren ostean: "Puntu morea banatzen hasi ginen, elkarretaratzea egiten, pelikulak ere jarri ditugu... Eta aurtun zuhaitzak forratzea erabaki dugu. Oso pozik gaude lehen bilerarekin. Jende asko bildu zen, eta askotarikoa; 16 urteko gazte batetik hasita 90 urte baino gehiago dituen emakume batera. Oso ekimen aberatsa izan daiteke, polita izango da eta salaketa bistaratuko du".

## Elkartu, lotu eta salatu

Uribarren-Iturrietak gaineratu du Oletako Briska Emakume Taldeak ere bat egin duela ekimenarekin eta Oletako zuhaitz bat forratuko dutela. Beraz, azaroaren 25ean bertan elkartuko dira artilez egindako artelan guztiak zuhaitzei lotzeko. Bertan utziko dituzte, asmoa delako salaketa herrian presente egotea ahalik eta luzaroen.

Itur-Zuri Emakumeen Kultur Elkarteko Aintzane Telleriartek ere ilusioz hartu du ekimena: "Oso ondo ikusten dut; Interneten ikusi genuen eta oso ekintza

polit da. Lehen bileran jende asko bildu zen eta beste batzuek bat egingo dute aurrerago. Hurrengo bileran adostuko dugu nola gauzatuko dugun lana, taldetan banatuta".

## Denok batera, "ilusioz"

Era berean, Alaiak erretiratu elkarteko Cristina Etxenausiak modu "oso positiboan" baloratu du proposamena: "Adin eta ikuspuntu askotariko emakumeak elkartzeko modu bat da, eta denok batera zerbait egitea, ilusioz. Gainera, adineko emakumeen ikuspuntutik begiratuta, ekintza berri bat da euren doko, emakume gazteagoekin proiektu interesgarri baten parte hartzeko aukera ederra".

Horrez gain, Etxenausiak lan egiteko modua zein izango den ere azaldu du: "Zuhaitz bakoitzeko talde bat sortu dugu, eta talde bakoitzak erabakiko du gurutze-puntua edo kakorratza, zein kolore erabili. Garrantzitsua izango da astero elkartzea, etxean egiten den lana kontrolatzeko eta ideiak komunean jartzeko".

## West Bluegrass Band taldeak joko du gaur Sastiñan

Iraileko musika zikloa itxiko du Algortako taldeak; kontzertua 20:00etan hasiko da

**J.B.** | ARAMAIO

Orain arteko iraileko egubakoitzak musikatu dituzten gainerako taldeen antzera, gaur ere goi mailako musika talde batek joko du Sastiñan. Algortako West Bluegrass Band dator, eskarmentu handiko musikariz osatutako taldea. Hari-instrumentuak dituzte oinarri: gitarrak, banjoa, mandolina zein kontrabaxua maisuki erabiltzen

dute eta country bluegrass doinuekin ikuslea harrapatzeko gai dira. Laukote moduan etorriko dira Sastiñara; Agustin Zubiaga, Carlos Gomez, Jose Gutierrez eta Javier Gartzia dira.

Aire zabaleko hainbat kontzertu eta jaialditan hartu izan dute parte eta gaur Bizente Goikoetxea plaza girotzen saiatuko dira, 20:00etan hasita.



Algortako West Bluegrass Band taldea. | WEST BLUEGRASS BAND

## Felipe Hidalgo adituak perretxikoen gaineko hitzaldia egingo du gaur kultura etxean (18:00)

Alaiak erretiratu elkarteak antolatuta, perretxikoak izango ditu hizpide gaur Felipe Hidalgo adituak. Antolatzaileen arabera, perretxikoen mundua ondo ezagutzen du Hildalgok, batez ere Gorbeia eta Aramaio inguruko perretxiko motak. Besteak beste, jangarrien eta pozoitsuen arteko ezberdintasunak azalduko ditu. Hitzaldia kultura etxean izango da, 18:00etan.

## Aitor Arana mendizale aramaioarraren omenezko XVIII. mendi martxa bihar, ohiko ibilbidearekin

Orixol elkartearen eskutik, Aitor Aranaren omenezko XVIII. mendi martxa egingo da bihar. 07:30ean elkartuko dira kiroldegian, eta 08:00etan irten. 30 kilometro inguruko martxa izango da, sei eta zortzi orduren artean egitekoa. Ibarren hasi eta bukatuko da ibilbidea: Bolinburu, Murugain, Untzilla, Asensio, Danborralde, Kurtzeta, Orixol, Zabalaundi eta Tellamendi.

## San Martin pilota txapelketaren hirugarren jardunaldia gaur kiroldegian, 18:00etan hasita

Aramaio Pilota Elkarteak antolatuta, pilota izango da protagonista gaur kiroldegian. San Martin Txapelketaren hirugarren jardunaldia jokatuko dute bertako zein Araba osotik etorritako pilotariek, benjamin, alebin eta infantil mailetan. 18:00etan jokatuko da lehen partidua eta 21:00ak arte pilotak ez du etenik izango. Antolatzaileek herritarrek gonbidatu dituzte kiroldegira hurbiltzeko.

## Kiroldegiko kantxan libre geratu diren orduak aprobetxatzeko udaletxean egin behar da eskaera

Udalak jakinarazi duenez, kiroldegiko kantxan libre geratu diren orduak aprobetxatu gura duenak gaur egin behar du eskaera. Kirol taldeen saioen eta eskolaz kanpoko ekintzen egutegia egin da, eta astelehen, martitzen, eguazten eta eguenetan libre geratzen da kiroldegia 20:00etatik 21:00etara. Ordu horietan erabili gura dutenek udaletxera jo behar dute: 945 44 50 16.

### ESANAK

**"Jende asko bildu zen, eta oso aberatsa izan daiteke ekimena; polita izango da eta salaketa bistaratuko du"**

EDURNE URIBARREN-ITURRIETA | UDALA

**"Interneten ikusi genuen, eta oso ekintza polita da. Jende asko bildu zen lehen bileran, eta beste batzuk bat egingo dute"**

AINZANE TELLERIARTE | ITUR-ZURI

**"Adinekoendako ekintza berri bat da, emakume gazteagoekin proiektu baten parte hartzeko aukera ederra"**

CRISTINA ETXENAUSIA | ALAIK



# Aurrekontua egiteko herritarren ekarpenak eskatu ditu Udalak

Dei egin du azaroaren 1a baino lehen eskaerak udaletxera bideratzeko

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Elgetako Udala hasita dago 2015eko aurrekontua lantzen, eta, aurreko urteetan moduan, herritarrei ekarpenak egiteko eskaera egin die. "Egoera ekonomikoa guztiontzako larria dela ezagututa, inoiz baino garrantzitsuagoa da lehen-tasunak ondo zehaztea", adierazi dute ohar bidez.

Hala, herritarren proposamenak jasotzeko epea ireki dutela jakinarazi dute Udala Gobernu taldeak. Ekarpentak, eskaerak edo proposamenak aurkezteko epea zabalik dago azaroaren 1era arte. Udaletxean dagoen postontzian utz daitezke ekarpenak, edo [danonartian@elgeta.net](mailto:danonartian@elgeta.net) helbidera posta elektronikoa bidalita.

Herritarrei eta herriko elkar-teei egin diete dei.



San Roke osteko pasealekua. | LARRAITZ ZEBERIO

## Herritarrek eskatuta

Aurreko urteetan egon izan dira herritarrek egindako eskaerak. Esate baterako, San Roke osteko

pasealekua txukuntzeko eskaera edo umeendako udaleku zerbitzua ekaineko azken astetik abiaraztekoa.

## Zapatuan ibilaldia Intxortako gunera eta herri afaria

L.Z. | ELGETA

Euskal presoaren eskubideak aldarrikatzeko ekitaldiak iragarri dituzte biharko, zapatua, Elgetan.

Antolatzaileek ibilaldia deitu dute herriko plazatik Intxortako gerra-guneraino. Ibilaldi hori 18:30etan abiatuko da. Itzuleran, triki-potea egingo dute herriko tabernetan, eta baita herri afaria ere. Tabernaz tabernako kalejira 20:00etan hasiko da. Jarraian izango da herri afaria gimnasioan. Prezioa 15 euro da, eta txartelak salgai daude Elgetako zein Bergarako ohiko lekue-tan.



## Pagoa bota dute Salbadorren

Salbador ermitaren kontra zegoen zuhaitza, eta handiegia zen. Hala, auzolanean mozteko erabakia hartu zuten auzotarrek. Zapatu goizean elkartu ziren, eta, garabi baten laguntzarekin, adarrak moztu zituzten lehenengo eta enborra ostean. Ez zen lan erraza izan, baina eginda dago.

## Lehia estua egon zen zapatuan herriko tortilla lehiaketan

L.Z. | ELGETA

Txapelkunak puntu bakarreko aldearekin irabazi du aurten. *Patata* taldearen tortillak, hain zuzen ere: Maialen Garate, Xabier Irazabal, Iratxe Castaño eta Mikel Zubizarreta.

Era berean, nabarmentzekoa da *Miarma i Ole* taldeko Miren Ibarluzeak, Araitx Oianguren eta Garazi Oianguren lortutako emaitza; izan ere, originaltasunaren saria eskuratzeaz gain, bigarren egin dute zapo-reen sailkapenean.



Txapelketako zenbait tortillak. | L.Z.

### SAILKAPENA

1. <b>Patata</b>	<b>21</b> puntu
2. <b>Miarma i Ole</b>	<b>20</b>
3. <b>Doñak</b>	<b>19</b>
4. <b>Txirikil</b>	<b>18</b>
5. <b>Pintxo Potetarrik</b>	<b>17</b>
6. <b>Mutilzahar Ostixok</b>	<b>17</b>
7. <b>Sortu</b>	<b>17</b>
8. <b>Gaztetxia</b>	<b>16</b>
9. <b>Super Neskak</b>	<b>16</b>
10. <b>Elgetako gaztetxia</b>	<b>16</b>
11. <b>Millonarixuak</b>	<b>16</b>
12. <b>Bixok</b>	<b>16</b>
13. <b>Larrotto Arro</b>	<b>16</b>
14. <b>Faka Faka</b>	<b>15</b>
15. <b>90.210</b>	<b>14</b>
16. <b>Kalderai</b>	<b>14</b>
17. <b>Los Txipirones</b>	<b>12</b>
18. <b>Euskal Neskak</b>	<b>11</b>

## Domekarako lauzpabost orduko mendi irteera proposatu du Kantsatzeke mendi taldeak

Aralar mendikatean dago Balerdi tontorra, eta Elgetako mendi taldeak irteera antolatu du etziko, domeka. Hain zuzen ere, Azkarate herriko abiatuko dira mendizaleak. Autoz egingo dute harainoko bidea, eta 08:00etarako egin dute hitzordua herriko plazan. Garraio gastuak ordaintzeko irteeraren prezioa 10 euro da. Bada, oraingo honetan, parte-hartzaileak adinez nagusi izatea eskatzen dute antolatzaileek.

## Elgetako frontea ezagutzeko bisita gidatua egingo dute etzi, domeka, antzokitik 10:00etan abiatuta

Hileko azken domeka izanik, bisita gidatua egiteko aukera izango da domekan, hilak 28. Taldea kafe antzokian dagoen Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentrotik abiatuko da, 10:00etan. Hiru ordu eta erdiko bisita da, eta aurrez eman behar da izena 943 71 89 11 edo 943 79 64 63 telefono zenbakian zein [turismo@debagoiena.net](mailto:turismo@debagoiena.net) helbide elektronikoa.

### LEINTZ GATZAGA

## "Esperientzia ona" izan da Udalak bideratutako ehiza-postuen enkantea

Joan den egubakoitzean esleitu zituzten azkeneko ehiza-postuak



Imanol Saez de Biteri eta Asier Ugarte zinegotziak, enkantean. | IMANOL SORIANO

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Urtebeteren ostean, eta ehiza-postuen enkantea bukatutzat eman eta gero, "esperientzia on" moduan baloratu dute udalerriko ehiza-postuak bertako Udalak bideratutako enkante bidez adjudikatzea.

Berritzailea izan zen orain dela urtebete hartutako erabakia, ordura arte Ehiza Federazioaren bitartez egin izan dute-eta ehiza-postuen adjudikazioa.

Horren harira, sistema berriekin bideratutako azken enkantea joan den egubakoitzean egin

zuten. Oilagorra ehizatze hiru txartel eta usoetarako postu bat eman zituzten. Ehiza larria, berriz, adjudikatu barik geratu da.

### Usoa, urrian

Ehiza kontuekin arduratzen den zinegotzi Imanol Saez de Biterik esan du "ondo" dagoela aurten-eko enkanteek utzitako emaitza. "Iaz lehen urtea izan zen eta orduantxe adjudikatu ziren postu onenak. Hala ere, iaz oilagorren txartel bat bera ere ez zen eman, eta aurten hiru adjudikatu dira. Kontuan hartu behar da, baita ere, iazko uso pasea ez zela oso ona izan, eta horrek ere izango du eragina uso-postuen enkantean. Horren harira, dagoeneko zabalik dago uso ehiza denboraldia, nahiz eta Gatzagan urriaren 12aren bueltan izaten den".

## Nafarroarako irteerarako izen-ematea, bukatzeaz

Toki Eder erretiratu elkar-teei irteera antolatu du Nafarroa-urriaren 9an.

Iragarritakoaren arabera, hamarretako bapote egin ostean Lizarrako azoka ikustera joateko asmoa dute, eta bazkaldu egingo dute ondoren. Bueltan, bidean ere geratuko dira.

Bada, irteeran parte hartzeko interesa izanez gero, kontuan hartu behar da urriaren 3an bukatuko dela izena emateko epea. Horretarako, elkar-teei Maritxu Plazaolaren edo Lazaro Barandiarengana jo beharra dago. Autobusa Toki Ederrek jarriko du; bazkaria, aldiz, norberak eraman beharra du.



# Euskal Kopako lau finalistak Iturripeko kantxan batuko dira bihar eta etzi

- ▶ Zapatuan jokatuko dituzte finalerdiak eta domekan finala
- ▶ Santurtziri irabaztea ez da nahikoa izan MUK aurrera egin dezan

XABIER URZELAI | ARRASATE

Joan den domekan MUK eta Santurtzik Euskal Kopan emandako ikuskizunak (77-76) jarraipena izango du asteburuan Iturripen, Arrasaten jokatuko dituzte-eta finalerdiak (zapatuan) eta finala (domekan). Hala, ACBko taldeak kontuan izan barik, Euskal Herriko saskibaloirik onena hemen kontzentratuko da asteburuan.

Lau talde sailkatu dira zapatuko kanporaketarako: asteburuan Azpeitia Azkoitia ISB, Araberri eta Easok lortu zuten txartela eta aste barruan –eguztenezan– Santurtziren eta Zornotzaren artean jokatuako bizkaitarren arteko norgehiagokan, berriz, Zornotzak lortu zuen Iturripen lehiatzeko txartela.

**Lauko finalak erabakiko du**

Gipuzkoarrak A multzoko lehen sailkatuak izan dira, asteburuan TAKE Tolosa mendean hartu ostean (65-88). Bi laurden baino ez zituz-

ten behar izan partidua erabakita uzteko, atsedendira iritsi baino lehenago egindako 0-18ko partzialak hankaz gora utzi zuen-eta Tolosaren ordura arteko lana.



Zornotzakoak, batuta. | ZORNOTZAST.EU



Araberriko taldekideak. | ARABERRI.COM



Iraurgi taldea. | IRAURGISB



Easoko talde argazkia. | EASOSB.COM

C Multzoan Araberri BC taldeak egin du aurrera, Easo SBT-ri 69-77 irabazi ostean. Partidu parekatua izan zen, baina azken laurdenean arabarrak 16 puntuko aldea izatera iritsi ziren, nahiz eta azken minutuetan donostiarrek markagailua txukundu.

Easok, berriz, erraz irabazi zuen Askartzan; azkar jokatu eta defentsan txukun jardunda, Arrietaren mutilak erraz irabazteko gauza izan ziren (45-73).

Finalista bat geratzen zen erabakitzeke, eta eguztenezan jokatu zuten Santurtzik eta Zornotzak. Bada, Zornotza da lauko finalean izango den azken ordezkaria. Juan Coronadoren mutilek lasai egin ahal izan zieten aurre Santurtzikoei, jakinda partidua galduta ere Santurtzik hamahiru puntuko aldearekin irabazi behar zuela. Alde handia zen hori. Eta, hala, ez zen ezustekorik egon, 84-91 irabazita Zornotzak egin du-eta aurrera.

**Finaleko lau ordezkarietatik bi gipuzkoarrak dira**

**Zornotza izan da azkena sailkatzen, eguztenezan**

## EGITARAUA

### ZAPATUA

**18:15** Iraurgi-Easo.

**20:15** Zornotza-Araberri.

### DOMEKA

**10:00** 3. eta 4 postuak.

**12:00** Finala.

\* Jarraian egingo dute sari banaketa.

## Egutegiko azken lasterketa irabazi du Mikel Muxikak

Taldekako sailkapenean Antxintxika Servimasa Triatloi Taldeko ordezkariak izan ziren onenak

AITOR REMENTERIA | KOMUNITATETIK  
Euskal Zirkuituko azken lasterketa bikain aprobetxatu zuen Mikel Muxika bergararrak, podiumeko lehen postura igo zen-eta,

Estefania Gomezekin batera (emakumezko onena).

Mutrikukoa esprint distantziako lasterketa izan zen, eta Bergarakoak ordubete pasatxo

erabili zuen lasterketa egiteko (1.01.37).

**Taldeka ere onenak**

Bergarakoak egindako lanaz gain, azpimarratzeko moduko beste hainbat lorpen ere egon ziren; izan ere, Antxintxikak irabazi zuen taldekako sailkapena.

Emakumezkoetan, bestalde, Antxintxika Servimasa Lurdes Valza de Vallejo seigarren izan zen eta Oñatiko Triatloi Taldeko Ainhize Barrainkua ere hamar onenen artean sartu zen.



Mikel Muxika, Mutrikuko podiumeko lehen postuan. | MIKEL MUXIKA





Asier Osinaga eta Arkaitz Ruiz de Loizaga antolatzaileak lasterketako aurtengo kartelarekin. | IMANOL BELOKI

## Arrasate-Oñati herri lasterketako izen-ematea zabaldu dute dagoeneko

Urriaren 11n izango da korrikalari eta patinatzaileen lasterketa

IMANOL BELOKI | OÑATI

Urriaren 11n izango da Antxintxiketan kirol elkarrekin eta Arrasateko Atletismo Taldeak presatatu duten Arrasate-Oñati 31.6 lasterketa.

17:00etan Arrasateko Portaloian hasiko da, eta Oñatiko Foruen plazan izango du helmuga. Izen-ematea zabalik dago urriaren 10era arte eta lasterketak 11

kilometro eta 800 metroko bidea izango du. Korrikalariez gain, patinatzaileek ere parte hartuko dute lasterketan, eta azken horiek lasterketa hasi baino 5 minutu lehenago irtengo dira.

Egun horretan bidegorria erabiltzen dutenei kontuz ibiltzeko eskaera egin diete antolatzaileek, parte-hartzaileen segurtasunerako.

**Izen-ematea zabalik**

*Kirolprobak.com* webgunean eman daiteke izena urriaren 10era arte. Ordaindu beharrekoa, berriz, 10-12 euro bitartekoa izango da. Alokairuzko txipa dutenek 12 euro ordaindu beharko dituzte eta txip horia dutenek, 10 euro. Txipak lasterketa egunean 15:30ean Arrasaten jaso ahal izango dituzte parte-hartzaileek.

## Markel Irizar, 34. postuan munduko txapelketan

Erlojupeko proban lehiatu zen, eguaztenean

IMANOL BELOKI | OÑATI

Bradley Wiggins britainiarak irabazi zuen erlojupeko munduko txapelketa, 56:25 eginda. Markel Irizar oñatiarra Espainiako Selektzioarekin lehiatu zen, eta 34. sailkatu, irabazlearengandik 3.39ra.

Bada, probaren bukaeran, Irizar pozik zegoen egindako lan-saioarekin, baina onartu zuen ez zuela oso egun ona izan. Orain, atsedean hartuko du.



Markel Irizar. | CICLISMO A FONDO

**Podiuma**

Esan bezala, urrea Wigginsendako izan zen; izan ere, hasieratik bukaerara menderatu zuen erlojupekoa. Proba irabazteko faborito nagusi Tony

Martin alemana, berriz, bigarren izan zen, 26 segundora; eta hirugarrena, gazte bat, 23 urtekoa, Tom Dumoulin herbeheretarra, britainiarrarengandik 41 segundora.

## Palmerakuak MBT taldeak II. KDD mendi bizikleta irteera antolatu du irailaren 28rako, domekarako

Irteera goizeko bederatzietan izango da Bergarako Agorrosin kiroldegian. Parte-hartzea doakoa da, eta, igoera gogorrez gain, jaitsiera tekniko eta politak egongo dira. Guztira, 30 kilometro eta 1.200 metroko desnibel positiboa izango dituzte aurretik. Ibilbide polita erakustez gain, gaixotasun mitokondrialaren aldeko ikerketak bultzatzeko dirua batzeko helburua du irteerak. Iker 3 urteko bergararra da eta bere familiakoek txartelak salduko dituzte, hainbat opari zozketatuta.

# Zerbait aldatzen ari da ARRASATEN

Aukera berriak!  
Izan haien berri gure webgunean  
[www.sukia.com](http://www.sukia.com)

ONGI  
ETORRI

Bista ederrak  
Atikoak 198.000 €-tik  
hasita

Zatoz eta hitz  
egingo dugu **600 902 224**





# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



## AKUPUNTURA

### INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

## ALBAITARIAK

### ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

### ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe

620 12 48 43 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

### GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

### AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

### AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

### MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

### BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

### OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKOLOGOAK

### ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA

Bergara / 646 06 28 18

arkaitz.irazabal@gmail.com

### GARMENDIA LANDER

PSIKOLOGO KLINIKOA - PSIKOTERAPEUTA

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86 / 669 10 13 93

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

### VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

### IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## YOGA

### SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe

943 76 11 38 / 639 23 57 53.



# KULTURA

## Kooltur ekintzaren bosgarrena, datorren eguenean hasteko prest

- ▶ Aurrekoen bidetik doa aurtengoa ere: talde bakarra, bost eurotan eta 22:00etan hasita
- ▶ Askotariko estilo eta jatorrietako musika taldeak gonbidatuko dituzte gaztetxera

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Musikarekin lotutako askotariko jardueretan ibilitako zale batzuk sortu zuten orain bost urte Kooltur Ekintza taldea. Garai ezberdinetan bada ere, gaztetxeko Asanbladako kideak izandakoak dira horietako batzuk, bestelako areto edo ekimenetatik datozenak (3.60 aretoa, Elkartasun Eguna...) beste batzuk, musikariak ere badira eta baita tabernariak edo sare sozialetan adituak ere. Guztiak, baina, asmo bera zuten eta duten belaunaldi ezberdinetako musikazaleak: herriko musika eskaintza zabaltzea. "Herriko toki ezberdinetan kultura-ekintza puntualak egitea zen hasierako asmoa eta gaztetxea iruditu zitzaigun lanean hasteko tokirik aproposena, eta horrela jaio zen Kooltur Ostegunak ekimena", azaldu du Iker Barandiaran taldeko kideak.

Gaur egun, zazpi lagun inguruk osatzen dute taldearen bizkarrezurra, unean uneko laguntzaileak eta boluntarioak batzen bazaizkie ere: "Arloka antolatzen gara; nire lana, batez ere, komunikabideei erantzun eta beste



Berri Txarrak nafarrek itxi zuten iazko ikasturtea. | IMANOL SORIANO

kide batzuekin batera egitaraua osatzea da. Horrez gainera, askotariko lanak izaten dira kontzertuaren egunean: tabernan, sarrean, taldeei harrera egiten, soinu ekipoan (mantenuan eta zuzenekoetan)...", dio Barandiaranek.

### Landutako aukeraketa

Bost euroren truke talde bakarreko kalitatezko eskaintza bariatua egitea dutela helburu diote Kooltur Ekintzakoek: "Taldeen eskariak jasotzen ditugu, baina, egia esan, nahiko selektiboak

gara. Ohikoa da gazteteetan, jo nahi duten talde guztiei aukera ematea. Guk, ordea, beste politika bat dugu; besteak beste, herriko talderik ez sartzea erabaki genuen, ez dugulako gaztetearen programazioan kalterik egin nahi.

### ESANAK

**"Ostegunetako kontzertuekin gaztetxera bestelako publiko bat erakarri dugula esango nuke"**

I. BARANDIARAN | KOOLTUR EKINTZA

Era berean, gaztetxera bestelako publiko bat erakartzea lortu dugulakoan gaude, ohiko rock doinuez gainera, besteak beste, soul eta folk estiloei ere lekua eginda".

### Autofinantzatuta

Ez zuten soinu eta argi ekiporik; eguneneko kontzertuetako tabernako irabaziekin ari dira horiek ordaintzen. Musikariei, berriz, sarreren salmentatik ateratako diruaren truke jotzeko eskaintza egiten diete.

## Urriko protagonistak, hurrenez hurren, Iker Barandiaranen ikuspegitik



### KASHBÄD, URRIAK 2

90eko hamarkadako talde ezaguna, besteak beste, Sorkun abeslariak ematen zion berezitasunagatik. Hardcorea da, baina beste hainbat estiloren nahasketekin. Jingo de Lunch eta Bad Brainsen gertukoak. Hiru disko zituzten taldea bertan behera utzi aurretik. Geroago, berriz elkartu ziren kontzertu gutxi baina arrakastatsu batzuk egiteko. Oso ondo landutako *Arrakala* diskoarekin itzuli dira aurretik.



### THE LOOKERS, URRIAK 9

Askorendako ezezaguna den arren, izen handia hartzen ari den Ziburuko taldea da. Garaje-rock bitxia egiten duen hirukote gaztea. Bilboko antzokian ikusi nituen orain bi hilabete. Power-trio bat da, hau da, ez dute beste inoren beharrik; txundituta utzi gintuzten. Boston-rock gitarroa egiten dute. Patroi klasikoa dute, baina noise (distortsioa) ukituarekin. Dotorea, landua eta berritzailea.



### LIBE, URRIAK 16

Neubat taldearekin hasi, besteak beste, Sorkun, Ekon eta Brontze taldeekin kolaboratu eta Izaki Gardenak taldean ere jardun du Libe gasteiztarra. Arrasatera ekarriko duena, baina, proiektu propioa da. Neubaten estiloko musika du oinarrian, baina proposamen intimistagoa da. Rocka da oraingoa ere, baina ukitu ilunarekin. Diskoa atera berri du Tolosako Bonberenea gaztetearekin.



### AUTORAMAS, URRIAK 23

Brasilgo taldea da; euren herrialdean oso ezagunak dira. 1998an batutako hirukotea da. Garaje-rocka egiten dute, baina 80ko hamarkadako ukituarekin, besteak beste, B52 taldearen bidekoak dira. Oso dibertigarriak eta dantzagarriak dira. Portugesez abesten dute. Ibilbide *meteorikoa* izan dute. Zazpi disko argitaratu dituzte. Biran daudela-eta, gurera etortzeko eskaintza egin ziguten.



### SHAKE!, URRIAK 30

Talde ezezagun samarra den arren, eskarmentu handiko musikariak batzen dituen Bartzelonako taldea da. Arrasaten birritan izan diren The Capaces taldeko bi kide daude horien artean, Martillo abeslaria eta Carles gitarrak-jolea. Zuzeneko bortitza egiten duten musikariak dira, nahiz eta proiektu honek oinarrian soul musika duen, ahaztu barik, baina, rock gogorretik edan duten musikariak direla.





Oreka TX taldeko Harkaitz Martinez de San Vicente eta Mikel Ugarte txalaparta jotzen. | OREKA TX

## Oreka TX, La Pulga eta Urdangarin izango dira San Migel jaietan

'Gure musikari handiak' ikuskizun ibiltaria egingo du Oreka TX eskarmentu handiko taldeak astelehenean

IMANOL BELOKI | OÑATI

Hainbat kontzertu izango dira aurtien ere San Migel jaietan. Astelehenean hiru talde bikain ikusteko aukera izango da Oñatin. Izan ere, 29an, Oreka TX, La Pulga eta Mikel Urdangarin taldeek musikaz eta ikuskizunez beteko dute Oñati.

Txalapartariak hainbat saio egingo dituzte Oñatiko kaleetan zehar; lehenengoa 18:00etan izango da. Oreka TX musika taldeak, Lekeitioko Kale Antzerki Nazioarteko Jaialdiak eta Kukubiltxo

antzerki konpainiak sortutako proiektua da *Gure musikari handiak* ekimena, eta, hain zuzen, musika, kale ikuskizuna eta antzerkia batzen ditu.

Euskal Herriko ondare kultural eta musikaleko musikari handiak ekarriko ditu gogora. Izan ere, Maurizia pandero-jotzaile zeberiarra, Leon alboka-jotzaile arratiarra, Fasio trikitilari iurretarra, Pello Zuaznabar eta Ramon Goikoetxea txalapartariak oroitu dituzte ikuskizunean erraldoi modura islatuta.

**Musikariak, erraldoi modura**

Euskal musikari horiek islatzen, *Les Grandes Personnes* txotxongilo konpainia frantsesak lagunduko die ideia horren sortzaileei. Bost musikari handi horiek garai gogorretan folklore herrikoari oinarri sendoak jarri zizkioten. Eta, hain zuzen, musikari garai-kideek folk euskalduna sortzeko erabili dute.

Erraldoiei bizitza emateko, txotxongiloak maneiatzen dituztenek eta musikariak oso ondo koordinatuta egon beharko dute.

### La Pulga eta Urdangarin, sanmigelak musikaz bustiz

Askoa Etxebarrietak (La Pulga) eta Mikel Urdangarinek kontzertua eskainiko dute Oñatiko San Migel jaietan. Bi emanaldiak irailaren 29an izango dira: bata, Atzeko kalean, eta bestea, berriz, Foruen plazan.

Flamenko doinuak, erritmoa, pasioa eta inprobisazioa atsegin dituenak Atzeko kalean izango du aukera La Pulga gasteiztarraren kontzertuan, 19:30ean. Eta Zornotzako bakarlariaren poesia bikainaz eta klasikoez gozatu nahi duenak, berriz, Foruen plazara gerturatu beharko du, 22:30ean.



Urdangarin, Elgetako taula gainean. | GOIENA

## Debagoiendarrak Donostiako Zinemaldian

Sail Ofizialean lehiatzen den 'Loreak' filmak arrakasta bikaina izan du Zinemaldian

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Donostiako 62. Zinemaldian euskarazko zinemagintzak inoizko parte-hartzerik handiena lortu du. Izan ere, hainbat debagoiendar eta lan daude zinemaren hiriburu bilakatu den Donostian. Zinemagileak, gidolariak, aktoreak... elkartu dira bertan: Aitor Arregi, Mariasun Pagoaga, Kepa Errasti, Aitor Mantxola, Maria Cruickshank, Asier Altuna, Esther Cabrero eta Joan Sala, besteak beste.

Jon Garañok eta Jose Mari Goenagak zuzendutako eta Aitor Arregi oñatiarraren gidioa duen *Loreak* filma martitzenean estreinatu zuten Kurasaalean, eta filmaren samurtasunak ikusle guztiak liluratu zituen. Ikusmin handia piztu du Sail Ofizialean

lehiatzen den euskarazko lehen filmak. Izan ere, Urrezko Maskorrarengatik lehiatuko da Sail Ofizialean, baina, sariren bat irabazten duten jakiteko, gaur gaueko amaierako galara arte itxaron beharko dute. Aitor Mantxolak parte hartu duen *Lasa eta Zabala* filma ere Zinemaldian da, nahiz eta Sail Ofizialean ez den lehiatuko.

**Laburrak ere indarrez**

Film luzeez gain, film laburrak ere izan dira mintzagai eguntan. Aipatzekoak dira Asier Altunaren *Soroa* eta Aitor Arregiren *Zarautzen erosi zuen* film laburra. Azken horrek kritika onak utzi ditu eta Belodromoan estreinatu osteko iritzien zain dago Arregi zinemagilea.



Jon Garaño eta Itziar Ituño, Goienako Imanol Gallegorekin | GOIENA

09:30 FANFARREAREKIN DIANA  
10:00 IREKIERA EKITALDIA  
10:15 IBILALDI GIDATUA  
10:15 JOLASEN TXOKOA  
11:30 TAILER EKOLOGISTA  
12:00 ARGIAZALEON TOPAKETA  
14:00 BAZKARI UMORETSUA\*  
\*TXARTELAK 15€ - ALDEZ AURRETIK

# Argia eguna

## IRAILAK 27 USURBIL

ARGIAren baloreak oinarri,  
festa egitera  
**etorri!**

Euskaltzaletasuna, parekidetasuna, iraunkortasuna,  
parte-hartzea, independentzia...

16:30 BOLA-JOKO ZIRIKATZAILEA  
18:00 BERTSO SAIOA:  
AMETS ARZALLUS, MIREN AMURIZA,  
JULIO SOTO, UXUE ALBERDI,  
SUSTRAI COLINA ETA ROSI LAZKANO  
SARRERA 5€ - BERTAN SALGAI  
19:30 ANDRABANDA KALE EZTANDA  
22:00 KONZERTUAK:  
BEHI BI BLUES  
PERLAK  
EÑAUT ELORRIETA  
ESTHER SOUND SISTER

LAGUNTZAILEAK





Josemari Velez de Mendizabalek eta Asun Gorospek jasoko dituzte gaur, egubakoitza, Urrezko Zeledoi sariak. | GOIENA

## Arabian egindako ikerketen ordainetan, saria etxera

'Urrezko Zeledoiak' sariaren irudia eskuratuko du gaur Gasteizen Josemari Velez de Mendizabalek

**A. ARANBURUZABALA** | ARAMAIO  
Ekainean esan zioten Josemari Velez de Mendizabal kultura dibulgatzaileari aurtengo Urrezko Zeledoietakoa bat bera izango zela, Arabaren inguruan egin dituen ikerketen eta dibulgazio lanaren ordainetan. Gasteizko Udalak banatzen dituen arren, sariaren izen bera duen erakundeak du saridunak aukeratzeko eskumena.

Aurtengo Gasteizko Andra Maria jaietan egin zituen Urrezko Zeledoi kargudun moduan lehenengo ekitaldiak, Asun Goros-

perekin batera –hark ere Urrezko Zeledoiak jasoko du gaur–; besteak beste, jaietako txupinazioan parte hartu zuen.

**Gustukoen duen sarietako bat**  
Sorpresaz eta pozarren hartu zuen izendapena, eta, orain dela hamabost urte jaso zuen Aramaio Seme Kuttuna sariarekin batera, jaso dituen askotariko artean minetakoa duela dio. "Urte askotako lanaren saria da gaur jasoko dudana. Sekula ez nuen pentsatuko Urrezko Zeledoietako bat izango nintzenik. Urte

askoan kolaboratu izan dut erakundearekin, orain dela hilabete batzuk esateko Jose Migel Barandiaranen inguruko hainbat hitzaldi egiteko eskatu zidaten eta Arabako euskararen inguruan hainbat azterketa egin ditugu elkarrekin", kontatu du Velez de Mendizabalek.

Principal antzokian izango da gaur, egubakoitza, sari banaketa ekitaldia (20:00), eta han izango da aramaioarra. Hain zuzen ere, senitartekoak eta lagunak izango ditu jarlekuetatik begira, hamaika gonbidapen eskatu diote eta Arrasatetik eta Aramaiotik.

**Sariarekin, erakundeko kide**  
Urrezko irudia eta pinaz jasotzeaz gainera, erakundeko kide izendatuko dute gaur. Kargu berria lanean jarraitzeko "txute" moduko bat izango dela dio.

## Arabako bertsolariak, lehiatzen hasteko gertu

Asteburuan ekingo diete txapelketako txartelak eskuratzeko aurre-kanporaketei

**A. A** | ARAMAIO

2015eko urtarrilaren 17an aurkeztuko duten Arabako Bertsolari Txapelketak 18 bertsolari-erendako lekua izango du. Bi urtean behin egiten den txapelketaren hurrengo edizioan parte hartzeko 35 bertsolari eman dute izena; hori horrela, datozen hiru asteburuetan bost aurre-kanporaketa egingo dituzte, Kanpezun, Ozaetan eta Elosun.

Aurre-kanporaketetan, saio bakoitzeko irabazlea zuzenean sailkatuko da eta gainontzeko bertsolariak puntuazioaren arabera sailkatuko dira. Aurreko txapelketako bost finalistak oraingoan ere izango direnez,

tartean, Manex Agirre aramaioarra, hamahiru bertsolari-erendako dute aurre-kanporaketetan txapelketarako txartela.

**Aramaioko ordezkariak**

30 bertsolari lehiatuko dira, bada, asteburuan hasiko dituzten aurre-kanporaketetan, eta horien artean dira Aramaioakoak: Xabi Igoa; Iker Agirre, Paula Amilburu; Peru Abarrategi eta Maria Izaga.

Aipatutako bertsolarietaz gainera, Lierni Altuna aramaioarra ere txapelketako aurre-kanporaketetan izango da, beste urte batzuetan moduan, gai-jarzaile lanetan.



2013ko edizioaren aurkezpena. | ARABA BERTSOZALE ELKARTEA





# PREZIOAK

## HANKAZ GORA JARTZEN DITUGU

OBRA BERRIA BUKATUTA "SAN LORENTZON"



2 LOGELAKO 2 ETXEBIZITZETAN BAKARRIK APLIKAGARRIA.

Informazioa eta salmenta  
**943 424 430 • 637 726 522**



**Ormak**  
www.ormak.es





Josu Galvez | Mendi lasterkaria

Josu Galvez  
Aretxabaletako  
Felix Iñurrategi parkean.

## "Mendi lasterketek gogoko ditudan bi gauza batzea ahalbidetzen didate: mendia eta kirola"

### IRATI GOITIA | ESKORIATZA

Gustuko du mendia Josu Galvez 17 urteko eskoriatzarrak, baita kirola egitea ere. Biak batzen ditu mendi lasterketetan. Iaz hasi zen lehiatzen eta dagoeneko lortu ditu lehen garaipenak.

#### Nondik datorkizu korrika egiteko zaletasuna?

Orain dela urtebete inguru hasi nintzen mendian korrika egiten. Eskoriatzan egiten den Gabez Takarran lasterketan parte hartu zuten lagun batzuek eta haiek animatu ninduten, orduan hasi nintzen. Asko disfrutatu nuen, eta, nolabait, engantxatu egin ninduen kirolak.

#### Eta ordutik jardun duzu entrenatzen?

Lehen, futboleko jokatzeko nuen. Denboraldi-aurrea ondo gerta-

tzeko helburuarekin neure kabuz egin nuen korrika joan den udan. Gero, urrian bi lasterketa egin nituen, eta orduan erabaki nuen futbola uztea. Gabonetan izan zen hori, eta orduan hasi nintzen serioago entrenatzen mendi lasterketarako.

#### Gehiago engantxatzen dute mendi lasterketek futbolak baino?

Esango nuke baietz, aurten badaramatzat jada lasterketa batzuk eginda, zazpi baino gehiago direla uste dut. Lehenengoa Antzuolan egin nuen (Zortzi Miliak). Gero, besteak beste: Azpeitiko Bertikala, Hiru Mendi Trail, Zegama-Aizkorri eta Pirinioetan *Crestas del Infierno*. Tartean, Euskal Koparako puntuagarriak diren hiru ere egin ditut. Gustatzen zait, bai. Asko disfrutatzen

dit mendian. Betidanik gustatu izan zait kirola. Lehen, errepidean egiten nuen korrika. Mendian ere ibiltzen nintzen, baina txakurrarekin edo familiarekin paseatzen.

#### Denbora laburrean maila ona lortu duzu, Euskal Kopan lider zoaz.

Bai, egia esan, pozik nago. Euskal Kopako hiru lasterketa egin ditut, eta hirurak irabazi. Orain, beste bi falta dira: Urbasakoa-asteburu honetan- eta Gorbeiakoa. Ea kopa lortzeko gai izaten naizen; oso jende ona dago, ordea. **Nola entrenatzen zara?** Disfrutatzea gustatzen zait, ondo pasatzea. Ez naiz dena ematera joaten. Astean bi edo hiru aldiz entrenatzen naiz, mendian zein errepidean. Egia esan, hemen ditugun mendiak paraje ezin

hobeak dira entrenatzeko. Orain, bakarrik entrenatzen naiz, baina datorren urteari begira entrenatzaile bat izatea gustatuko litzaidake. Ikusi egin behar lortzen dudana...

#### Lehietan ere disfrutatu egiten duzu ala gogorak egiten zaizkizu?

Beti disfrutatzen dut, baina baita pixka bat sufritu ere, mendia oso gogorra da-eta. Adibidez, Zegaman lehenengo kilometroak ondo egin nituen, baina gero gaizki pasa nuen. Txakalaldia izan nuen eta sufritu egin nuen... Beste lasterketetan nahiko ondo, kostatzen da, baina ondo. Izan ere, lasterketan ahal duzun guztia ematera joaten zara.

#### Etorkizunean honetatik bizi izatea gustatuko litzazuke?

Noski, gustatu gustatuko litzaidake, baina oso zaila da mendi lasterketetatik bizi izatea. Oso ona izan behar duzu horretarako. Hala ere, ahaleginduko naiz.

#### Ikasten jarraituko duzu batxilergoa amaitu ostean?

Bai; goi mailako modulu bat egin nahi dut basozain izateko. Ahal bada, biak uztartzea gustatuko litzaidake.

#### Natura gustuko duzu, orduan.

Bai, mendia betidanik gustatu izan zait; ibilaldiak egiteko, perretxikoak batzeko... Animaliak ere gogoko ditut. Azken batean, mendi lasterketek gogoko ditudan bi gauza bateratzea ahalbidetzen didate: kirola eta mendia.

#### Oso gaztea zara, 17 urte besterik ez; zure familiak zer dio zure afizio berri honetaz?

Egia esan, zorte handia dut. Gurasoak eta anaia beti etortzen dira lasterketetara, hara edo hona. babes handia ematen didate. Alde horretatik, oso pozik nago; izan ere, beti daude niri laguntzeko prest. Beraz, ez zait animorik falta izaten, soberan izaten ditut.

### PERTSONALA

#### Zure herriko txoko maiteena:

Leizargarate ingurua.

**Mendirik gogokoena:** denak ditut gustuko, joaten naizen tokiaz disfrutatzea gustatzen zait.

**Kirolari gustukoena:** Ez dut inor erreferente bezala, neuk neurea egin eta listo.

#### Irabaztea gustatuko litzazukeen lasterketa:

Gorbeiakoa.

**Kanta gustukoena:** Ez dakit, ez dut musika askorik entzuten.

**Pelikula gogoena:** Ez naiz askorik joaten zinera.



**1. ETXEBIZITZAK****103. ERRENTAN EMAN**

**Esakoriatza.** Etxebizitza ematen da errentan Dorleta auzoan. Igoailua eta berokuntza du eta jantzitza dago. Garajea posible da behar izanezkerok. Deitu 616 91 37 54 telefonora.

**Esakoriatza.** Berriztatuko base-riia ematen da errentan. 18:00etatik 21:00etara bitartean deitu mesedez. 693 21 52 62

**Esakoriatza.** Etxebizitza berria ematen da errentan Esakoriatza erdian. Hiru logela eta bi komun. 652 70 08 00

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan. Lau logela, egongela-jangela, bi komun eta sukaldaria. 650 56 62 06

**104. ERRENTAN HARTU**

**Antzuola.** Antzuolaren etxebizitza errentan hartzeko asmoa daukagun bikote bat gara. 676 61 15 47

**Arrasate.** Bi logelako etxebizitza behar dut errentan, ahal bada erdigunean. Hilean 500 euro ordain ditzaket gehienez. 688 48 47 76 edo 610 99 42 03

**Arrasate.** Bi logelako etxebizitza behar dut errentan. Hilean 500 euro ordain ditzaket gehienez. 651 54 10 26 edo 634 12 56 87

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan. Hilean 500 euro ordain ditzaket gehienez. Deitu 662 68 56 03 telefonora.

**Bergara.** Etxebizitza behar du errentan. Hilean 400 euro ordain ditzaket. 637 18 07 23

**Bergara.** Mutil gazte, langilea, etxebizitza bila. Batendako modukoa edo norbaitekin osatzeko. 669 83 38 75

**Debagoiena.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu: 602 00 57 93

**105. ETXEA OSATU**

**Aretxabaleta.** Erdigunean logela ematen da errentan. Sarraila dauka eta telebista jartzeko aukera ere bai. Interesatuok deitu: 603 14 28 89

**Aretxabaleta.** Logela bat ematen da errentan. Etxe berria da, argitsua eta balkoia dauka. 662 38 14 18

**Aretxabaleta.** Logela bat errentan ematen da. Bainua barraun dauka. Argitsua eta balkoia dauka. 678 73 66 54

**Arrasate.** Arrasateko mutil langilea, ez erretzaila, beste batzuekin osatzeko etxebizitza bila. 679 42 09 38

**Arrasate.** Erdigunean etxebizitza osatzeko 25-40 urte bitarteko pertsona arduratsua behar dugu. 678 82 69 77 (Aritz)

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean, etxeko gainontzeko guneak ibiltzeko aukerarekin. 679 85 63 48

**Arrasate.** Udalpe kalean logela bat ematen da errentan ikasleentzat. 632 09 17 33

**Bergara.** Erdigunean logela ematen da errentan. Bere bainu-gela dauka. Emakumeendako bakarrik. 602 59 38 14

**Bergara.** Etxebizitza bila nabil. Pertsona batendako modukoa edo norbaitekin osatzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669 83 38 75

**Oñati.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat beharko genukeen bi langile gara. Interesaturik egonez gero deitu mesedez 18:00etatik aurrera zenbaki honetara: 653 74 87 51

